

## GRAMATIKA HISTORIKOA GALDERA MOTZAK

### – **Kronologia erlatiboaren adibide bi:**

Zubereraz “u” > “ü” /y/ aldaketa, “o” > “u” aldaketa baino lehenago gertatu zen. Bestela “o”-ak ere /y/ bihurtuko ziren.

1. “-n-” > “-h-”, 2. \*h3>hl “arena” > “areha” > “harea”

### – **Gramatikalizazioa, zer da?**

Meilletek (1912) sorturiko kontzeptua: hitza gramatika – marka bihurtzen deneko prozesuari deitua. Kurylowiczek (1965) “morfema baten hedadura handitzean datza, estatus lexiko batetik gramatikal batera, edo gramatikal batetik gramatikalago batera igarota” Kontrako prozesua lexikalizazioa da.

### – **Analogiaren euskarazko bi adibide:**

Egitura fonetikoan faktore ez fonetikoek eraginez gertatzen den aldaketa irregularra, “da-tor-z” > “datoz”, eta ez “\*\*datos”; “rz” > “s” aldaketa erregularra den arren “doaz”-en analogiaz. Ekialdean “dira” -rekiko analogiaz “gira” eta “zira” formak sortu dira.

### – **Protohistoria**

1545 baino lehenago badugu zenbait informazio euskarari buruz, ez zuzena, zeharkakoa baizik: akitanierak (k.o I. - III. Mendeak) eta erdi aroko dokumentazioak eskaintzen diguten. Protohistoria zehazki historia ez den, baina nolabaiteko lekukotasunak dituen garaiari deitzen zaio.

### – **Noizko eta nongo hizkeraren lekuko da Refranes y Sentencias:**

RS-n ez da jasotzen biltzaileak zerabilen euskara, ezaugarri askotan askoz lehenagokoa baizik, atsotitzak, beste ahozko generoak bezala buruz ikasten eta belaunaldietan zehar ahoz transmititzen direlako. Bilbo aldeko hizkerarekin lotu da eta 1596an lekukotzen bada ere, mende bat lehenagoko hizkeraren lekuko da gutxi gorabehera.

### – **Homologiak**

Jatorri bereko lekukotasunak, azaleko antzekotasun (analogia) izan edo ez.

### – **Ahaidetasun hipotesiak, zein da egokiena?**

Bat ere ez, analogietan oinarritzen direnez gero eta ez homologietan. Luçhairek proposatutako akietaniera salbuespen litzateke.

### – **Maileguen egitekoa euskararen historiaurrearen berreraiketan.**

Maileguetan gordetako aztarnek laguntza eman dezakete hizkuntzaren garai zaharragoez ezer jakiteko, dela hizkuntza hartzailearen, dela emailearen. Euskararen kasuan, Latinetik hartutako maileguek eta horien bilakabideak, berriz, AE-ren sistema fonologikoa berreraikitzeke oinarritzeko lekukotasunak izan ziren Mitxelenaentzat.

Maileguek lagun dezakete aldaketen kronologia erlatiboa ulertzen ere.

Maileguei buruz dakigunak maileguak ez direnen berri ematen digu. Euskararen kristoren garrantzia dute.

– **Hiru argudio bortitz/ahul oposaketaren alde AE -ko herskariaren sisteman**

Geminatuen bilakabideak adierazten du orduko euskaldunek hotsen indarrari begiratzen ziotela eta ez haien ahostuntasunari: lat. BB>eusk. “p”. abbas>”apaiz”

“f”-aren lekukotasunek erakusten dute nola “b” eta “p” -ren arteko bereizketa ez zen ahostuntasunaren arabera.

Lekukotasun zaharretako datuak ere alde. Akitanierazko <TT> eta <CC> grafiak indartsuen adierazpide ditugu (vs. <TH> hasperenduna).

– **Zer zuten komunean AE -z herskari, ozen eta txistukariak Mitxelena bortitz/ahul oposaketaren bitartez antolatzeke guztiak?**

Bortitz/ahul oposaketa, hots, neutralizazio patroia bera: hitz hasieran ahularen aldeko neutralizazioa, amaieran bortitzaren aldekoa eta bokal artean soilik mantentzea oposaketa.

– **Zergatik ez du Mitxelena /m/ AE-ren inbentarioa sortzen?**

Maileguetatik eta fonosinbolismoetatik at, testuinguru sudurkarietan sortzen zen /b-/ -ren alofono gisa bakarrik aurkitzen delako.

– **Emazu AEZ-ren ezaugarri fonologiko eta morfologiko bana.**

Leherkaririk ez hitz amaieran “\*-T” eta aurrizkien erabilera.

– **Zergatik euskalkiak ez datoz leinuen hizkera zaharretik?**

Aspaldiko hipotesia da lehenik erromatarren aurreko tribuek eta ondoren elizbarrutiek euskalkien mugak xeheki markatzen dituztelakoa, ez jakin tribuek eta elizbarrutiak euskalkien kausak diren edo haien ondorioak. Funtsean euskalkiak apaingarri historikoz jazteko ahaleginak besterik ez dira.

Garai bateko leinuen egiazkotasuna zalantzan egoteaz gainera, euren banaketak eta euskalkienak ez dute bat egiten, hain zaharrak balira, euskalkiak elkarrengandik urrunago leudeke.

– **Adarkatze bitarrerako berrikuntza garrantzitsuenak.**

Berrikuntza zaharrenak, betiere paraleloak ez direnean, banaketa zaharretatik datorrelako euskalkia.

– **“u-/i- “ txandakatzea: AE, EBZ, dialektala? Zergatik?**

Dialektala. Bizkaierak gainerako euskalkiekin fonologian duen bereizgarri zaharra da. “\*eu-” diptongo zenbaiten emaitzak dira, ez beti koherenteak.

– **Zenbat eta zein bokal eta diptongo fonologiko zituen AE -k?**

5 bokal (“a”, “e”, “i”, “o” eta “u”) 6, zubererazko ü kontuan izanda. Eta 5 diptongo (au, eu, ai, ei eta oi!) 6, “ui” diptongo bakunza kontuan hartuz gero.

– **Bokal irekitzeen eta itxieren hiruna adibide.**

Bokal irekiera: “e”>”a” ( \_\_R): Berri > barri, txerri> txarri. Gerri > garri

Itxiera: “o” > “u” ( \_\_n), Zubereraz “gizon”> “gizun”, “ezkondu”>”Ezkondu”, “ontsa”>”untsa”

– **Sailkapen nagusia amaierako bokalena**

Amaiera erlatiboa eta amaiera absolutua.

– **Noiztik daude soinu sabaikariak?**

AE- n soinu bezala bazeuden maila alofonikoan. Mendez mende fonema bihurtu da, lehen adierazgarri eta bazterreko ziren hotsak normaltzen joan diren heinean.

– **Fonosinbolimoak: ezaugarri formalak**

Zenbat hizkuntzan bakanago den hots bat, hainbat eta balio fonosinboliko gehiago izango du hots horrek. Onomatopeia, oihu, umeen hizkuntza eta antzekoetan diptongoek duten ohiz kanpoko maiztasunak erakutsi du diptongoak ez direla oso zaharrak. Bestalde, muta cum likidoak onartzen dira (kontsonante taldeak)

– **Hitz hasierako herskari ahoskabeak, jatorriak.**

1. Aurreko hotsak erori izana:BN “phaile” < Ephaile
2. Hitz adierazgarriak (fonosinbolismoak): “khiño”, “plast”, ...
3. Lehengo atzizkiak, aske erabiltzen hasitakoak:”kide”, “tegi”
4. Mialegu berriak. “pinu”, “parte”, “polit”, “taula”, ...
5. Erromantzeen eragina: “pake” < “bake”
6. Bikote ugarien eraginez, forma ez etimologikoen sorrera: BN “pi(d)aia”  
Mailegu modernoak (parte), barneko asimilazioak (kalte), fonosinbolismoak (plast), analogiaz (pidaia).

– **AE-ko \*d- hasierako zenbait froga**

1. “d-”> “l-” maileguetan (Mitzelena)
2. Erreduplikazioaren ondoko horzkarien disimilazioa: “do-dol”>”odol”
3. “\*d-” > “j-” (V\_\_V) adizki jokatu gabeetan (Lakarra)

– **Zer esan genezake /f/-az?**

Gurean berria den hotsa, (markinako idazleek aldarrikatu bezala: Mogel, Frai Bartolome...) Gaur egun fonema arrunta da Euskal Herri osoan, hitz hasieran zein barnean. G, B, eta GN-n maileguko “f”>”p” eta baita erdialdeko eremutik at ere. Mitxelena ez zuen AE-ren fonologiaren berreraiketan fonema bezala sartu.

– **\*h2 / \*h3 > zenbait adibide.**

\*h2> h-: (1) “enuskara”> “euskara” > “heuskara” > “euskara”

(2) “enazur” > “\*ehazur” > “\*heazur” > “hezur”

\*h3> h-: (1) lat. “arena” > eusk. “arena” >”areha” > “harea”

(2) “bor- geni” > “\*bor gehi” > “\*or gehi” > horgei> “hogei”

- **Zenbat ozen fonologiko ziren AEMn eta AEZn?**  
AMNn 6 eta AEZn 3 ???
- **Non eta noiz ematen da artikulazio puntuaren neutralizazioa txistukarrietan?**

Hitz hasieran frikariak (hitz adierazgarri batzuk salbu: “tzintzarri” , “tzar”

Erroaren bukaeran afrikatua “hatz”, “hitz”, “huts”

- Mailegu zaharretan: lat. “fortis” > “bortitz”
- hitz bukaeran -TS, bokal artean -S
- Batzuetan hitz bukaeran zalantzak: “amets”/”ames”
- Salbuespenak, instrumentala “-z”, aditzoinak “haz”, “eros” ...

Herskari aurrean frikaria “hitz” - “hizkuntza”

“l” eta “n” ondoren zenbait euskalkitan afrikatuak (inoiz ez“r” ondoren)

- **Gatz / Gazi, orratz / Orrazi... Zein alomorfo zaharragoa? Nola azaltzen da bikotea?**

Gatz eta orratz ezin dira zaharrenak izan, “frikaria>afrikatua” ,euskararik zaharrenean ez zegoen oposaketa

- **Grassmann -en legeak: erro/silaba barnean eta erro/silaba desberdinetan (?)**

hor + so > hohso > ohso > otso (erroan)

hi + haur + re > hihaurre > ihaure > eure

- **Argudioak Martineten azentuaren alde eta kontra**

Alde: herskariak hitz hasieran eta barnean desberdin egokitzea azaltzen du. Azentu desmarkatzailearen bidez berak nahi duena lortzen du.

Kontra: Azentu lehen vs 1. silabaren ezegonkortasuna.

- **\*\*TVTV: zergatik?**

AEZ.rako Lakarrak proposatutako erro kanonikoa monosilaboa delako.

- **Erro monosilabikoa AEZ-n\_ hiru ondorio nagusi**

atzizki eta postposizio gutxi, VO ordena eta bokal gejiago eta kontsonante gutxiago.

- **Hizkuntza eransleek nolako erro ereduak izan ohi dituzte?**

Bisilaboak (silaba irekidunak)

- **Zer dakigu euskararen gramatika kategorien bereizkuntza zaharrez?**

Adjektiboa kategoria itxia

- **“eure” eta “zeuen” jatorria**

“\*hi” + (h)au(r)+e > “\*ihaure”> “eure”

zeu+en > zeuen

Artikuluaren bilakabidea

Gaurko artikulua 3. graduko erakusletik dator, erakuslea klitiko bihurtuta: “\*-har” > “-ha” > “-a”: gizona”< “gizon\*har”.

### – Zenbakien etimologiak:

- 3- “\*her” (cf. “hertsi” < “\*hertz – (te) i”) + “ur” > “hirur”
4. “laur” < “labur”
5. “bost” < bortz < “\*bor-tz”
6. “sei” < “\*sehi”
7. “zazpi” < “\*(bor)zaz + bi”.
8. “zortzi” < “\*zorrotz-i” (cf. Ukabileko mendixka)
9. “bederatzi” < “\*beda” (cf. “bederen”, “bedera”) + “eratzi” (cf. jantzi)
10. hamar < “\*han-bor”
11. hamaika < “hama(r)-be(da)-ka”.
12. “hamabi” < “\*hamar – bi” - “amai” (B, XIX.mendea)
15. “\*han – bor – bor -tz “
20. “\*(b)o(r) – gen – i” > “ogehi” > “hoge”
100. “ehun” < “\*hen” (cf. “enbor zuhaxka”) + “hun” (cf. Hiedra)

### – Deklinabidea euskaraz

Euskaraz eta beste eranskarietan ez dago benetako deklinabiderik; hizkuntza flexiboan kontua baino ez da. Gainera, gurean sistema bakar bat gehituaz doana vs. latineko bost deklinabideak, bakoitza hitz kopuru ezberdin eta ezberdintasun formalekin.

### – Ergatiboaren jatorria

“-k” < “\*ga” Lakarrak bizidunetako ga-rekin lotu du  
Leku atzizkian bizidunengan du jatorria, “aitaren – gan” . Hortik sortu da, -ga horretatik.

### – Datiboaren jatorria

Pl. E – Z “-ér” < “\*-ag-e-ri” (Azkue 1923) / “-ai”, “-ei” < “\*-agi” (jakobsen -ekproposatuba eta Mitxelenak onartuba).

Gaur egun, “-i” < “\*nin” (Lakarra, 2008)

### – “gibel” ala “oste” zaharrago?

Gibel zaharrago. “gibel” < “\*gi-” + “\*bel” , Lakarrak “\*gi-” aurrizki zahartzat proposatzen du, “bel” AEZko erro monosilabo (CVC) gisa interpretatzen dugun bitartean. “Oste” berriz ezingo genuke zatitu, - C erorketatik ezin onar genezake gainera. Izatekotan mailegua izanen da, baina beti ere CVC garaiaren ondorengo garairen batean hartua.

### – Preposizioen aztarnarik ba ote?

Lakarrak AEZrako CVC erro kanokinoa erro monosilaboa zela proposatu zun. “Samur” , “labur” “sakon”, “samin”, “labain” , “gibel” , “gizen” ... hartzen baditugu, “sa-”, “la-” eta “gi-” aurrizkiak ateratzen zaizkigu, “\*bel”, “bur”, “tzen”, “\*bin”... erroen aldamenean.

– Aditz – erroen forma kanonikoak: nola eraman litezke CVC-ra? (Ziurrenik gaizki)  
“\*e-da-ra-CVC”

– **Hiru konbinaketa “e-da-ra-CVC”.**

\*e-da-ra-dan-o> \*ardano> ardao > ardo  
\*e-da-ra-don-i> \*urbani> \*urbahi> \*hibai> ibai  
\*e-da-ra-go-tzi> \*eargotzi> \*eorgatzi> urgatzi

– **Multzo aditzak**

Aditz erro desberdinen pilaketaz edo elkartzez sorturiko aditzak dira. Euskararen kasuan “aplikatiboa” + “kausatiboa” + CVC. Noizbait “e- CVC- CVC -CVC” izan dugula pentstau behar. Aditz hauen ezaugarri nagusia aspektu – denbora – modu – pertsona marken falta dugu, eta beren artean simetrikoak nahiz asimetrikoak izan daitezke.

– **AE-n aditz guztiak ote sintaktiko?**

Ez. Bi dozena inguru.

– **Zein da perifrasi zaharrena? (?)**

Aditz oina + **edin/ezan**. Gramatikalizatuena delakotz eta inguruko hizkuntzetan parekorik ez duelako.

– **Aoristoa**

Aditz oina + \*edin/ezan erabiltzea aspektu burutua adierazteko. Adibidez “ikus nezanean” “ikusi nuenean”

– **Berregituraketa “zuek” -ekin**

“-zu” ´kolektiboa´, ´pluraltasuna´ adierazteko sartu zen zenbait gramatika esparrutan., deklinabide mugatu plurala sortu aurretik. “zuek” berria. Ingl. You = ZU + Zuek. Eusk: “zu”- sing. Zuek

– **“da-” eta “-en” en gramatikalizazioa**

“da” aspektu burutugabea, “da-go”. \*dar>da  
“en” aspektu burutua, “n-en.goen”: \*den>en

– **Laguntzailearen gramatikalizazio gradua**

\*edin / \*ezan gramatikalizatuago izan/ \*edun baino.

– **Fonologiako aldaketa eta tipologia diakronikoa**

Kontsonante kopurua ugaldtu, eranletasunezko tipologiara hurbilketa.

– **Datu eta data hauen inguruan zein gertakari garrantzitsu hizkuntzalaritza historikorako eta euskararen historiarako?**

- LEIPZIG: Neogramatikoen mugimendua bertako unibertsitateko ikertzaile batzuek sortu zuten
- GINEBRA: Ginebrako eskolan (Unibertsitatean) zebiltzan hizkuntzalari talde batek estrukturalismoa sortu eta garatu zuen bertan.
- 1950: Martinet-en proposamena Bortitz/Ahul AE-ko saila berreraikitzean

d. 1961/1977: Mitxelenaren “Fonética Histórica Vascaren” 1. eta 2. argitalpenak dira. Barne – berreraiketa sortu eta AE-ren sistema fonologikoa berreraiki zuen.

– **Historiaurrea:**

Akitanieraren eta Erdi Aroko euskararen lekukotasunak protohistoriatzat hartuz, euskararen historiaurrea atzerago eramango dugu, Kristo aurreko denboretara. Lekukotasunik ez dugun garai hori litzateke.

– **Lat. Duo: arm. Erku/ eusk. Elkar: holand. Elkaar. Zer dioskute analogiez eta homologiez? (?)**

elkar / alkaar homologia da; antzekotasun grafikoa, itxurazkoaduten jatorri ez bereko bi hitz dira. Berreraiketak ez du baliorik.

Duo/erku analogia da; berreraiketak balio du.

– **Zergatik Mitxelenak ez zituen /m/ , /p/ eta sabaikariak sartu AE-ren inbentarioan?**

Ezpainkari bortitzik ez. /p/ hotsak ez du ematen izaera fonologikoa zuenik, zeren eta, gutxi agertzeaz gainera, agertzekotan /b/ren alofono gisa baino ez. Hots Palatalak (sabaikarixek). Euskara historikoa hots adierazgarriak dira edo sekundarioak; sistema nagusitik kanpo eta horren menpeko gisa leudeke, arlo fonosinbolikoan ziurrenera. /m/ ere, maileguetatik eta fonosinbolismoetatik at, testuinguru sudurkarietan sortzen zen /b/ -ren alofono gisa bakarrik.

– **Euskal morfologia zaharra, iberierarekiko eta kaukasierarekiko erkaketa, zer ikasi dugu?**

Euskara, iberikoa eta kaukasiera ez direla ahaideak.

– **Zer dute komunean T, R eta S hots – sailek Mitxelenak oposaketa bakar batean biltzeko?**

Bortitz / ahul oposaketa, hots, neutralizazio patroia bera: hitz hasieran ahularen aldeko neutralizazioa, amaieran bortitzaren aldekoa eta bokal artean soilik mantentzea oposaketa.

– **Mitxelenaren hiru argudio Martineten herskari zaharren teoriaren alde:**

(1)Geminatuen bilakabideak adierazten du, orduko euskaldunek hotsen indarrari begiratzen ziotela eta ez haien ahostuntasunari: lat; BB > eusk “p”abbas > apaiz.

(2)“f”-aren lekukotasunen arabera, “b” eta “p”-ren arteko bereizketa ez zen ahostuntasunaren arabera, ahoskera ahula edo indartsua izatearen arabera baizik.

(3)Lekukotasun zaharrenen datuak be alde, akitanierazko <TT> eta <CC> grafiak indartsuen adierazpide ditugu (vs. <TH> hasperenduna)

– **/ü/: arrazoiak AEn ez sartzearen alde**

Z-k eta BN-ko hizkera batzuek /y/ <Ü> dute, Mitxelenaren arabera argi dago ordea /u/ren emaitza dela baldintza jakinetan. EBZ-ren ondoko aldaketa erregularra izanda eta beraz “\*u” > “ü” prozesuaren ondorio, salbuespenak salbuespen.

- **Zenbat ozen (eta zergatik) AEZ-ean? Eta txistukariak (eta zergatik)?**

Ozenak?: Txistukariak: 2 (apikaria eta bizkarkaria)

- **EBZ: Zer da? Noizkoa? Zergatik?**

Ditugun datuekin berreraiki dezakegun garaietan gugandik hurbilena, euskalki historikoen ama – hizkuntza. K. o. 5- 6 (Mitzelena), 6- 7 (Azkarate) mendeetan kokatzen da. Nafarroan /h/-ren galera X. mendean eta X – XI mendeetatik aurrera “barri” / “berri” bezalako txandakatzeak; beraz, 10. mendearen aurretik izan behar du. Hizkuntza batuak gizarte egitura batua behar du. Mitxelena proposatu euskaldunak 5- 6 mendeetan bisigodoen aurka bildu zirela, eta Azkaratek antzera, Inperioaren gainbehera ondoko egoera berrian kokatzen delarik.

- **AEZ -tik AEB-ra bi aldaketa fonologiko eta morfologiko:**

FONOLOGIKOAK: Bi txistukari> lau txistukari, eta

MORFOLOGIKOAK: Erro kanoniko monosilabikoa> bisilaboa eta aurrizki> atzizki

- **EBZ, egin laguntzailea ote? Eta eroan/eraman?**

Egin ez, nagusia litzateke eta eroan/eraman ohitur adierazten duen perifrasiya litzateke

- **i-/u- oposaketa (ile/u, utzi/itxi) noizkoa?**

Oposaketa dialektala. Bizkaierak gainerako euskalkiekin fonologian duen bereizgarri zaharra da. “\*eu-” disptongo zenbaiten emaitzak dira, ez beti koherenteak. Inor ez da ausartu AE-rako seigarren bokal bat proposatzen, izan ere, “\*eu-” diptongo zenbaiten emaitza dira.

- **j-: maileguz landa ze testuinguru morfofonologikotan gertatzen da?**

Ondare zaharreko hainbat hitzetan (“jaun”, “jainko”, ... ) eta badirudi toki horretan aditz morfologian paperen bat ere baduela (“jasan”, “jario”, “joan”...) Badirudi osoki edo ia “\*e-” batetik datorrela. AE-n /j/-rik ez izan arren, hots hori euskalki guztietan aurkitzen dugu.

- **V asko oste euskaraz?**

Hiru proposamen: Zero hipotesia (euskal hitzen joera fonotaktikoaren ondorio), bokal eransketa eta hitz hasierako kontsonante galtzea. Lakarrak dio galdera gaizki planteatuta dagoela, kontua ez omen da hitz hasieran bokal asko egotea edo ez, baizik eta zeinen urriak diren toki horretan zilegi diren kontsonanteak.

- **Ze hizkeratan (non) dira euskaraz soinu / fonema sabaikari gehiago? (?)**

Gehiago mendebaldean, gutxiago N, BN eta L-n, (despalatalizazioak egon dira)

- **Herskari bat izan ote liteke fonosinbolismo? (?)**

Bai, esaterako /m/. Zenbat eta bakanago hots bat hizkuntzan orduan eta balio fonosinboliko gehiago izanen du hots horrek.

- **Diptongoak fonosinbolismoetan asko agertzeak zer dakar beren estatus zaharraz?**

Diptongoak ez oso zahartzat jotzeko argudioa da, izan ere, zenbat eta hizkuntza bakanago den



orduan eta balio fonosinboliko gehiago izanen du hots horrek. Onomatopeia, oihu, umeen hizkuntza eta antzekoetan diptongoek duten ohiz kanpoko maiztasuna bera da diptongoak duela gutxi arte erabat ohikoak ez direlako aski adierazle.

- **Zer esan liteke Nafarroa ekialdeko kau / gau, kori / gori, kura / gura eta gainerako dektikoetako herskarien antzinatasunaz?**

Herskaria indartsua zela, honegatik gerora > (0 tatxaute) / #\_\_ gertatu zela. Beraz, oposaketa lenis / fortis izanda, AEB-n kokatzea litzateke.

Apika antzinako herskari indartsua haperen bihurtu ondoren (“haur”...) zenbait testuingurutan alde hartako hiztunek herskari bat berrezartzea hasperenaren orde; honek gogorarazten digu atzizki eta kidekoetan herskari belarrak duen maiztasuna, again nolabaiteko hedapen analogikoaren ondorioz: “-(k)ume”, “-(k)eria”, “-(k)ara”, “-(k)ide” ...

- **Zergatik pidaia -ren ahoskabea?**

Hitz hasierako herskari ahostuntze eta ahoskabetze prozesuetan ahoskabeak erregulariki ahostundu egin ziren baina zenbait kasutan ahoskabeak aurkitzen ditugu. Hala nola, bikote ugarien eraginez, forma ez etimologikoak sortu ziren: BN “pidaia” ...

- **Baldin eta < cella, bake < pacez zergatik zeru < coelu eta gurutze < cruce?**

Bigarrenak erromantzetik hartuak dira eta lehendabizikoak latinetik, beraz lehendabizikoek ez dituzten erromantzeetan jasandako aldaketan jasan.

- **gau haur/ gauR, biharamon / bihaR. Zergatikan?**

R bukaeran neutraltzeko joera indartsua da, baina burutu gabekoa: kontrako indarrek (alboko hizkuntzen eragina) batzuetan irabazi egin dabe. Adibidez:

MAILEGUETAN: “plazerik” ala “plazerrik”?

ONDARE ZAHARREKO HITZETAN: “nor -en” ... baina “ezer-en” ala ezeR-en”?

- **Txistukariak: zer dakigu deusere / aitzina (Z) hauetaz?**

/z/ eta /z azentukin gañin/ fonemak direla Z eta BN -n /S/ eta /s azentukin gañin/ rekin oposaketan daudela baina ezin zirela zahartzat jo, oro har mailegu berrietan, (“aitzina”) eta hitz loturan (“deusere”) baino ez baitira agertzen.

- **Bikoiztasuna: nola azaltzen da larru / narru?**

Bikoiztasuna dialektala da, hitz hasierako ozenen txandakatzea da, “l-” = “n-” -rena. Bizkaieraz “narru” / orok. “larru”

- **Solas, sasoiz, sarats, zeren lekukotasun?**

Txistukarien ahoskune aldaketaren lekuko dira. Hitz baten bi txistukari agertuz gero, ahoskune berekoak izaten dira: apikariak (solas, sarats). Bertzalde, salbuespenak daude: hauek analogiak eta analisiak azaltzen dituzte. Gure kasurakotz, analisiak bi txistukariak ez baitaude morfema berean.

- **Iruzkindu hasperenak: hilabete**

Hitz hasierako /h/a etimologikoa da eta bigarrena berriz, ez. Leherkari hasperenduna leherkari ahoskabearen alofona besterik ez da, beraz, ezdaude bi hasperen hitz berdinean.

- **Azentuera: Zer dakizu ári: arí, alhabá: alhába.**

*Etzakiat ezerre jeje xd*

- **Mitxelenaren 4 azentuera – eremu nagusiak.**

Erdi mendebaldekua (B GN), Zuberera eta Erronkaria (Z + E), Goi Nafarrera (GN) eta Bidasoa Aldekoa.

- **Ozentasun hierakia / Mitxelenaren euskal silaba egitura (?)**

(C) V (W) ( R ) (S) (T): Silaba egiturie  
CV - VC: ozentasun hierakia

- **Erroaren berreraiketak balio handia izan duen bi hizkuntza familia:**

IE eta hizkuntza uralikoak.

- **Bi argudio CVC erro ereduaren antzintasunaz.**

Erre eredu monosilabikoa izan zitezkeen erroetatik % aipagarria lekukoturik du, lekukotasun horietatik mailegu gutxi eta etimologia ezezagun asko, eta azken hauen artean ia guztiek gainditzen dituzte irizpide fonotaktiko eta geografikoak. Bisilaboek, berriz, mailegaketan portzentan altuak dituzte eta etimologia ezezaguneko gutxi.

Lehen bisilabotzat edo polisilabotzat genituenak orain monosilabo konbinaketaren bidez edo mailegu gisa azaldu ditzakegu.

CVC baino eredu ttipiagoak (CV-) ´aurrizki erro´ konbinaketak direla ikusi dugu. Aurkako aukera (-CV) lehenagoko CVC higitu bat dela suposatzea litzateke, baina -C > 0tatxaute aldaketa ez da konposaketa – eratorpenean ez bestean Erdi Aroa baino lehenago lekukotzen.

- **Fonosinbolismoek erro ereduaz zein lekukotasun mota eman dezakete?**

Euskara modernoko edozein erro sailtako hitzak bost taldetan koka daitezke: maileguak, aldaera, konposatu – eratorriak, fonosinbolismoak, eta etimologia ezezagunekoak. Erro lexikoak sailkatzeko balio izan dute.

- **Adjektiboa: klase autonomoa AEZ-n**

Adjektiborik ez edo gutxi zeudela AE-n esaten dute hizkuntzalariek. Bestalde, mailegatuta, eratorrita, partizipiotik eta erlatibotik sartua dela iradoki da; beraz, ez da klase autonomoa.

- **Euskal deklinabide historikoa ren oinarritzko egitura**

Euskaraz zein gainerako eranskarietan ez dago benetako deklinabiderik, hizkuntza flexiboen kontua da fenomeno hau. Gainera, gurean sistema bakar bat gehituaz doana vs. latineko bost deklinabideak, bakoitzak hitz kopuru desberdin eta desberdintasun formalekin.

– **Artikulua: Noizkoa?**

Gaurko artikulua 3. graduko erakusletik dator, erakuslea klitiko bihurtuta, “\*-har”> “-ha” > “-a” : gizona < “gizon \*har”. Nahiko berankorra omen da, erromantzeen eta hizkuntza germanikoen agertzearekin antzera ager izan zitekeen euskaraz, again 8. - 10. mendeen tartean. Espainiako erromantzean 8. mendean agertzen da, eta euskaraz, beranduago. Dirudienez iparralderantz hedatu da (suomieraz 19. medean agertu baita)

– **DAT. -i < ĭ?**

Pl. E-Z “ér” < “-ag-e-ri” (Azkue, 1923) / “-ai”, “-ei”, < “\*-agi” (jakobsenek proposatua eta Mitxelenak onartua). Gaur egunean, “-i”< “nin” (Lakarra 2008)

– **- REANIK**

Pleonasmoa. Ablatiboaren bi forma ditugu, bata bestearen gainean eraikita : “rean” + “rik”

– **Ebili: erabili, gaitu: \*\*garaitu.**

“ebili” eta “erabili” erro bereko aditzak dira. “gaitu” eta “\*\*garaitu”, berriz ez.

– **-te/-tze (etor ) Zein da zaharragoa?**

“te” zaharragoa dela dirudi. Nabarmena da “te” atzeraka dabilela “tze”ren mesedetan, Euskara zaharrea, “-te” hartzen dute bukaerako erroan eta “-i” partizipio marka dutenek ere bai. “-tu” emankor bihurtu ahala “tze” ere ugariagoa da. Ondare zaharreko aditz denek “-te” hartu zuten aditz – izena egiteko. Beraz, hipotesi orokorra: “-te” orokorra da eta ´fase esparita´-n dago aspalditikan, badirudi Euskal Herri osoan konbinatzen zela antzina ondare zaharreko aditzekin “-tze” berriz, aditz modu berriekin loturiko marka da.

– **AEZ, aditz jokatuak gutxi ala asko?**

Gutxi, gehienez 75. Gaur egun bi dozena inguru, Euskarak aditz jokatuaren saila mugatua izan du, Australia eta Ginea Berriko hizkuntza askoren antzera. Aditz sintetikorik ez da maileguren artean, aditz jokatuak jokatu gabeen gainean eratu dira, soilik “\*e-” aurrizkia izan zuten erro soilek hartu dute forma sintetikoa, bokal harmonia eta erreduplikazioa ez dira ditz jokatuetan eman.

– **Trask: Aditzetako da- aurrizkiaren (dator...) jatorrizko balioa?**

Aspektu markatzat azaldu zuen. Aurrizki nahiz laguntzaile ere izan zitekeela zioen baina bigarren aukera ez zuela garatuko.

– **Hiru konbinaketa \*e-da-ra-CVC**

\*e-da-ra-dan -no > \*ardano > \*ardao > ardo

\*e- da- ra- don- i > arrano

\*e- da- ra- gotz- i > “eargotzi” > “eorgatzi” > urgatzi

- **Egitura honetaz ze esan liteke: “Bergararroc asi dira trajioe baten asmacean”: zer esan liteke egitura honen historiaz?**

“plural hurbila” deritzaguna, lehengo gradu aniztasun horren beste arrasto bat da: berrgarar-ok, eta trajioe, -oe> -o lehenago bakundua proposatu beharko?

- **Latinetik bi atzizki: testuen kronologiak laguntzen al du jatorri hori?**

“-ebam”, “-ebas”

- **Hogei: Zelteraz, “ugeint” zer esan zenezake erkaketa honetaz?**

Euskarak zenbaki kardenaletan 20nako sistema duela, frantes zahar eta modernoak eta hizkuntza zeltikoen legez. Azken hauekin lotu izan da hogei – ren jatorria (cf. Ugeint). Gezurra da: “wiknti” zen euskararekin ukipenean zegoenean, orain gainerat, are urrutiago dago: “hogei” < “\*bor-gen-i” < “\*ogehi” < “hogei”

- **Zelü / Zeru , Bike / Phike . Euskaraz zein aldaer zaharrago?**

Zeru zaharragoa da “l” - “r” aldaketa euskararen barruan pairatu baitu. Beraz latinarekin ukipenean zegoenean mailegatutako da, ondorioz, zel”geroago erromantzeetatik mailegatuko da. Kontsonante hasperendun guztiak maileguak dira, edo aldaerak dituzte. Kasu honetan, leherkari ahostunak dira euskaraz zaharrenak: “bike” > “phike”. Asimilaziorik ezean hasperenketarik ez! “b” > “p”

- **Bariku < ?, biao < ?**

“bariku” < abari bagako egun/ “biao” < meridiano

- **Lege fonetikoak eta Analogia zein korronterren oinarrizko analisi – bideak dira?**

Neogramatikariena.

- **Zer dira aldaketa mota erregularrak?**

Batez ere, fonetikoak. Testuinguru, garai, geografia... jakin batean modu erregular batean (ia salbuespen barik) ematen direnak dira esanahia alde batera utzita. Baldintza egokiak dauden hitz guztietan gertatzen den aldaketa mota da (vs. noizbehinkakoa = irregularra)

- **Kronologia erlatiboa: adibide bat**

1) “-n-” > “-h-” 2) \*h3 > hl = arena > areha > harea

- **Irregularitateak: Zergatik dira interesgarri?**

Garai zaharrago bateko gramatikaren isla direlako.

- **Berreraikitzailearen etsai nagusia morfologian**

Analogia

- **Berreraiketa, zer da?**

Hizkuntza batek berak eskaintzen dituen datuetan (mailegu zein bestelakoetan) oinarritutako berreraiketa (konparazioaren bidezkoa). Hizkuntzaren historiaren gertakariak aztarnak uzten dituzte geroko hizkuntzan. Hau dela eta, ahaidegabeko hizkuntzetan ezinbestekoa da barneberreraiketa, zerekin erkatu ez dagoelako.

– **AEZ: definitu**

Ditugun datuen, lekukotasunen, bidez berreraiki dezakegun euskararen garairik antzinakoena eta urrutien dagoena gugandik.

– **Mitxelenaren lanik garrantzitsuena 50. hamarkadan AE-z**

“Las antiguas consonantes vascas”

– **Bortitzak hitz hasieran: Nola gauzatzen dira? Eta bokalarlean?**

Beti ahoskabe: hitz hasieran hasperendun, eta bokalarlean hasperen barik (‘goxo’)

– **Sistema karratutik erronbora.: nola igarotzen gara herskarietan?**

Neutralizazioaren bidez.

– **Soinu sabaikariak: AE -n?**

Alofono gisa behintzat bai.

– **Bokal, diptongo eta irristariak AE -n zenbat?**

5 bokal: a, e, i, o eta u (6 zubererazko ü kontuan izaki)

5 diptongo: au, eu, ai, ei eta oi (6 ui diptongo bakundue kontun hartu ezkeo)

Irristariak: Ez daude, zenbait diptongotan hondar zati gisa besterik gabe maileguetan.

– **AE -n ondoko formak ezinezkoak dira, zergatik?**

“tarrat”: Hitz bukaeran herskaririk ez zegoelako (\*\*-T) eta hitz hasieran ahoskabea

“greba”: Muta cum liquida. Euskaraz hitz hasieran kontsonante talderik ez.

“basalore” “lore” beranduago sortutakoa da, eta “baso-”> “basa-...” Akitaniera ondoko fenomenoak.

– **“-h”> 0 ala “h3” > “h1”:** Zein zaharragoa eta zeba?

Lehendabizikoa zaharragoa, kronologia erlatiboa. Lehenik bi “h”tatik bat erortzen da hitz berean ezin direlako bi /h/ egon, eta gero, geratzen denak ezkererako mugida egin du.

– **Erronkaria: zenbait berrikuntza berantiar**

“gra”, “zra” --- 1616. urtea baino berankorragoak.

– **Soinu sabaikari gehiago eta gutxiago? Non?**

Gehiago mendebaldean, gutxiago BN, N eta L-n despalatilazioa dela eta. Hizkuntza eransleetan ohikoa da soinu sabaikariak topatzea, sistemak gehitu egiten direlako hizkuntza mota hauetan.

– **Fonosinbolismoak: Ezaugarri formal zenbait.**

Hizkuntzan geroz eta bakanago hots bat, orduan eta balio fonosinboliko gehiago izanen du hotsak. Onomatopeia, oihiu, umeen hizkuntza eta antzekoen diptongoek duten ohiz kanpoko maiztasunak erakutsi du diptongoak ez direla oso zaharrak. Bestalde, muta cum likidoak onartzeie, (kontsonante taldeak) Askosaz diptongo gehiago, hitz amaieran normalean posible ez diren kontsonante taldeak (\*\*-T) posible dira, soinuak eta gramatikak zerikusi estua dute, eta muta cum liquidoak. Erraterakotz: “braust”

- **Hitz hasierako herskari ahoskabe modernoak: jatorriak.**

- (1) Mailegu modernoak
- (2) Barneko asimilazioak (sekundarioak): “kalte”, “koipe”...
- (3) Fonosinbolismoak
- (4) Arrazoi zehatzik gabeak, denetarikoak

- **Hitz bukaerako herskari jatorriak.**

- (1) Fonosinbolismoetan (“eup”).
- (2) Mailegu oso modernoetan (“blog”)
- (3) Hitz elkarketetan lehendabiziko osagaiak elementu bat galtzean, erortzean (“ogi”> “ot-”).

- **AEZ-ko “\*d-” hasierakoaren zenbait froga.**

- “latz”/”ardatz”, “lats”/”aldats” txandakatzeak.
- Erreduplikazioak: Hitz hasierako “\*d-” falta “\*do-dol”>”odol”, “\*da-dar”>”adar”...

- **Atziki hasierako herskari / Ø alternantziak. Zer esan liteke horien jatorriaz?**

Herskari gabeko forma zaharragoak direla. Adibidez: “-eria” vs “-keria”.

- **Eta /f/-aren jatorriaz?**

Hots hau gurean berria dela (Markinako idazleek, Mogel, Frai Bartolome...aldarrikatu bezala). Gaur egun Euskal Herri ia osoan /f/ fonema arrunta da, bai hitz hasieran, bai hitz barnean ere. G, B eta GN-n, maileguetako “f”>”p”, eta baita erdialdeko eremutik kanpo ere. Mitxelenak ez zuen AE-ren fonologiaren berreraiketan fonema bezala sartu.

- **Mitxelenaren lau azentuera-eremu nagusiak.**

- (1) Erdi-mendebaldekoa (B, GN)
- (2) Zuberera eta Erronkaria (Z + E).
- (3) Goi-nafarrera (GN).
- (4) Bidasoa aldekoa.

- **Hiru zenbakiren etimologia**

- (3) “\*her” (cf. “hertsi”<”\*hertz-(te)i”) + “ur”> “hirur”.
- (4) “laur” < “labur”
- (5) “bost”< “bortz” < “\*bor-tz”
- (6) “sei” < “\*sehi”.
- (7) “zazpi”< “\*(bor)zaz+bi

(8) “zortzi” < “\*zorrotz-i” (cf. Ukabileko mendixkak).

(9) “bederatzi” < “\*beda” (cf. “bederen”, “bedera”) + “eratzi” (cf. “jantzi”).

### - Ergatiboaren jatorria.

- “-k” < “\*ga”? Lakarrak bizidunetako “-ga”-rekin lotu du.

- Leku atzizkian bizidunengan du jatorria. “aitaren-gan” Hortik sortua, -ga horretatik.

### - Datiboaren jatorria.

Pl. E-Z “-er” < “\*-ag-e-ri” (Azkue 1923) / “-ai”, “-ei” < “\*-agi” (Jakobsen-ek proposatu eta Mitxelenak onartua).

Gaur egun “-i” < “\*nin” (Lakarra 2008)

#### 1. Noiz hasten da hizkuntzalaritza historikoa?

XIX. mendean

#### 2. Lege fonetikoak eta analogia zein korronterren oinarritzko analisi bideak dira?

Neogramatikarenak

#### 3. Emaidazu kronologia erlatiboaren adibide bat.

1) “-n” > “-h”

2) \*h3 > h1

Arena > areha > harea

Zubereraz “u” > “ü” /y/ aldaketa, “o” > “u” aldaketa baino lehenago gertatu zen, bestela “o”-ak ere /y/ bihurtuko ziren eta.

#### 4. Zer dira aldaketa mota erregularrak?

Testuinguru zehatz batean salbuespenik gabe gertatzen diren aldaketak dira, gehienbat aldaketa fonetikoak dira. Aldaketa fonetiko erregularren eta besteen arteko bereizketa egingo dugu berreraiketarako.

Baldintza egokiak dauden hitz guztietan modu sistematikoan ematen diren aldaketak dira.

#### 5. Zergatik dira hain interesgarri erregularitateak?

Beste garai zaharrago baten inguruko informazioa ematen digutelako; hau da, gramatika zaharraren isla dira erregularitateak eta antzinateko erregularitasunen berri ematen digute.

#### 6. Berreraikitzailearen etsai nagusia morfologian.

Analogia

#### 7. Analogiaren definizioa.

Egitura fonetikoan faktore ez-fonetikoen eraginez gertatzen den aldaketa erregularra da.

#### 8. Analogiaren euskarazko adibide pare bat.

- “\*da-tor-z” > “datoz”, eta ez “\*\*datos”, “rz” > “s” aldaketa erregularra den arren,

“doaz”... -en analogiaz.

- Ekialdean “dira”-rekiko analogiaz “gira” eta “zira” formak sortu dira.
- ene < nere bihurtu izana
- dot / dudan > duten
- askatu / aske
- hemeretzi: emezortzi > hamazortzi
- onagoa (hobe-ren ordeaz)

### 9. Berranalisiaren adibide bat euskaraz

- atz-e-an > atz-e
- Paris-e-ko
- a-e integratu
- nor bait-dator > norbait dator

### 10. Zer da gramatikalizazioa?

Unitate lexiko beregain batek gramatikan funtzio bat hartzen duenean.

Elementu lexiko edo gramatikal bati balio gramatikala areagotzea balio lexikala kenduz edo gutxituz.

Meillet-ek (1912) sortutako kontzeptua da: hitza gramatika-marka bihurtzen deneko prozesuari esaten zaio.

Kurylowicz-ek (1965) “morfema baten hedadura handitzean datza, estatus lexiko batetik gramatikal batera igarota”

Kontrako prozesua lexikalizazioa da.

### 11. Zer da deriba?

Sapir-ek asmatuak terminoa. Sapir hizkuntza batean hainbat azterketa toki edo aldaketa txiki, beste sakoneko fenomeno batean.

Hizkuntzak norabide edo tipo jakin batean aldatzen dira eta ez noraezean.

### 12. Bete ondoko taula

		<b>Prep</b>	<b>IA</b>	<b>IG</b>	<b>ID</b>
<b>I (=VSO)</b>	<b>berborea</b>	+	+	+	+
<b>III (=SOV)</b>	<b>kitxua</b>	-	-	-	-
<b>III (=SOV)</b>	<b>euskara</b>	-	+	-	+

### 13. Zertan bereizten dira pidginak eta kreolerak?

Kreolerak pidgin hizkuntzatik eratortzen diren ama hizkuntza bihurturiko hizkuntzak dira. Pidgina bi hizkuntzetako hiztunek elkar ulertzeko asmatuak hizkuntzen nahasketa da. Asmatuak hizkuntza hau bigarren belaunaldiari pasatzen zaionean ama-hizkuntza bezala



kreolera da.

Pidgina ez da inoren ama-hizkuntza, kreolera bai.

**14. Datu eta data hauen inguruan zein gertakari garrantzitsu hizkuntzalaritza historikorako eta euskararen historiarako?**

- **Leipzig.** Neogramatikaren mugimendua bertako unibertsitateko ikertzaile batzuek sortu zuten.
- **Ginebra.** Ginebrako eskolan (unibertsitatean) zebiltzan hizkuntzalari talde batek estrukturalismoa sortu eta garatu zuen bertan.
- **1950.** Martinet-en proposamena [bortitz/ahul] AE-ko herskarien saila berreraikitzean.
- **1961 / 1977.** Mitxelenaren “Fonética Histórica Vasca”-ren 1. eta 2. argitalpenak dira. Barne berreraiketa sortu eta AE-ren sistema fonologikoa berreraiki zuen.

**15. Zer da hizkuntza baten kanpo historia?**

Hizkuntza horren hiztunen historia, norekin egon den ukipenean, mailegutza, literatura, soziolinguistika.

Hizkuntza horretan idatzitako testuen, autoreen edota korronteen berri ematen duena.

**16. Zer da protohistoria?**

1545 baino lehenago badugu zenbait informazio euskarari buruz, ez zuzena, zeharkakoa baizik: akitanierak (K.o I-III mendeak) eta Erdi Aroko dokumentazioak eskaintzen digutena. Protohistoria zehazki historia ez den, baina nolabaiteko lekukotasunak dituen garaiari deritzogu, idatzizko corpus (euskal testu) sendorik ez baina zeharka lekukotasun idatziak dituen. Historia eta historiaurrearen arteko faseko lekukotasunak.

Historiaurrea: Akitanieraren eta Erdi Aroko euskararen lekukotasunak protohistoriatzat hartuaz, euskararen historiaurrea atzerago eramango dugu, Kristo aurreko denboretara. Lekukotasunik ez dugun garai hori litzateke.

**17. Noizko eta nongo hizkeraren lekuko da *Refranes y Sentencias*?**

RS-n ez da islatzen biltzaileak erabiltzen zuen euskara, ezaugarri askotan askoz lehenagokoa baizik, atsotitzak, beste ahozko generoak bezala, buruz ikasten eta belaunaldietan zehar ahoz aho transmititzen direlako.

Bilbo aldeko hizkerarekin lotu da, bizkaiera (mendebaleko hizkera) eta 1596an (XVI.mendea) lekukotzen bada ere, gutxi gorabehera mende bat lehenago hizkeraren lekuko da.

**18. Zer dira homologiak?**

Azaleko antzekotasuna (analogia) izan edo ez jatorri bereko lekukotasun edo hitzak dira.

**19. Lat. duo : arm. erku / eusk. elkar : holand. elkaar. Zer dioskute analogiez eta**

### **homologiez?**

elkar / alkaar homologia da; antzekotasun grafikoa, itxurazkoa duten jatorri ez bereko bi hitz dira. Berreraiketarako ez du baliorik.

duo / erku analogia da; berreraiketarako balio du.

### **20. Zer da barneberreraiketa?**

Ahaiderik gabeko hizkuntza batek berak eskaintzen dituen datuetan (maileguetan zein bestelakoetan), hau da, idatzitako lekukoetan oinarritutako berreraiketa (konparazio bidezkoa) da. Hizkuntza bateko lanabesak erabiltzen dituena.

Hizkuntzaren historiaren gertakariak aztarnak uzten dituzte geroko hizkuntzan. Honegatik ahaide gabeko hizkuntzetan ezinbestekoa da barneberreraiketa, zerekin erkatu ez dagoenean.

### **21. Euskararen ahaidetasun hipotesien artean zein da zuretzat egokiena? Zergatik?**

a) Bat ere ez da egokia, analogietan oinarritzen baitira, ez homologietan. Luchoire-k proposatutako Akitanierarena salbuespena litzateke.

b) Isolatua dela. Metodo konparatuaren bidez ez delako nahikoa beste bat defendatzeko.

### **22. Proposa daiteke aitzinhizkuntza batentzat bokal bakarreko sistemarik? Zergatik?**

Ez. Aitzinhizkuntzak, munduko edozein egungo hizkuntza sistemak bezala bi bokal eduki behar dituelako gutxienez. Ez dago horrelako hizkuntzen lekukotasun bakar bat ere munduan.

### **23. Zenbat urte ditu euskarak? Zergatik?**

Ezin daiteke esan ez baitago data zehatzik. Hizkuntzetan datak erlatiboak dira. Duela 4.000-5.000 urte bazegoen.

### **24. Zer da aitzinhizkuntza bat?**

Berreraiketaren bidez lortzen den balizko hizkuntza edo hizkuntza-zatia (zaila da hizkuntza bat osotasunean berreraikitzea), lekukotasunik gorde ez badu ere.

### **25. Definitu aitzineuskara.**

- Euskararen berreraiketaren sortutako hizkuntz egoera.
- Berreraiki daitekeen euskararik zaharrena.
- Berreraiketaren metodoaren bidez lortu den euskara zahar baten eredua. Latinarekin erkatutako aitzineko ustezko euskara zena.

### **26. Definitu AEZ.**

Ditugun datuen (lekukotasunen) bitartez berreraiki dezakegun euskararen gugandik antzinakoan (urrutien) den garaia. Duela 4.000-5.000 urte ingurukoa.

CVC erako silaba bakarreko erroak zituen, aurrizkiak, aditza hasieran...

### **27. AE-ren edo euskararen ezaugarrien bat kanpo-konparaketaren bitartez antzemana.**

Bat ere ez. Latineko maileguekin konparatuz, euskal hitzek erakusten dituzten aldaketa fonetikoaren ondorioz, euskararen fonetika historikoan asko aurreratu da.

**28. Nork ikertu zituen AE-ko herskariak 1950ean?**

Martinetek.

**29. 50'etako Mitxelenaren lanik garrantzitsuena AE-z.**

Las antiguas consonantes vascas (1957)

**30. Maileguetan egitekoa euskararen historiaurrearen berreraiketan.**

Maileguetan gordetako aztarnak laguntza eman dezakete hizkuntzaren garai zaharragoez ezer jakiteko, dela hizkuntza hartzailearen, edo emailearen. Euskararen kasuan, latinetik hartutako maileguk eta horien bilakabideak, berriz, AE-ren sistema fonologikoa berreraikitze oinarritzko lekukotasunak izan ziren Mitxelenarentzat.

Maileguk lagun dezakete ere aldaketen kronologia erlatiboa ulertzen.

Maileguei buruz dakigunak maileguak ez diren berri ematen digu. Euskararen berebiziko garrantzia dute.

- Lege fonetikoak azalratzea, euskarak maileguak nola hartu dituen agerian uzten duelako. Euskarak izan dituen aldaketen berri (euskarak maileguak bereganatzeko moduaren arabera datazio bat edo beste izango dute). Aldaketa fonetikoaren arabera, garai batean edo bestean koka ditzakegu eta jakin zein hitz den zein baino zaharragoa.

**31. Nola gauzatzen dira bortitzak hitz hasieran? Eta bokal artean?**

Beti ahoskabe. Hitz hasieran hasperendun, eta bokal artean luzeagoak, hasperenik gabeak (*ˈgoxo*).

**32. -Hiru argudio [bortitz/ahul] oposaketaren alde AE-ko herskariaren sisteman.**

**-Mitxelenaren hiru argudio Martineten herskari zaharren teoriaren alde.**

- Geminatuen bilakabideak adierazten du orduko euskaldunek hotsen indarrari begiratzen ziotela eta ez haien ahostuntasunari:  
lat. “BB” > eusk. “p” → “abbas” > “apaiz”
- “f”-aren lekukotasunek erakusten dute nola “b” eta “p”-ren arteko bereizketa ez zen ahostuntasunaren arabera, baizik eta ahoskera ahula edo indartsua izatearen arabera.
- Lekukotasun zaharretako datuak ere alde. Akitanierazko <TT> eta <CC> grafiak indartsuen adierazpide ditugu (vs <TH> hasperenduna).

**33. – Zer zuten komunean AE-z herskari, ozen eta txistukariek Mitxelenak [bortitz/ahul] oposaketaren bitartez antolatze guztiak?**

**- Zer dute komunean T, R, S hots-sailek Mitxelenak oposaketa bakar batean biltzeko?**

[bortitz/ahul] oposaketa, hots, neutralizazio patroia bera: hitz hasieran ahularen aldeko

neutralizazioa, amaieran bortitzaren aldekoa eta bokal artean soilik mantentzea oposaketa. Euskarak bortitz/ahul oposaketa kokagunearen arabera neutralizatzeko joera du baina bi eratakoa: modu eta puntuaren arabeko neutralizazioa, hots, erronboaren sistemaren arabeko gauzatzea. Sistema alofoniko berbera.

Denek zituzten neutralizazio puntu berberak: hitz hasieran, hitz amaieran, kontsonante aurretik eta bokal aurretik.

**34. Nola igarotzen da sistema karratutik erronbora herskarietan?**

Neutralizazioaren bitartez, bortitzak are hasperenduago bihurtuz, hitz hasierako indartsuena ahulduz.

Hasiera batean, hitz-hasieran (gune-bortitzean) herskari bortitzak edota ahulak egon zitezkeen (sistema karratuan). Beranduago, bortitz hauek desagertu eta ahulak ahostundu ziren, soilik hitz hasieran “b”, “d” edo “g” aukerak geratu zirelarik (erronboa).

Aitzin euskara bada erronboa euskara batu zaharra neutralizazioa ahostunaren edo ahularen aldekoa da hain justu bitarte horretan ematen dena.

**35. Nola igarotzen gara sistema erronbotik karratura herskarietan?**

Hasperena galduz.

**36. Zergatik euskalkiak ez datoz leinuen hizkera zaharretik?**

Aspaldiko hipotesia da lehenik erromatarren aurreko tribuek eta gero eliz barrutiek euskalkien mugak xeheki mantentzen dituztelakoa, ez jakin tribuak eta elizbarrutiak euskalkien kausa diren, edo hauen ondorio. Funtsean euskalkiak apaingarri historikoz janzteko ahaleginak besterik ez dira.

Garai bateko leinuen egiazkotasuna dudan egoteaz gainera, euren banaketak eta euskalkienak ez dute bat egiten, hain zaharrak balira, euskalkiak elkarrengandik urrunago leudekeelako.

Ez datozelako bat gaur egungo euskalkien maparekin, ez dakigu garai hartan ze euskalki mapa zuten.

Barduliarrak, karistiarrak... III-IV. mendetik aurrera baliorik ez, ez dakigu euskararik bazen leinu hauetan.

**37. Zergatik ez ditu Mitxelenak /m/ , /p/ eta sabaikariak sartu AE-ren inbentarioan?**

Ezpainkari bortitzik ez, /p/ hotsak ez du ematen izaera fonologikoa zuenik, zeren eta, gutxi agertzeaz gainera, agertzekotan /b/-ren alofono gisa baino ez baita.

Hots palatalak (sabaikariak). Euskara historikoan hots adierazgarriak dira edo sekundarioak; sistema nagusitik kanpo eta horren menpeko gisa leudeke, arlo fonosinbolikoan ziurrenera.

/m/ ere maileguetatik eta fonosinbolismoetarik at, testuinguru sudurkarietan sortzen zen /b/-ren alofono gisa bakarrik.

38. **Ba ote soinu sabaikaririk AE-n?**

Bai. Beste fonemen alofono edo fonosinbolismo gisa.

39. **Zenbat bokal, diptongo eta irristari ziren AE-n?**

Bost bokal (a, e, i, o, u) eta bost diptongo (au, eu, ai, ei, oi). Hala ere, sekundarioa dirudien seigarren bat dago: oi. Ez zegoen irristaririk, diptongo zenbaiten hondar zati gisa besterik gabe maileguetan.

40. **/ü/ arrazoiak AE-n ez sartzearen alde.**

Zuberoa eta Baxe Nafarroako hizkera batzuek /y/ <ü> dute, baina argi dago /u/-ren emaitza dela baldintza jakinetan. EBZ-ren ondoko aldaketa erregularra izan da, eta beraz “\*u” > “ü” prozesuaren ondorio, salbuespenak salbuespen.

41. **Zenbat ozen (eta zergatik) AEZ-ean? Eta txistukariak (eta zergatik)?**

Bi txistukari: apikaria eta bizkarkaria. Zenbat eta atzerago joan, orduan eta kontsonante gutxiago agertzen dira inbentarioan.

42. **Ondoko formak ezinezkoak dira AE-n. Zergatik?**

- **Tarrat.** Hasierako eta bukaerako “t”. Hitz bukaeran herskaririk ez zegoelako (\*\*-T), eta hitz hasieran herskari ahoskabea.
- **Greba.** Muta cum liquida. Euskaraz hitz hasieran kontsonante talderik ez. AEn ez zegoen kontsonante bilkurarik (soilik hitz fonosinbolikoetan), ez du CVC egitura errespetatzen.
- **Basalore.** “lore” beranduago sortutakoa da, eta “baso-“ > “basa-\$. Akitaniera ondoko fenomeno.

43. **Zein da zaharrago, “zelü” / “zeru” ala “gela”? Zergatik?**

ü antzinako u batetik dator, r antzinako l batetik.

Gela da zaharrena, latin garaian sartu zelako euskarara eta ez zuelako pairatu erromantzeetan pairatutako aldaketa (euskarazkoa bai, “k” > “g”).

“zeru” Erromantzetik hartutako maileguez belarearen orde txistukaria dute. Gero “l” > “r” aldaketa Erdi Aroan pairatu zuen.

“zelü”. Ez du “l” > “r” aldaketa egin Erdi Aroan; beraz beranduagokoa da.

44. **Emazu AEZ-ren ezaugarri fonologiko eta morfologiko bana.**

Leherkaririk ez hitz amaieran “\*\*.-T” eta CVC egitura zuten.

Aurizkien erabilera eta erro monosilabikoak.

45. **Zer da eta noizkoa Euskara Batu Zaharra?**

Ditugun datuekin berreraiki dezakegun garaietan gugandik hurbilena, euskalki historikoen ama hizkuntza. K.o 5-6 (Mitxelena), 6-7 (Azkarate) mendeetan kokatzen da. Nafarroan /h/-ren galera X.mendean, eta X-XI mendeetatik aurrera “barri” / “berri” aurretik izan behar du.

Hizkuntza batuak gizarte egitura batua behar du. Mitxelenak proposatu euskaldunak 5-6 mendeetan bisigodoen aurka bildu zirela, eta Azkaratek antzera, inperioaren gainbeheraren ondoko egoera berriari kokatzen du.

- ✓ Euskalkiak banatu aurretik zegoen euskararen batasun egoera. Mitxelena eta Zuazok V-VI. mende inguruan kokatzen dute.
- ✓ Gugandik hurbilen egon daitekeen aitzin hizkuntza komuna bilatzea da EBZ berreraikitzea. Egun ezagutzen ditugun euskalkiak sortu baino lehenagoko euskara da.

46. **Nork proposatu zuen EBZ? Zergatik / Zertarako?**

Mitxelenak proposatu zuen hizkera modernoak AEtik urrun gelditzen zirela ikusi zuelako. AEk ez digu balio dialektoen adabegi izateko, gugandik hurbilago dagoen bat behar dugu, EBZtik aterako lirateke dialektoak.

Hizkuntza bateratu bat sortu nahian elkar ulertzeko.

47. **Zer zioen Lacombe euskalkiez?**

Euskalkiak bitan banatu zituen (sailkapena bitarra zen) argudio morfologikoak eskainiz: bizkaiera (bere ustez lexiko zabalagoa eta “egin” aditz erroa desberdina) eta gainerakoak.

48. **Eta Uhlenbeckek?**

Bere ustez euskalki bizkaitarrak eta gainerakoak jatorri ezberdinekoak dira, bi hizkuntza ezberdin kontsideratzen zituen, gerora harremanaren ondorioz batu zirenak.

49. **Mitxelenak emandako EBZ ondoko berrikuntza fonologiko bat.**

- Sabaikaritzea
- Diptongoen ugaltzea, ahoskabeak hitz horietan berrezartzea, n → h hasperentzea.

50. **Mitxelenak emandako EBZ ondoko berrikuntza morfologiko bat.**

- Deklinabide-aditza, artikulua
- ‘egin’ aditz erroa Bizkaian

51. **AEZ-tik AEB-ra bi aldaketa fonologiko eta morfologiko.**

**Fonologikoak**

- Bi txistukari > lau txistukari.
- CVC

**Morfologikoak**

- Erro kanonikoa monosilaboa > bisilaboa. Erreduplikazioak
- Aurrizki > atzizki

52. **BZ-ren arkaismoek balio ote dute hura gainerako euskalkietatik bereizteko?**

Ez. Arkaismoek ez dute balio hizkerak desberdintzeko. Arkaismoak dira, beraz, garai batean

euskalki guztiek izan zituztela pentsatu behar dugu, hortaz, zerbait egitekotan batasun zaharra islatzen dute, hizkuntza bera direla besterik ez dute erakusten.

53. **Zergatik IE, austronesioan eta beste hainbatetan dira adarkatze bitarrak dialekto banaketa diakronikoan?**

Edozein banaketa linguistikotan binamismoak hori markatzen duelako.

54. **Zer eratako berrikuntzak dira garrantzitsuenak adarkatze bitarrerako? Zergatik?**

Berrikuntza zaharrenak, betiere paraleloak ez direnean, banaketa zaharrenetatik datorrelako euskalkia.

Berrikuntza zahar bereizleak. Bestela ezin direlako hizkerak edota hizkuntzak banatu.

55. **Ezagutzen duzu ezaugarriren bat EBZ-ren banaketan garrantzitsu litzatekeena lehen adarkatze bitarrerako?**

Herskarien portaera, l eta n ondoko ozenen portaera ahoskabe eta ahostunaren alde.

56. **Mendebaldeko euskara zaharraren berrikuntza fonologiko bat.**

- a + a = ea deklinabideko a enborretan
- “r” eta “l”-ren aurreko bokalaren irekitzea: txarri, barri...

57. **Eta berrikuntza morfologiko bat?**

- -gaz soziatibo marka
- “egin” laguntzailea, \*eutsi erroa
- ablatibo arkaikoa (-rean)

58. **Gipuzkera goian ala behean litzakete horrelako banaketa batean? Zergatik?**

Behean. Berrikuntza zahar propio gutxi dituelako gipuzkerak, eta dituenak ez direlako oso zaharrak.

59. **\*ezan laguntzailea Z-n: arkaismo ala berrikuntza? Zergatik?**

Arkaismoa. Noizbait euskalki guztietan izan delako.

60. **\*eutsi laguntzailea batua eta aitzinakoan: arkaismoa ala berrikuntza? Zergatik?**

Berrikuntza komun garrantzitsuenetakoa. \*eradun-etik datorrelako eta soilik aitzinakoan eta batuan eman delako.

61. **EBZ: egin laguntzailea ote? Eta eroan / eraman?**

- “egin” nagusia litzateke.
- “eroan” / “eraman” ohitura adierazten duen perifrasi.

62. - **Sailka u-/i- txandakatzea: AE, EBZ, dialektala? Zergatik?**  
**i-/u- oposaketa (ile / ule, utzi / itxi) noizkoa? Zergatik?**

Dialektala. Ez delako euskalki guztietan gertatu EBZ baino berriagoa, beranduagokoa da. Ez

delako hedatzen hiru dialektotara baino gehiago guk dakigunez.

Bizkaierak gainerako euskalkiekin fonologian duen bereizgarri zaharra da. “\*eu-” diptongo zenbaiten emaitzak dira, ez beti koherenteak. Inor ez da ausartu AE-rako seigarren bokal bat proposatzen, izan ere, “\*eu-” diptongo zenbaiten emaitzak dira.

63. **-h > 0 ala \*h3 > h1: zein zaharrago eta zergatik?**

Lehendabizikoa zaharragoa da. Kronologia erlatiboa. Lehenik bi “h”-tatik bat erortzen da hitz berean ezin direlako bi /h/ egon, eta gero geratzen denak ezkererako mugida egin du.

\*h3 > h1 (arena > areha > harea > area)

64. **h2 > h1: bi adibide**

- leone → lehoi : leohe → lehoe → lehoi
- enazur → hezur: ehazur → he(a)zur

65. **Erronkariaren zenbait berrikuntza berantiar.**

- Erakusleetako herskariak.
- Kontsonante arteko bokal zenbait galdu: gra, zra. 1616.urtea baino beranduago gertatuak.

1. **Zenbat eta zein bokal eta diptongo fonologiko zituen AE-k Mitxelenaren arabera?**

EBZ: 5 eta 5            AE-k ez

Gaurko euskalkietatik abiatuta bost bokaleko sistema bakun batera baino ezin gaitzke iritsi berreraiketari atzera: i (goiko aitzinekoa), u (goiko atzekoa), e (erdiko aitzinekoa), o (erdiko atzekoa) eta a (behekoa).

Mitxelenak bost diptongo eraman zituen AE-raino, guztiak beheranzkoak: au, eu, ai, ei, oi. Bada seigarren bat, sekundarioa dirudiena,-oi-ren ixtearen ondorio: ui.

2. **Bokal inbentario hori aski ote ule/ile, uzen/izen, utzi/itxi eta gainerako u-/i-txandakatzek azaltzeko? Zergatik?**

Ez. Seigarren bokal baten existentziaren ondorioz sortuak lirakeela uste da. Txandakatzek hauek borobiltasunarekin lotuta daude.

3. **Bokal sudurkariak: nondik datoz? Lehen lekukotasunak.**

Bokal arteko /n/ galtzearen ondorioz; Garibai eta Madariaga (Bizkaiera zaharra) XVI. mendean.

V\_V sudurkari bat galtzean, bokal horiek sudurkariaren arrastoa mantendu zuten. Hauen lehen lekukotasunak Garibairenak dira (ardao) Refranes y Sentencias. Akitanieran oraindik “n” mantentzen zen (seni). Hala ere, [n]tik ez da zuzenean lortzen bokal sudurkaria: hasperen sudurkariaren pausua aurretik.

4. **ü: non lekukotzen eta nondik dator?**



Zuberoan eta BNko eremu batean (Amikuze, Bardoz, Oihenart, Zalgize, Bela). Frantseseko sistematik sortu zen (\*u > ü) “u” zahar batetik dator.

#### 5. **Bokal irekitzearen zenbait adibide. Zein testuingurutan ematen?**

Asimilazio eta disimilazioen ondorioz gertatzen dira.

- “e” > “a” (\_r/l) : “berri” > “barri”, “txerri” > “txarri”, “(i)gerri” > “(i)garri”, “bazter” > “bazar”, “beltz” > “baltz”, “chimeldu” > “chimaldu”
- i/u-ren asimilazioz a > e : ogie, dogune
- u > i : “gutxi” > “gitxi”
- o/e: “ot(he)” > “ete”, “omen” > “emen”
- e/o: “sendo” > “sonto”

#### 6. **Bokal ixteen zenbait adibide. Zein testuingurutan ematen?**

- “o” < “u” (-n), Zubereraz: “gizon” > “gizun”, “ezkondu” > “ezkundu”, “ontsa” > “untsa”
- Asimilazioak: “ukusi” > “ikusi”, “ule” > “ile”, “gaztelu” > “gaztulu”
- Sudurkari inposiboaren aurrean: emanen > emeen > emain
- itxe, ipizpiku (txistukarien aurretik)

#### 7. **Bokal borobiltzeen eta desborobiltzeen zenbait adibide. Zein testuingurutan ematen?**

- i/u oposaketak hitz hasieran, gehienbat asimilazio/disimilazioen ondorioz.
- Aurreranzko asimilazioz: “gutxi” > “gitxi”, “urrin” > “urrun”, “ditut” > “dutut” (borobiltzea)
- Atzeranzko asimilazioz: “zubi” > “zibu”, “ilun” > “ulun” (desborobiltzea mendebaldean) “irten” > “urten”, “ile” > “ule”
- Bokalkontrahazioak: “ukitu” > “ukitu”

#### 8. **a + a hiatoa: bilakabide nagusiak.**

66. Disimilazioa: a + a > ea, ia, e, ie

67. Kontrahazioa: a + a > a

68. á azentuduna bada lehen bi bokal zeuden

69. Zaraitzun: a + a > ara

70. a-z amaitutako erroa + a mugatzaile singularra= alabea

71. adizki jokatuak + -an= doa + -an > doan

#### 9. **Gainerako hiatoak: berreraiketarako balioa.**

Geminatuak dira gainerakoetatik garrantzitsuenak berreraiketarako, arkaismoak baitira. Bokalkontrahazio bat silaba batean, bestea bestean. Funtsean hiatoek ez dute balio handirik

berreraiketarako.

**10. Amaierako bokalak: sailkapen nagusia.**

Amaiera absolutua. Amaiera erlatiboa

Absolutibo singularrak eragindako aldaketak, apokopeak eta paragogeak.

**11. Hitz hasierako bokalak: zer diote euskararen bilakabideaz?**

Uste izan da oso ugariak izan direla euskaraz, baina frogatu da ugaritasuna ez zela hainbesterako (#\_ko kontsonante gutxi, kontsonante erorketak...). Benetan ugaria balitz, euskararen eranskaritasunaren seinale, hots, euskara hizkuntza eransleetara gerturatzea lortzen dute. Hitz hasierako bokal askoko beste hizkuntza batzuk bezala eranskariak bokal asko ditu.

Venneman (1994) eta Martineten (1955) hipotesia:

- bokalaren eransketa > protesi fonologiko edo antzinako aurrizkia.
- Kontsonante erorketa

**12. Euskal hotsen bilakabide orokorraz dakigunaren arabera, K.a-ko XVean ala K.o-ko XV.ean ote diptongo gehiago? Zergatik eta nola?**

K.o-go XV.mendean. Diptongoak modernoak dira eta gero eta diptongo gehiago daude. Aitzinan diptongoak ekiditeko bideak zeuden eta hori zen joera.

**13. Goranzko diptongoak: zenbat dira? Ze bilakabide nagusi dute?**

Gutxi eta berantiarrak dira. Batzuetan indartu eta beste batzuetan galdu egiten dira. Euskaraz beheranzko diptongoak izan daitezke (au-eu-ai-ei-oi).

Erromantzeetatik sortzen diren maileguetan dauden goranzko diptongoak ekiditeko moduak zeuden: bokal erorketa, kontsonantizazioa, -g- tartekatzea, -r- zubi lana.

**14. Irristariak: jatorria eta bilakabidea.**

Ez dira AE-koak, “w” maileguetan baino ez dugu aurkitzen, eta askotan ekiditen da, mailegu eta ondare zaharreko hainbat hitzetan gertatu izan da inoiz : swerte > sorte. -we- > -e-, VCe : suberte

“j” ugariagoa da, hitz zaharren hasieran eta aditz batzuetan ageri da, Mitxelenaren arabera aditz zaharretako /e/-ren garapenetik sortuak. Aditz zaharretako \*e > j- bihurtzen da bokal aurrean: \*e-da-dan > e-a-dan > ean > jan. #jV- > i(C)V: ia, iya

**15. Ba ote ezer esatekorik j-ondoko bokalismoaz? Zergatik ote?**

Aurrizki bat izan behar zuen noizbait. Hasieran \*edV zen eta “d” hori bokal artean galdu eta “j” bihurtu zen. Hots, “j” ondoko bokalismoan “d” bat falta da, bokal artean galdutakoa. “j”-ren ondoren “a” bat omen zegoen, eta aurretik \*e bat, e + a: j.

**16. j- maileguez landa ze testuinguru (morfo)fonologikotan gertatzen da?**

Ondare zaharreko hainbat hitzetan (“jaun”, “jainko”...) eta badirudi toki horretan aditz

morfologian paperen bat ere baduela (“jasan”, “jario”, “joan”...) Badirudi ere osoki edo ia “\*e-“ batetik datorrela. AE-n /j/-rik ez izan arren, hots hori euskalki guztietan aurkitzen dugu.

**17. Noizdanikoak dira soinu sabaikariak? Nola?**

Aspaldikoak / betidanikoak dira soinu sabaikariak, baina lehen hizkera adierazgarrian soilik erabiltzen ziren, ez ziren sistemako fonemak. Ondoren sabaikaritzea orokortu eta adierazgarritasuna galdu zuten.

Mitxelena AE-n bazeudela uste zuen lekukotasunik egon ez arren, hots bezala agertzen ziren maila alofonikoan bazen ere. Mendez mende fonema bihurtu da, lehen adierazgarri eta bazterreko ziren hotsak normaltzen joan diren heinean.

**18. Non (zein hizkeratan) dira soinu sabaikari gehiago / gutxiago? Zergatik?**

Hizkuntza eransleetan ohikoa da soinu sabaikariak topatzea, sistemak gehitu egiten direlako hizkuntza mota hauetan.

Gehiago dira bizkaialdean (mendebaldean), beste eremuetan ez dagoen sabaikaritze bat gehiago dutelako. Gutxiago Lapurdi eta Behe Nafarroan (baita Sakanan ere) desabaikaritzeen ondorioz.

**19. V- asko ote euskaraz? Zergatik?**

Hiru proposamen daude: zero hipotesia (euskal hitzen joera fonotaktikoaren ondorio), bokal eransketa eta hitz hasierako kontsonante galtzea.

Lakarraren arabera, kontua ez da hitz hasieran bokal asko egotea edo ez, baizik eta zeinen urriak diren toki horretan zilegi diren kontsonanteak.

**20. Desabaikaritzeak zein ondorio du fonosinbolismoan?**

Ondorio fonetiko hutsa (maileguetan, botella : botila) eta ondorio semantiko konnotatiboa (besteetan, txakur vs zakur, txerri vs zerri).

**21. Emaidazu fonosinbolismoetako [+markatu] → [-markatu] bilakabidearen zenbait adibide.**

**22. Fonosinbolismoen ezaugarri formal zenbait.**

- Fonosinbolismoak euskaraz ez dira beti sabaikarien bitartez soilik eman, adibidez, gutun / kutun.
- Ahoskabea izateak balio erantsia dauka.
- Bokalismoari dagokionez, askoz diptongo gehiago. Onomatopeia, oihu, ume hizkuntza eta antzekoetan diptongoek duten ohiz kanpoko maiztasunak erakutsi du diptongoak ez direla oso zaharrak, hots, diptongoak duela gutxi arte erabat ohikoak ez direlako aski adierazle da.

- Hitz arruntetan arruntak ez diren kontsonante talde posibleak (braust).
- Muta cum likidoak onartzen dira (kontsonante taldea, trabari + herskari)
- Oso paper txikia euskaran.
- Adierazkortasuna.
- Zenbat eta hizkuntzan bakanagoa den hots bat, hainbat eta balio fonosinboliko gehiago izango du hots horrek. Hala nola, /m/ herskaria fonosinbolismoa da.
- Munduko hizkuntza guztiek dituzte, baina ez dira berdin gauzatzen.

### 23. Hitz hasierako ahostuntzeak: frogak, kronologia.

Kontuan hartuz latinaren ukipen-egoeran jada ahostuntzea eman zela (pacem > bake), IV. mendea baino zaharragoak dira.

Frogak: latineko mailegu zaharretatik hartuak dira.

Kronologia: lehen haustura dialektala baino lehenago gertatua (pacem > bake).

Euskalkiak sortu baino lehenagokoak dira ahostuntzeak, zenbat eta modernoago, ahostuntze gutxiago.

### 24. Hitz hasierako herskari ahoskabe modernoak: jatorriak.

- Barneko asimilazioak (kalte), nolabaiteko fonosinbolismoak (plast).
- Nagusienak mailegu bertakotu gabeak, modernoak, denetarikoak (parte) arrazoi zehatzik gabe analogiaz eginak (pidaia).

Gavel 1920: aurreko hotsak erori, hitz adierazgarriak, lehenengo atzizkiak, mailegu berriak, erromantzeen eragina, forma ez etimologikoak.

- Aurreko hotsak erori izana: BN “phaile” < “ephaile”
- Hitz ahoskabeak → adierazgarriak (fonosinbolismoak) : “khiño”, “plast”
- Lehengo atzizkiak, aske erabiltzen hasitakoak: “kide”, “tegi”
- Mailegu berriak: “pinu”, “parte”, “polit”, “taula”...
- Erromantzeen eragina: “bake” < “bake”
- Bikote ugarien eraginez, forma ez etimologikoen sorrera: BN “pi(d)aia”...
- Aurreko guztiak emanak izan ezker forma kanonikoa aldatzea ahoskabeen alde.

### 25. Hitz bukaerako herskariak jatorriak.

Hitz bukaerako bokala galtzearen ondorioz sortu ziren. Horrez gain, fonosinbolismo eta mailegu oso modernoetan:

- Mailegu oso modernoak: block, blog
- Fonosinbolismoak: eup
- Erorketa eta antzeko prozesuen ondorioak. Hitz elkarketetan lehendabiziko osagaiak elementu bat galtzean, erortzean (“ogi” > “ot-“)

Izenerroetan, atzizkietan, elkartu zaharren lehenengo osagaiean (bokala galdu ondoren): eup!; -tzat, artile

**26. Zer pentsa liteke Nafarroa ekialdeko *kau / gau, kori / gori, kura / gura* eta gainerako deiktikoetako herskariaren aniztasunaz?**

- Herskaria indartsua zela, eta honegatik gerora > 0 / #\_ gertatu zela. Beraz, oposaketa `lenis´ / `fortis´ izaki, AEB-n kokatuko genituzke.
- Baliteke antzinako herskari indartsua hasperen bihurtu ondoren (“haur”...) zenbait testuingurutan alde hartako hiztunek herskari bat berrezartzea hasperenaren orde; honek gogorarazten digu atzizki eta kidekoetan herskari belarrak duen maiztasuna, agian nolabaiteko analogikoaren ondorioz: “-(k)ume”, “-(k)eria”, “-(k)ara”, “-(k)ide”...

**27. Zergatik *pidaia*-ren ahoskabea?**

Hitz hasierako herskariaren ahostuntze eta ahoskabetze prozesuetan, ahoskabeak erragulariki ahostundu egin ziren, baina zenbait kasutan ahoskabeak aurkitzen ditugu. Hala nola, bikote ugariaren eraginez, forma ez etimologikoak sortu ziren: BN “*pidaia*”...

**28. AEZ-ko \*d- hasierakoaren zenbait frogak.**

- Erreduplikazioaren ondoko herskariaren disimilazioa: *dodol* > *odol*, *dadar* > *adar*,
- Maileguetan hitz hasieran *d* > *l* bihurtu (Mitxelena): (\**dar* > *lar*)
- Latz: *ardatz* / *lats*: *ardats* txandakatzeak
- “*d-*” > “*j-*” (V\_V) adizki jokatu gabeetan (Lakarra)

**29. Zergatik ez dugu \*\**lulur* (<*lur*), \*\**lalats* (<*lats*), ez \**leleku* (<*leku*) eta ez \*\**lelehoi* (<*lehoi*)?**

Ez dugulako horrelako erreduplikaziorik. *d* > *l* bilakaera bat izan zen, beraz forma guzti hauek sakonean “*d*” bat zeukaten, ondoren “*l*” bihurtu zena. Erreduplikazioetan soilik “*d*” da posible, ez “*l*”.

**30. AE-rako zergatik ez dugu behar /m/-rik?**

AE-ren fonologi sisteman ez zegoen /m/ fonemarik, euskara historikoan oso hots arrunta izan arren. Horren aldeko argudioak

- *m*-dun hitz gehienak maileguak edo hitz fonosinbolismoak direlako.
- Latinez *b-*, *v-* (*f-*, *p-*) > eusk. *m-*
- Ondare zaharreko hitz batzuetan *m* – *b* txandakatzea.
- Hitz eraketan *m-k* *b-k* bezala jokatzeko.
- Badago *nh*, *lh*, *rrh*, baina ez *mh-rik*.
- Ez dago *m-rik* flexio atzizki sistema aberatsean, ezta gramatikaletan ere.
- Eratorpen atzizki ugarietarik –*menu* eta –*men* baino ez.

- m fonemarik ez zegoen. Soinuak bai, maileguetatik eta asimilazioz: mb.

AE-rako ezinbestean beharrezkoak diren fonemak proposatu behar dira, eta /m/ ez da fonema bat, baizik hotsa (fonematik behera gelditzen den alofono bat). /b/-ren aldaera edo alofonia da zenbait testuingurutan. Maileguetan, asimilazioz, balio adierazgarria.

Sudurkari bat bazegoen “n” eta nahikoa zen.

### 31. **Atziki hasierako herskari / 0 alternantziak. Zer esan liteke horien jatorriaz?**

Formarik zaharrena herskaririk gabekoa da, herskariak berranalisiagatik, aurreko hitzaren bukaeraren ondorioz sortu ziren, eta ondoren orokortu, historikoki joera nagusia.

eria → keria: herskari gabeko formak normalean zaharragoak izan ohi dira. Adibidez, “eria” zaharragoa da “keria” baino. Ahostunak hedatuago ohi daude, eta zaharragoak dira. – keria analisi gaizto / berri batez atera da ziurrekin. Herskari modernoak dira. Indartsuak ahulduz doaz eta ahulak ahostuntzen.

Latinez k- > eusk. G- ; Lat G- > eusk. G-

Txandakatzea egon daiteke -(t)ar.

### 32. **Eta /f/-aren jatorriaz?**


- AE-n ez zen fonema bat, b-ren alofonia baizik, baina euskalki guztietan egon da soinua.
- Hitz hasieran arruntagoa da topatzea beste tokietan baino.
- Maileguetan azaltzen zen sekundarioki, Txillardegiren arabera euskara zaharrea biezpainkaria.
- Euskararen nahiko berria da fonema modura Markinako idazleek (Mogel, Frai Bartolome..) aldarrikatu bezala.
- Gaur egun, Euskal Herri ia osoan /f/ fonema arrunta da, bai hitz hasieran, bai hitz barnean ere. G, B eta GN-n, maileguetako “f” > “p”, eta baita erdialdeko eremuetatik kanpo ere.
- Mitxelena ez zuen AE-ren fonologiaren berreraiketan fonema bezala sartu.

### 33. **Eta /p/-az?**

- Fonosinbolismo, mailegu edo bestelako fenomeno bidez lortzen da.
- Oso gutxitan ageri da hitz hasieran ez bada maileguetan.
- Bokalkarte arraroa
- Oso euskal hitz zahar gutxitan.
- Ahostun / ahoskabe sisteman ahoskabeak dira urriago. Baina bortitz / ahul sisteman forma oinarrizkoenak ahulak dira eta bortitzak dira markatzen direnak. Beraz, bat faltatzekotan ahula → /p/. Salbuespena: -\*mendu. Berranalisi bitartez.

### 34. n/N AE-n? Zer froga dugu?

Sistema erronbikoan



Latineko “n” bortitza mantendu eta “n” ahula galdu edo “h” bihurtu: *annona* > *anoa*

- ✓ Bokal artean: *amona*, *corona* > *koroa* (galdu) / *aNona* (*gorde*). *Oracioa* < *oracinoa*, *ardaoa* < *ardanoa*
- ✓ Bokal arteko /n/ soilak galdu egiten dira, baita maileguak badira ere. Baina askotan galera ez da gauetik egunera gertatzen, tartean hasperena: -n > -h > 0 >
- ✓ /N/ aldiz Erdi Aroko dokumentazioan eta kasu batzuetan Akitanian agertzen da.
- ✓ Ondare zaharreko hitz batzuetan -n- < -\*N-: *annaia*, *Enneco*, *arrano*
- ✓ Zenbait -N- talde batetik datoz: *baino* < \*ba-din-no

### 35. \*-n- > -n: hiru adibide.

- \*arrani > arrai(n) < arraindegi
- \*artzani > artzain / -tzain atzizkia “zani”-tik
- \*lukanika > lukainka
- \*atano > ataun

### 36. -r- < -\*l- maileguetan.

V\_Vko latineko “l” ahulak euskarari “r” eman du: *orio/olio*, *solo/soro*, *zeru/zelu*... Hala ere, ez da bilakabide orokorra izan denbora berdinean, latinezko “l” askotan mantendu da.

*Begiratu* (latineko *vigilare*); *aizkora* (latineko *asciola*); *gura* (latineko *gura*); *aingeru*

### 37. Baldin eta *gela* < *cella*, *bake* < *pace*, zergatik *zeru* < *coelu* eta *gurutze* < *cruce*?

Bigarrenak erromantzetik hartu ditugun maileguak direlako, eta lehenbizikoak berriz latin garaian sartutakoak, eta beraz ez dituzte erromantzeetan pairatu dituzten aldaketak jasan.

### 38. \*r...R...> ? Zenbait adibide.

“r” ahularen disimilazioa, bi kontsonanteak antzekoegiak direlako: *erur* > *edur* / *el(h)ur*; *irar* > *idar* / *il(h)ar*; *berar* > *bedar* / *bel(h)ar*

### 39. -r > -R. Zer dakigu honetaz?

Gutziz edo sakoneko egiturari burutu ez den neutralizazioa da, ez da erregularra. Prozesu orokorrago baten sortzen da.

Amaierako kontsonanteak ozenak eta txistukariak bortitzak dira. Hitz bukaeran [r] anizkuna egon arren, atzizkia bokalez hasten bada [r] bakuna: *Zer* → *Zeri*. Hala ere, egun [r] anizkunaren alde neutralizazioa. Bortitzaren aldeko neutralizazio modernoa. *bihaR* → *ahuletik dator*, *biharamun*

### 40. *gau haur* / *gauR*, *biharamon* / *bihaR*. Zergatik?

R bukaeran neutraltzeko joera indartsua da, baina burutu gabekoa: kontrako indarrek (alboko hizkuntzen eragina, adibidez) batzuetan irabazi egiten dute. Adibidez:

- Maileguetan: “plazerik” ala “plazerrik”?
- Ondare zaharreko hitzetan: “nor-en”... baina “ezer-en” ala “ezeR-en”?

**41. Zub. *deusere*, *aizina*: zer dakizu txistukari hauetaz?**

/z/ eta /z'/ fonemak direla Z eta BN-n, /s/ eta /s'/-rekin oposaketan daudena, baina ezin zirela zahartzat jo, oro har mailegu berrietan (“aizina”) eta hitz loturan (“deusere”) baino ez baitira agertzen.

**42. *narru* / *larru*: nola azaltzen da bikoiztasuna?**

Bikoiztasuna dialektala da. Hitz hasierako ozenen txandakatzea da, “l-“ = “n-“ -rena. Bizkaieraz “narru” / orok. “larru”.

**43. Zenbat txistukari fonologiko ziren AEM-en? Eta AEZ-ean?**

AEM: 4 (2 frikari eta 2 afrikatu).

AEZ: 2 (2 frikari)

**44. *sazon* > *sasoi*, *solaz* > *solas*, *zinhetsi* > *sinetsi*: zer ateratzen da honetatik?**

Hitz berean bi txistukari egon direnean apikariaren aldeko asimilazioa gertatu da. Sazon, solaz eta zinhetsi zaharragoak dira.

Kontsonante homorganikoak → asimilazio absolutua sahiesteko joera apikariaren alde, euskara historikoan joera.

**45. *solas*, *sasoiz*, *sarats*: zeren lekukotasuna?**

Txistukarien ahoskunearen aldaketen lekuko dira. Hitz batean bi txistukari agertuz gero, ahoskune berekoak izan ohi dira: apikariak (“solas”, “sarats”). Bestalde, salbuespenak daude: hauek analogiak eta analisiak azaldu ohi dituzte. Gure kasuan, analisiak, bi txistukariak ez baitaude morfema berean (“sasoiz”).

**46. Non eta noiz gertatzen da artikulazio puntuaren neutralizazioa txistukarietan?**

Mendebaldean XVI. mendean, ekialderuntz hedatuz joan da: uzte → uste.

Lehen testuetan euskalki guztietan. Herskari aurrean neutralizazioa apikariaren alde, gero zabalduz doa, hirien eraginez.

1728an Lubieta gipuzkoarrak artikulazio puntuaren neutralizazioa zuen txistukarietan eta oraindik Bizkaiko hainbat lekutan neutralizaziorik ez zegoen. Beraz, Bilbo ingurutik hedatu denaren ustea okerra da. Hirietatik hirietara eta lurraldetik lurraldera hedatu zen.

- Hitz hasieran frikariak (hitz adierazgarri batzuk salbu: “tzintzarri”, “tzar”...)
- Erroaren bukaeran afrikatua: “hotz”, “hitz”, “huts”...



- Mailegu zaharretan: lat. “fortis” > “bortitz”
- Hitz bukaeran –TS, bokal artean –S
- Batzuetan hitz bukaeran zalantzak: “amets” / “ames”...
- Salbuespenak: instrumentala “-z”, aditzoinak “haz”, “eros”...
- Herskari aurrean frikaria: “hitz” → “hizkuntza” ...
- “l” eta “n” ondoren zenbait euskalkitan afrikatua (inoiz “r” ondoren)

#### 47. **Eta artikulazio moduarena?**

EH guztian. Afrikatu vs frikari. Kontsonante aurrean. hitz + tegi → hiztegi.

#### 48. **gatz/gazi, orratz/orrazi... Zein alomorfo zaharrago? Nola azaltzne bikotea?**

Afrikatuak ezin du zaharrena izan. Frikariduna da zaharragoa, afrikatuak berriagoak direlako. Hitz bukaerako bokala galtzean frikaria > afrikatu bihurtzen zen. Euskararik zaharrenean (AEZ) ez zegoen frikari afrikatu oposiziorik.

#### 49. **Intsaur < \* ? , Z jauntsi < \* ?**

Intsaur < Intxaurtze (Mitxelena); intsausti < intsaurtze; jauntsi < \*eduntsi.

Intsaurtzedi < intsausti: berranalisia: intsaur

Jaunzte > jaunse > jauntzi

rtzi → intzaurtzi

intsaur < \*intxaurtze

intsausti < \*intsaurtze

jauntsi < \*eduntsi

Intxaurtzedi > intsausti: berranalisiaren ondorioz

Jaunzte > jaunste > jauntsi

Intsausti analogiaz izan daiteke. Ez da posible neutralizazioa

\*Intzaur → intzaur-tz(e)di > rtzi > [r] desagertu, [tz] frikatu, [d] ahoskabetu > -st-

“Insausti” bizkarkaririk apikarira

\*jauntz(i)-te → jaunzte > jaunste > jauntsi

#### 50. **AEZean AEMan baino txistukari eta ozen gehiago ala gutxiago? Zergatik eta zenbat?**

AEZean AEMan baino txistukari eta ozen gutxiago. AEZ: 2 eta AEM: 4

#### 51. **/h/aren testuinguruak hitz barrenean**

- V\_V: aho (bokalarrean)
- #\_ + V: herri (hitz hasieran eta ondotik bokala edo diptongoa)
- #\_ + diptongoa: haur
- Ozen \_V (ozen eta bokal artean)

Herskari hasperendunak: [ph], [th]

## 52. Mitxelenak eman /h/ etimologikoen sailkapena

- T<sup>h</sup> > h: lehenengo herskari bortitzetatik datozenak
- Latin erromantzetik datozenak: f > h
- n- > h: bokalarteko -n- ahularen hedaketa. V\_V datozenak
- \*h: gainerakoak; nahita naho ez AE-rako behar h-ak

## 53. Zergatik *hire* baina *eure*? Eta *han* baina *anartean*?

Eure analogikoa da (Grassman), han zaharragoa (Mitxelena).

hi-heur-e: Grassmannen legeari jarraiki lehenengo h-a galdu, erro batean ezin baita hasperenik joan.

*Han* (3.graduko inesiboa) eta *anartean* forma luze berria, h-rik gabe.

Familia barneko kontraesanak. h-ren historia galerarena delako funtsean.

## 54. \*h<sub>2</sub> / h<sub>3</sub> > h- : zenbait adibide.

- \*enazur > \*ehazur > \*heazur > hezur
- \*arena > areha > harea
- \*enaitz > haitz
- \*auhen > hauen
- \*edoni > edohi > hedoi > hodei
- enuskara > ehuskara > heuskara > euskara
- \*leone > \*leohe > lehoi
- \*bor-gehi > \*bor gehi > \*or gehi > \*horgei > hogei

## 55. *hilebethe*: iruzkindu haspereneak

Hitz hasierako /h/-a etimologikoa da. Bigarrena, berriz, ez. Leherkari hasperenduna leherkari ahoskabearen alofona besterik ez da. Beraz, ez daude bi hasperen hitz berean

## 56. *ári*: *arí*, *alhabá*: *alhába*. Zer dakizu azentuera hauezaz?

Esanahiean eragiten dute eta mugatu / mugagabe bereizketa egiten dute.

## 57. Zer dakar azentuaz B-G-L-ko gramatikariek (baina ez Oihenartek) XVI-XVIII. mendeetan euskal hitz guztiak –a batez amaitzen zirela defendatu izanak?

## 58. Ba ote /h/ etimologiko gehiago?

- Gaskotik h bezala sartuak
- Jatorrizkoak, mailegu zaharrak
- -r- > h konposaketan

- Gaskoiko maileguetan
- hVR > VRh metatesia. Ez da jatorri konkretua, islada baizik.

**59. Grasmannen legeak: erro/silaba barnean eta erro/silaba ezberdinetan.**

Fenomeno zaharragoak zenbat eta hitzaren elementu txikiagoa hartu. Erro monosilabikoetan agertuko zaizkigu, hil + herri= ilherri modernoa.

Forma zaharrenak hitzaren zati txikienari eragiten diotenak dira, uh / + halde, hur: uhalde.

Erro silaba barnekoak zaharragoak.

Hil + herri > hilherri, 2.grassmann berriak.

Zaharrena erro monosilabikoetan ematen dena da, eskubiko /h/-k ezkerrekoa hondatzea. Hil + herri

hor + so > hohso > ohso > otso (erroan)

hi + haur + re > hihaure > ihaure > eure

**60. Hasperena Antzinatean eta Erdiaroan: non?**

Antzinatean euskalki guztietan eta Akitanian.

Erdi Aroan: Araban, Burgosen, Errioxan (Nafarroan jada ez)

**61. saihets / sahets / saiets: /h/ etimologikoa ote?**

*Saihets*: etimologikoa, beranduago sortu zela uste da (Mitxelena).

*Hor, han*: CVC errespetatzen du, jatorrizkoa da. Antietimologikoa da.

**62. onherran, ilhun: zergatik -h- ez da halabeharrezko edo erantsia?**

hil + un < ilhun metatesia

hon + herran > onherran

Ozenen ondoren h-a ipintzea lege fonetikoa da

**63. Eta harma eta harroka-n?**

Nahasketen ondorio dira; arma hartu > harma, harrokarekin berdin. Ez dira etimologikoak, ez erantsiak dira.

**64. Gaskoieraren lekukotasuna /h/aren balio etimologikoaz.**

Gaskoieran hVR > VRh euskaraz: hala > alha, orhartu...

**65. Mitxelenaren 4 azentuera-eremu nagusiak.**

- 1) Erdi-mendebaldekoa ( B, GN )
- 2) Erronkari-zuberoakoa ( Z + E )
- 3) Goi Nafarrerakoa (GN)
- 4) Bidasoa aldekoa

**66. Leizarragaren azentuerak zeinen antza du?**

Erronkari eta zubererakoarena

**67. Argudioak Martinet-en azentuaren alde**

Azentu demarkatiboa proposatuz bere helburua lortzen du, markatzaile onena azentu demarkatiboa delako. Hitzen autonomia lortzea helburu.

Hitz hasiera vs barrua garrantzitsua izan behar du fonologiak. Herskariak hitz hasieran eta barnean desberdin egokitzea azaltzen du.

Kontra: Azentu lehen vs 1. silabaren ezegonkortasuna

**68. Argudioak Mitxelenaren azentuaren alde**

Lotura azentua eta hasperenaren artean (azentua hasperenaren ondoren).

Hasperena eta azentua lotzen ditu (hizkuntza askotan ematen da hau). Azentua 2. silaban egotea zilegi da, 2. Silabatik aurrera hasperenik ez dagoelako eta hasperena azentuan egon behar delako. Hasperenaren distribuzioa azaltzen du, azentuaren eskubitara ez dagoelako hasperenik.

**69. Ba ote modurik bien helburu edo abantailak bil ditzakeen proposamenik egiteko?**

Bai. Bi silabako azentuera bisilabikoetan.

**70. Bisilabo baten aurrizkia azentuduna ote? Eta atzizkia?**

Ez, bisilaboetan azentua 2. silaban doa. Erroak darama azentua.

**71. Bizkai iparraldeko tonuak izan daitezke AE-koak? Zergatik?**

Nekez. Dialektoak / euskalkiak askoz ere beranduagoak, modernoagoak direlako. Horrez gain, bestelako azentua artikulua gramatikalizatu ondoren eraikitakoa da.

**72. Zein da bateragarriago hizkuntza eransle batekin: lehen silabako azentua ala azkenekoa? Zergatik?**

Lehen silabakoa, erro bisilaboetan azentua ezker izaten dutelako. Latinez adibidez azentua ez da azkeneko silaban jartzen.

**73. Euskal silabaren egitura Mitxelenaren arabera.**

(C) V (W) (R) (S) (T)

CV-VC ozentasun hierarkia

**74. Kontsonante topaketa nagusiak euskaraz.**

- Ozen-txistukari R-S
- Ozen-herskari R-T
- Txistukari-herskari S-T
- Txistukari-ozen S-R

**75. \*\*TVTV: zergatik?**

AE-ko erro kanonikoak monosilabikoak (CVC) zirelako eta C hasi eta bukatzen zirelako. Gainera, \*TVTV soilik maileguetan edo eratorrietan aurkitu.

**76. \*\*TVTV, \*\*CV, \*VC eta \*\*-T nola azal litezke?**

Ordain, mailegu, fonosinbolismo edo konposaketan ageri dira soilik.

AE-n CVC erro monosilaboa, -T ezinezkoa, beraz TV ere ez.

Ozentasunaren hierarkia.

**77. Errro monosilabikoa AEZ-en: hiru ondorio nagusi.**

- 1) Atzizki eta postposizio gutxi; aurrizkiak.
- 2) VO ordena
- 3) Bokal gehiago eta kontsonante gutxiago

Lexikoak: erro berriak, analisi berriak, mailegu berriak, lehendik ezagutzen genituen erro familiak zabaldu. Konbinaketa ezezagunak. CVC ez direnak azaldu beharra.

Gramatika aurrizkiak zaharra: erreduplikazioa.

**78. Nola sailka litezke erro ereduak bertako hitzen jatorriaren arabera? Zein da sail garrantzitsuena euskara zaharrena aztertzeko?**

Bost sail: maileguak, aldaera modernoak, konposatu deribatuak, fonosinbolismoak eta etimologia ezezagunekoak (iragazki fonologikoak alde batetik eta geografikoak bestetik.)

**79. Ze iragazki ezarri ahal zaie erro erduei bere zahartasuna ikertzeko?**

Fonologikoa eta geografikoa.

Mailegua, hitz elkarketa / eratorpena.

**80. Eman iragazkiak gainditzen dituzten lau adibide.**

CVC, OCV, aCV, vCV. Edozein monosilabo: gor, sal, bel, dar... Huts, gal, ber, gatz, hartz, sar.

**81. Hizkuntza eransleek nolako erro ereduak izan ohi dituzte?**

- Bisilabikoak
- Bisilaba irekiak dituztenak: CVCV / CVC CV

**82. AEZ-ren bi aurrizki; ba ote zuen gero galdu den beste hitz-eraketarako biderik?**

Gi-, sa-... Bai, erreduplikazioa.

**83. Zer dakigu fonosinbolismoen erro-egiturez? Eta partikula gramatikalenez?**

CVCtik ahalik eta urrutien dagoena (braust). Erra lexikoen antitetikoak dira, ahalik eta urrutien daudenak; partikula gramatikalak antzeko zerbait baina horrenbestera iritsi gabe.

**84. Errro monosilabikoari nolako tipologia dagokio? Gogora munda / monkhemer konparaketa?**

**MUNDA**  
Erra bisilabikoa

**MONKHEMER**  
Erra monosilabikoa

Atzizkiak  
Azentua ezkerrean

Aurrizkiak  
Azentua eskuinean  
Aditza erdian edo hasieran  
Isolatzailea

Eranslea

**85. Erro zaharraren murriztapenak.**

C hasi eta bukatu behar da, monosilabikoa eta CCC ezin da AE izan. Beraz, CVC.

**86. Bi hizkuntza familia zeinetan erroaren ikerketak berreraiketarako balio handia izan duen:**

/E/ Semitikoa/ Uralikoa/ Euskara

**87. Uhlenbecken euskal erroen sailkapena:**

Erro bisilabikoa zela uste zuen. Hitz sailak eta erro ereduak aztertu behar direla dio.

**88. Lafonen aditz erro egitura.**

**89. Erro monosilabikoaren teoriaren hasierako (1995ko) emaitzak.**

CVC dela erroa, hiru murriztapen desberdin: \*\*T / \*\*VC \*\*CV / \*\*TVTV

**90. Eman hiru erro monosilabiko berreraiketan berreraikiak.**

\*ger, \*bur, \*bel.

**91. Nola sartzen dira hitz berriak aitzin euskara zaharrean?**

Erreduplikazioak.

**92. Zer dakar CVC erro egiturak AEren tipologiaz?**

Monosilabikoa dela

**93. Eman bi hitz-familia:**

**94. Erro ereduak eta etimologia formala.**

Maileguak, aldaera, fonosinbolismoak, konposatu / deribatua. Etimologia ezezagunekoei iragazki fonologiko eta geografikoa ezarri behar zaie.

**95. Nola aldatzen da erroaren forma kanonikoa?**

**96. Argudioak AEren erro lexikoen eredu CVC zela esateko.**

Erro monosilabikoa zelako, kontsonantez hasi eta bukatu behar zelako eta 3 kontsonanteko multzoak ez direlako AE.

**97. Greenbergen tipologia eredu nagusiak? Guztiak harmonikoak ote?**

Aditzaren hurrenkeraren arabera nagusiki hierarkiko 3 taldetan sailkatu zituen: VSO, SVO, SOV.

Ez, 3. taldekoak ez dira horren harmonikoak 1go taldekoekin alderatuta.

98. **Zein da euskara historikoaren tipologia eredu (lau ezaugarri garrantzitsuenak)?**

- Preposizio –
- IzAdj +
- IzGenit –
- IzD +
- SOV taldean sartzen du

99. **Hiru arrazoi pentsatzeko lehen ez zela horrela:**

- Genitibo lokatiboa ez zegoen SOV-ei dagokien lekuan.
- Lehen ez zen hizkuntza ergatiboa, beraz SVOtik SOVra pasatu ergatiboa izateko. Ergatibotasuna berria da eta SVOtik SOVra pasatzean gehitzen zaio.
- SOV-ek ez dituzte aurrizki edo laguntzaileak ezkerretara.

100. **Zer da tipologia holistikoa?**

Azentua / erritmoa garrantzitsuenak dela defendatzen dute, morfologia, sintaxia...-ren gainera.

101. **Munda eta mon-kbmerraren erkaketa: zertan balia genezake euskararen diakroniarako?**

Jatorri bera, baina oposaketa erabatekoa.

102. **Taniaren aldaketa interesgarri zenbait.**

Adjektibo kategoria aske bat garatuz doaz atzizkiak, partizipioak, erabiliz. Multzo aditz bezala erabiltzen ziren aditz bat ere erabiltzen dute, gure edin-en parekoa.

103. **Izen-Adjektiboen ordena: arrazoirik bai ala halabehar hutsa ote?**

104. **Erlatiboaren kokagune zaharra (lekukotasunak) eta berria.**

Çure pena dioçunoc (Etxepare)

105. **Atzizki eta postposizioen berankortasuna.**

106. **Berreraikitako aurrizkiek eta aur.>atz. aldaketak: zer erakusten digute?**

107. **Zer dakigu euskararen gramatika kategorien bereizkuntza zaharrez?**

Adjektibo kategoria itxia.

108. **Adjektiboaren irregulartasunak, egitura eta jatorria.**

109. **“Eure” eta “zeuen”-en jatorria.**

“\*hi” + “(h)au(r) + e (genitibo) > “\*ihaure” > “eure”

zeu + en > zeuen

110. **Artikulu(ar)en bilakabidea.**

**Noizkoa da artikulua? Zergatik?**

- Gaurko artikulua 3.graduko erakusletik dator, erakuslea klitiko bihurtuta:

“\*-har” > “-ha” > “-a”: “gizona” < “gizon \*har”

- Nahiko berankorra bide da: akitanieraz arrastorik ez. Litekeena da erromantzeetan eta hizkuntza germanikoetan agertzearekin bateratsu agertzea euskaraz, agian, VII-X. mende bitartean. Espainiako erromantzean 8. mendean agertzen da eta euskaraz, agian, beranduago. Dirudenez iparralderantz hedatu da (Suomieraz 19. mendean agertu baita).

111. **Bi argudio CVC erro ereduaren antzinatasunaz.**

- Erro eredu monosilabikokoak izan zitezkeen erroetarik % aipagarria lekukoturik du, lekukotasun horietarik mailegu gutxi eta etimologia ezezagun asko, eta azken hauen artean ia guztiek gainditzen dituzte irizpide fonotaktiko eta geografikoak. Bisilaboek, berriz, mailegaketa portzentai altuak dituzte eta etimologia ezezaguneko gutxi.
- Lehen bisilabotzat eta polisilabotzat genituenak orain monosilabo konbinaketaren bitartez edo mailegu gisa azaldu ditzakegu.
- CVC baino ere txikiagoak (CV-) “aurrizki-erro” konbinaketak direla ikusi ditugu. Aurkako aukera (-CV) lehenagoko CVC higitu bat dela suposatzea litzateke, baina – C > 0 aldaketa ez da konposaketa-eratorpenean ez bestetan Erdi Aroa baino lehenago lekukotzen.

112. **Zein lekukotasun mota eman ahal dute fonosinbolismoek erro ereduaz?**

Euskara modernoko edozein erro-sailtako hitzak bost taldetan koka daitezke: maileguak, aldaera, konposatu-eratorriak, fonosinbolismoak, eta etimologia ezezagunekoak. Erro lexikoak sailkatzeko balio izan dute.

113. **Nola aldatzen da erro egitura?**

114. **Iragazki geografikoa eta erro eredia.**

115. **Adjektiboa: klase autonomoa AEZ-n? Zergatik?**

Adjektiborik ez edo gutxi zeudela AE-n esaten dute hizkuntzalariek. Bestalde, mailegatuta, eratorrita, partizipiotik eta erlatibotik sartua dela iradoki da; beraz, ez da klase autonomoa.

116. **“Hiru” zenbakiaren etimologia.**

(3) “\*her” (cf. “hertsi < “\*hertz-(te)i”) + “ur” > “hirur”

(4) “laur” < “labur”



- (5) “bost” < “bortz” < “bor-tz”
- (6) “sei” < “\*sehi”
- (7) “zazpi” < “\*(bor)zaz + bi”
- (8) “zortzi” < “\*zorrotz-i” (cf. Ukabileko mendixkak)
- (9) “bederatzi” < “\*beda” (cf. “bederen”, “bedera”) + “eratzi” (cf. “jantzi”)
- (10) “hamar” < “\*han-bor”
- (11) “hamaika” < “\*hama(r)-be(da)-ka”
- (12) “hamabi” < “\*hamar-bi” → “amai” (B, XIX.mendea)
- (15) “\*han-bor-bor-tz”
- (20) “\*(b)o(r)-gen-i” > “\*ogehi” > “hogei”
- (100) “ehun” < “\*hen” (cf. `enbor, zuhaiska´) + “hun” (cf. `hiedra´)

117. **–garren-en etimologia.**

*X-barren < X-0arren > X-g-arren (hiatoaren aurkako –g-)*

118. **Zein da deklinabide mugatuaren jatorria? Zerk pentsarazten digu hori?**

Erakusle zaharretik sortu zen: *haur>-au, -or; hori>ori; \*har>-a.*

119. **Zeren menpe dago euskal deklinabideko numero morfologikoa, hots, sing./pl. bereizketa?**

120. **Zein da deklinabideko –eta-ren jatorriari buruzko hipotesi klasikoa? Norena da?**

Atzizki multzokaria zen, *-aga* eta *–(t)zu* bezala. Pixkanaka atzizki bakoitza gramatika-sisteman bere lekua hartuz joan zen.

121. **Euskarak ba ote du deklinabiderik? Zergatik?**

**Euskal deklinabide historikoaren oinarritzko egitura: noizkoa eta zergatik.**

Euskaraz eta gainerako eranskarietan ez dago benetako deklinabiderik; hizkuntza flexiboen kontua baino ez da. Gainera, gurean sistema bakar bat gehituz doana vs. latineko bost deklinabideak, bakoitza hitz kopuru ezberdin eta ezberdintasun formalekin. Ae-ren bilakaeran zehar, aurrizkiak izatetik atzizkiak izaterako pasabidean sortuz joan zen deklinabidea.

122. **Zein da zaharragoa, deklinabide mugatua ala mugagabea?**

123. **Deklinabideko kasu edo postposizio marka guztiak garai berekoak dira? Nola ikus dezakegu hori?**

Ez. Antzinakoek kamustea berrien gardentasunarekin elkartuz, genitiboaren forma nola luzatu den (*(r)e>(r)en*) eta deklinabidea postposizio bidez nola ugaltu den antzeman delako.

124. **Ergatiboaren jatorria.**

**Ergatiboko markaren jatorriaz zer dakizu?**

- “-k” < “\*ga”? Lakarrak bizidunetako “-ga”-rekin lotu du.
- Leku atzizkian bizidunengan du jatorria. “aitaren-gan”. Hortik sortua, -ga horretatik. / Pasibo batetik omen dator.

125. **Datiboaren jatorria.**

Pl. E-Z “-ér” < “\*-ag-e-ri” (Azkue 1923) / “-ai” , “-ei” < “\*-agi” (Jacobsen-ek proposatu eta Mitxelenak onartua).

Gaur egun “-i” < “\*nin” (Lakarra 2008).

126. **Iruzkindu –reanik.**

Pleonasmoa dugu. Ablatiboaren bi forma ditugu, bata bestearen gainean eraikia: “-rean” + “-rik”. –rean mendebaleko ablatibo zaharra genuke eta bere erabilera oso hedatua izan bazen ere, azkenean, -rean ablatibo zahar honek indarra galtzen hasi zen eta horregatik –ik forma berria erantsi zitzaion, -reanik forma pleonasmoa sortuz.

127. **“gibel” ala “oste” da zaharrago? Zergatik?**

“gibel zaharragoa da”; “gibel” < “\*gi-” + “\*bel”, Lakarrak “\*gi-” aurrizki zahartzat proposatzen du, “\*bel” AEZ-eko erro monosilabo (CVC) gisa interpretatzen dugun bitartean. “Oste” berriz ezingo genuke zatitu, -C erorketarik ezin onar genezake gainera. Izatekotan mailegua izanen da, baina beti ere CVC garaiaren ondorengo garairen batean hartua.

128. **Zein da zaharrago: “-e”, “-en”, “-re”, ala “-ren”. Zergatik?**

**Zein da zaharrago: -(r)e ala -(r)en? Zergatik? Ba ote daturik kronologia absoluturik ematen duenik?**

-(r)e zaharrena, -(r)en aurreko formaren luzapena delako; beraz, ezinbestean azken hau berankorragoa da.

129. **Zein da -(re)kin sozietiboaren jatorriari buruzko hipotesi klasikoa? Norena da?**

\*-e(n) + -kide -n > -ekien>-eki, -ekin (Schuchart, Urte)

130. **Ablatibo zaharra mendebalean.**

XVI. mendean mendebalean -(r)ean + -(r)ik

131. **Ablatibo / prosekutiboaren bereizkuntza.**

Ablatiboa “nondik” –rean/-rik eta prosekutiboa “nondik zehar” –ti.

132. **Ba ote preposizioen aztarnarik?**

Lakarrak, AEZ-erako CVC erro kanonikoa monosilaboa zela proposatu zuen. “samur”, “labur”, “sakon”, “samin”, “labain”, “gibel”, “gizen”... hartzen baditugu, “sa-”, “la-” eta “gi-” aurrizkiak ateratzen zaizkigu, “\*bel”, “\*bur”, “\*zen”, “\*bin”... erroen aldamenean.

133. **Zer atera daiteke GUDUA DEISDEA iberiar idazkUNETIK euskal artikuluaREN diakroniaz?**
- Harremanik ez, eta gaizki interpretatua ‘gudur deiser’.
134. **Aditz-erroen forma kanonikoak: nola eraman litezke CVC-ra?**
- “e-da-ra-CVC”
- \*e (aurrizkia) – CVC- (partizipio marka zaharrak) *i/-n*.
135. **Hiru konbinaketa “e-da-ra-CVC”.**
- \*e-da-ra-dan-o > \*ardano > \*ardao > ardo
- \*e-da-ra-dun > jardun
- \*e-da-ra-din > jarrain
- \*e-da-ra-don-i > \*urbani < \*urbahi > \*hibai > ibai
- \*e-da-ra-gotz-i > “\*eargotzi” > “\*eorgatzi” > “urgatzi”
136. **Euskarazko berranalisi sintaktiko bat.**
137. **Euskarazko hedadura sintaktiko bat.**
138. **Euskarazko mailegu sintaktiko bat.**
139. **ahal-en gramatikalizazioa.**
140. **X-ekin Y egituraren lekukotasun bi: zergatik da garrantzizkoa euskal sintaxi diakronikoarentzat?**
141. **Zer dakizu konparazio genitiboaz?**
- Are* < \**har-e*
142. **Arrazoiak deklinabide mugagabeko enbor kontsonantikoei erantsi –e- EZ zela epentesia erakusteko.**
- r- atzizkiaren partetzat berranalizatu zen (seme-a-ren) eta analogiaz hedatu zen mugagabera (*seme-ren*).
143. **Arrazoiak euskararik zaharrenak Adjektibo kategoria askerik ez zuela esateko.**
- Adjektiboak eratortzeko erabiltzen diren atzizki batzuk (esaterako, *-din*) oso zaharrak dira.
144. **Zein dira adjektibo kategoriaren hierarkian maila goreneko bi alor semantiko?**
- Adina > giza joerak > ezaugarri fisikoak > abiadura
145. **zu izenordainaren jatorria.**
- Pluralgile hutsa zen, *Amezua*, *Artazu*, *Otazu*... toponimoetan agertzen den bera.

146. **Multzo aditzak zer dira?**

Aditz erro ezberdinen pilaketaz edo elkartzeaz sortutako aditzak dira. Euskararen kasuan `aplikatiboa´ + `kausatiboa´ + CVC. Noizbait “e-CVC-CVC-CVC” izan dugula pentsatu behar. Aditz hauen ezaugarri nagusia aspektu-denbora-modu-pertsona marken falta dugu, eta beren artean simetrikoak nahiz asimetrikoak izan daitezke.

147. **AEZ: aditz jokatu asko ala gutxi? Irizpideak.**

Gutxi, gehienez ere 75 edo. Gaur egun bi dozena inguru. Euskarak aditz jokatuena saila mugatua izan du, Australia eta Ginea Berriko hizkuntza askoren antzera.

- Aditz sintetikorik ez da maileguen artean, aditz jokatuak jokatu gabeen gainean eratu dira, soilik “\*e-” aurrizkia izan zuten erro soilak hartu dute forma sintetikoa, bokal harmonia eta erreduplikazioa ez dira aditz jokatueta eman.

148. **AE-n aditz guztiak ote sintetiko? Zenbatsu?**

Ez. Bi dozena inguru.

149. **Oina, partizipioa eta aditz-izena: zein da zaharrena? Zergatik?**

Aditzoina da zaharrena hiru arrazoirengatik.

- 3) Partizipioak eta aditz-izenak forman eta funtzioan gardenak diren markak daramatzate, (-tu, -tze adibidez), aditzoinak daraman marka bakarra \*e- aurrizkia, funtzio ezezagunekoa den bitartean.
- 4) Partizipio eta aditz-izenak sortu dira aditzoinari atzizkiak erantsirik.
- 5) Deribaren teorian euskara aurrizkiak izatetik atzizkiak izatera igaro zen, beraz, aditzoinak aurrizkia bakarrik duen forma izanik, ezinbestean beste biak baino lehenagokoa izan behar.

150. **Zer dio Traskek -n partizipioez?**

Aditz hau ere -i sailekoak ziren eta erroan -n-z amaitzen zen.

151. **-i eta -n-z landako partizipioak. Zein dira horien jatorriak?**

-tu atzizkia latinezko maileguekin sartu da eta erromantzezkoekin osatuz joan da, nahiz eta une batetik aurrera bertoko oinarriekin ere erabiltzen hasi ziren: aditu,...

-o bukaera dutenak -n bukaera dutenen sail berekoak direla pentsatzen da, baina aldaketa fonologiko berreraikigaitzak pairatuta: jo, ito,...

Adjektiboetatik eratorriak: ase, busti,

Maileguak: gorde

Adlatibodunak: atera

-ki/-gi amaiera dutenak: ebaki.

152. **-tu-ren hedadura partizipio bakartzat.**

Euskaraz -tu (mendebaldean > -adu (>-au)) // lat. -ATU > gazt. eta nafar. -ado, gask. -at.

153. **Zergatik da interesgarria aditz askotan *ja-* hasiera izatea? Fonetika hutsari egotz dakioke, ala beste zerbaiti?**  
 Hortik atzeman zen aditz horiek ez zirela bakunak, eratorriak baizik. *Ja-* hori hizki bat izanen da, *j-* kasu gehienak *ja-*renak direlako.  
 Jaun < \*e-Ca- Xun (Semantikaren laguntzarekin X=*dun* dela pentsa dezakegu; aurrizkia, berriz, *da-*, C erorkorrena *d* delako) → jaun < \*e-da-dun.
154. **Zenbat trinko zeuden euskaraz XVI. mendean? Eta orain?**  
 60 bat trinko zeuden XVI. mendean, baina gaur egun 12 bat baino ez dira geratzen.
155. **Zer uste zuen Lafonek aditz trinkoez eta perifrastikoez? Zein da gaur egungo ikuspegia?**  
 Lafonek forma perifrastikoak sintetiko telikoen hutsune burutua osatzeko sortu zirela uste zuen. Gaur egun uste da aditz trinkoak aditz jokatuabeetatik sortuak direla.
156. **Zein da perifrasirik zaharrena euskaraz? Zergatik?**  
 Aditz oina + \*edin / \*ezan. Zaharrentzat jotzen dira. Gramatikalizatuena delako eta inguruko hizkuntzetan parekorik ez duelako. Perifraasi hauek badituzte gaur egun desagertuak diren balioak euskaraz. Adibidez, “*etor nendin*”, 16. mendean aoristo zahar bat izango balitz bezala itzuliko genuen baina gaur egun, “*etorri nintzen*” izango litzateke bere itzulpena.
157. **Zein perifrasiri buruz esan dezakegu erdal erduen arabera sortuak direla?**
158. **partzipio + joan-eroan/eraman perifrasiak zer adierazten du? Lekukotasunak.**  
 Ohitura adierazten du forma honek eta dialektala da, bizkaieraz bakarrik ez, Etxeparek ere erabiltzen duelako.
159. **Zergatik bilatzen ditu Traskek euskara SVO hitz-ordenakoa zeneko garaiko zantzuak?**
160. **Zein da, oro har, komuntadura marken jatorria?**
161. **Zer gertatzen da hirugarren pertsonako ustezko komuntadura markekin? Zein dira?**
162. **Zein zen *ikus nezan* bezalako perifrasi baten balioa? Eta *nekusen* bezalako trinko batena?**  
*Ikus nezan* aoristo perifrastikoa (=“*ikusi nuen*”)
163. **Aoristoa.**

Aditz oina + \*edin / \*ezan erabiltzea aspektu burutua adierazteko. Adibidez, “ikus nezanean” `ikus nuenean´.

Hainbat hizkuntzetako aditz formei emandako deitura, ez dute esanahi eta iturri berekoak zertan izan.

164. **ebili: erabili, gaitu: \*\*garaitu. Zergatik?**

“ebili” eta “erabili” erro bereko aditzak dira. “gaitu” eta “garaitu”, berriz, ez.

165. **-te / -tze (etor). Zein da zaharrago eta zergatik?**

- “-te” zaharragoa dela uste da. Nabaria da “-te” atzeraka dabilela “-tze”-ren mesedetan. Euskara zaharrean “-te” hartzen dute ozen bukaerako erroa eta “-i” partizipio marka dutenek ere. “-tu” emankor bihurtu ahala “-tze” ere ugariago da. Ondare zaharreko aditz guztiek “-te” hartu zuten aditz-izena egiteko.
- Beraz, hipotesi nagusia “-te” orokorra da era `fase sparita´-n dago aspalditik, eta badirudi Euskal Herri osoan konbinatzen zela antzina ondare zaharreko aditzekin. “-tze”, berriz, aditz modu berriekin lotutako marka da.

166. **XVI. mendeko aditz trinkoek zer balio izan zezaketen? Balio hauek beti berberak ziren?**

167. **Zein da Trask-en ustez, aditzetako da- aurizkiaren (dator...) jatorrizko balioa?**

Aspektu markatzaile azaldu zuen. Aurizki nahi laguntzaile ere izan zitekeela zioen, baina bigarren aukera ez zuela garatuko.

168. **Zein da, Mounoleren arabera, partizipio + izan / \*edun perifrasiaren jatorrizko balioa?**

169. **Aditzoina + \*edin/\*ezan egitura inoiz orokorra izan bada, non eta noiz hasi zen perifrasi horretan partizipioa aditzoinaren tokia hartzen?**

XVII. mendetik aurrera mendebaldean.

170. **Aditz izenen kronologia erlatiboa.**

171. **Berregituraketa “zuek”-ekin.**

“-zu” `kolektiboa´, `pluraltasuna´ adierazteko sartu zen zenbait gramatika-esparrutan, deklinabide mugatu plurala sortu aurretik. “zuek” berria. Ingl. “you” = `zu´+ `zuek´. eusk. “zu” → sing. → “zuek”

172. **“da-” eta “-en”-en gramatikalizazioa.**

“da” aspektu burutugabea, “da-go”: \*dar > da.

“en” aspektu burutua, “n-en-goien”: \*den > en.

173. **Kuryłowicz-en analogiaren legetarik bat.**

174. **“Neure ama Roman ilta”:** nongoa eta noizkoa da?

175. **Laguntzailearen gramatikalizazio gradua.**

\*edin / \*ezan gramatikalizatuago izan / \*edun baino.

176. **Bergararrok hasi dira “trajioe baten” asmatzean: zer duzu esatekorik egitura honetaz?**

“Plural hurbila” deritzaguna lehengo gradu aniztasun horren beste arrasto bat da: *berrgararok*, eta *trajioe*, -oe > -o lehenago bakundua proposatu beharko?

177. **“Han datz hilik” / “beraz Presebalen kaltean”:** zer duzu esatekorik egitura honetaz?

“Ce an daz Presebagez bere caltean”:

178. **Fonologiako aldaketa eta tipologia diakronikoa.**

Kontsonante kopurua ugaltu, eransletasunerantzko tipologiarantz hurbilketa.

179. **Aresti-Linschmann legearen definizioa (eta kronologia).**

180. **“Lotsaga nindin, ogiz as nindin”:** zergatik da interesgarri morfologia eta sintaxiaren aldetik?

181. **Euskal hitzak: zenbat sailetan sailka litezke bere etimologiaren arabera?**

Bost sailetan: maileguak, aldaera, eratorri-konposatuak, fonosinbolismoak, eta etimologia ezezagunekoak.

182. **“Adar” eta “zulo”:** mailegu zeltikoak ote? Zergatik?

183. **Latineko bi atzizki: testuen kronologiak laguntzen ote du jatorri hori?**

“-ebam”, “-ebas”

184. **“hogei”:** zelt. “ugeint”, zer esan zenezake erkaketa honetaz?

Euskarak zenbaki kardinaletan 20nako sistema du, frantses zahar eta modernoak, eta hizkuntza zeltikoek bezala. Azken hauekin lotu izan da “hogei”-ren jatorria (cf. “ugeint”). Gezurra da: “wiknti” zen euskararekin ukipenean zenean. Orain, gainera, are urrutiago: “hoge” < “\*ogehi” < “hoge”.

185. **Euskaraz zein aldaera zaharrago eta zergatik? “zelu” / “zeru”, “bike” / “phike”.**

- zeru zaharragoa da “l” > “r” aldaketa euskararen barruan pairatu baitu. Beraz, latinarekin ukipenean zegoenean mailegatutako hitza da. Ondorioz, geroago erromantzeetatik mailegatutakoa da.
- Kontsonante hasperendun guztiak maileguak dira, edo aldaerak dituzte. Kasu honetan, leherkari ahostunak dira euskaraz zaharrenak: “bike” > “phike”. Asimilaziorik ezean hasperenketarik ez, “b” > “p”.

186. **“bariku” < ?, “biao” < ?**

- “bariku” < “abari bako egun”.
- “biao” < “meridiano”.

- **Noiz hasten da hizkuntzalaritza historikoa?**

XIX. mendean

- **Lege fonetikoak eta analogia zein korronterren oinarrizko analisi bideak dira?**

Neogramatikarenak

- **Emaidazu kronologia erlatiboaren adibide bat.**
- “-n” > “-h”
- \*h3 > h1

Arena > areha > harea

Zubereraz “u” > “ü” /y/ aldaketa, “o” > “u” aldaketa baino lehenago gertatu zen, bestela “o”-ak ere /y/ bihurtuko ziren eta.

- **Zer dira aldaketa mota erregularrak?**

Testuinguru zehatz batean salbuespenik gabe gertatzen diren aldaketak dira, gehienbat aldaketa fonetikoak dira. Aldaketa fonetiko erregularren eta besteen arteko bereizketa egingo dugu berreraiketarako.

Baldintza egokiak dauden hitz guztietan modu sistematikoan ematen diren aldaketak dira.

- **Zergatik dira hain interesgarri erregularitateak?**

Beste garai zaharrago baten inguruko informazioa ematen digutelako; hau da, gramatika zaharraren isla dira erregularitateak eta antzinateko erregularitasunen berri ematen digute.



- **Berreraikitzailearen etsai nagusia morfologian.**

Analogia

- **Analogiaren definizioa.**

Egitura fonetikoan faktore ez-fonetikoen eraginez gertatzen den aldaketa erregularra da.

- **Analogiaren euskarazko adibide pare bat.**
- “\*da-tor-z” > “datoz”, eta ez “\*\*datos”, “rz” > “s” aldaketa erregularra den arren, “doaz”... -en analogiaz.
- Ekialdean “dira”-rekiko analogiaz “gira” eta “zira” formak sortu dira.
- ene < nere bihurtu izana
- dot / dudan > duten
- askatu / aske
- hemeretzi: emezortzi > hamazortzi
- onagoa (hobe-ren orde)
- **Berranalisiaren adibide bat euskaraz**
- atz-e-an > atz-e
- Paris-e-ko
- a-e integratu
- nor bait-dator > norbait dator
- **Zer da gramatikalizazioa?**

Unitate lexiko beregain batek gramatikan funtzio bat hartzen duenean.

Elementu lexiko edo gramatikal bati balio gramatikala areagotzea balio lexikala kenduz edo gutxituz.

Meillet-ek (1912) sortutako kontzeptua da: hitza gramatika-marka bihurtzen deneko prozesuari esaten zaio.

Kurylowicz-ek (1965) “morfema baten hedadura handitzean datza, estatus lexiko batetik gramatikal batera igarota”

Kontrako prozesua lexikalizazioa da.

- **Zer da deriba?**

Sapir-ek asmatu-terminoa. Sapir hizkuntza batean hainbat azterketa toki edo aldaketa txiki, beste sakoneko fenomeno batean.

Hizkuntzak norabide edo tipo jakin batean aldatzen dira eta ez noraezean.

- **Bete ondoko taula**

		<b>Prep</b>	<b>IA</b>	<b>IG</b>	<b>ID</b>
<b>I (=VSO)</b>	<b>berberea</b>	+	+	+	+
<b>III (=SOV)</b>	<b>kitxua</b>	-	-	-	-
<b>III (=SOV)</b>	<b>euskara</b>	-	+	-	+

- **Zertan bereizten dira pidginak eta kreolerak?**

Kreolerak pidgin hizkuntzatik eratortzen diren ama hizkuntza bihurturiko hizkuntzak dira. Pidgina bi hizkuntzetako hiztunek elkar ulertzeko asmatu-terminoa nahasketa da. Asmatu-terminoa hau bigarren belaunaldiari pasatzen zaionean ama-hizkuntza bezala kreolera da.

Pidgina ez da inoren ama-hizkuntza, kreolera bai.

- **Datu eta data hauen inguruan zein gertakari garrantzitsu hizkuntzalaritza historikorako eta euskararen historiarako?**

- 5) **Leipzig**. Neogramatikaren mugimendua bertako unibertsitateko ikertzaile batzuek sortu zuten.
- 6) **Ginebra**. Ginebrako eskolan (unibertsitatean) zebiltzan hizkuntzalari talde batek estrukturalismoa sortu eta garatu zuen bertan.
- 7) **1950**. Martinet-en proposamena [bortitz/ahul] AE-ko herskariaren saila berreraikitzean.
- 8) **1961 / 1977**. Mitxelenaren “Fonética Histórica Vasca”-ren 1. eta 2. argitalpenak dira. Barne berreraiketa sortu eta AE-ren sistema fonologikoa berreraiki zuen.

- **Zer da hizkuntza baten kanpo historia?**

Hizkuntza horren hiztunen historia, norekin egon den ukipenean, mailegutza, literatura, soziolinguistika.

Hizkuntza horretan idatzitako testuen, autoreen edota korronteen berri ematen duena.

- **Zer da protohistoria?**

1545 baino lehenago badugu zenbait informazio euskarari buruz, ez zuzena, zeharkakoa baizik: akitanierak (K.o I-III mendeak) eta Erdi Aroko dokumentazioak eskaintzen digutena. Protohistoria zehazki historia ez den, baina nolabaiteko lekukotasunak dituen garaiari deritzogu, idatzizko corpus (euskal testu) sendorik ez baina zeharka lekukotasun idatziak dituen. Historia eta historiaurrearen arteko faseko lekukotasunak.

Historiaurrea: Akitanieraren eta Erdi Aroko euskararen lekukotasunak protohistoriatzat hartuaz, euskararen historiaurrea atzerago eramango dugu, Kristo aurreko denboretara. Lekukotasunik ez dugun garai hori litzateke.

- **Noizko eta nongo hizkeraren lekuko da *Refranes y Sentencias*?**

RS-n ez da islatzen biltzaileak erabiltzen zuen euskara, ezaugarri askotan askoz lehenagokoa baizik, atsotitzak, beste ahozko generoak bezala, buruz ikasten eta belaunaldietan zehar ahoz aho transmititzen direlako.

Bilbo aldeko hizkerarekin lotu da, bizkaiera (mendebaleko hizkera) eta 1596an (XVI.mendea) lekukotzen bada ere, gutxi gorabehera mende bat lehenago hizkeraren lekuko da.

- **Zer dira homologiak?**

Azaleko antzekotasuna (analogia) izan edo ez jatorri bereko lekukotasun edo hitzak dira.

- **Lat. duo : arm. erku / eusk. elkar : holand. elkaar. Zer dioskute analogiez eta homologiez?**

elkar / alkaar homologia da; antzekotasun grafikoa, itxurazkoa duten jatorri ez bereko bi hitz dira. Berreraiketarako ez du baliorik.

duo / erku analogia da; berreraiketarako balio du.

- **Zer da barneberreraiketa?**

Ahaiderik gabeko hizkuntza batek berak eskaintzen dituen datuetan (maileguetan zein bestelakoetan), hau da, idatzitako lekukoetan oinarritutako berreraiketa (konparazio bidezkoa) da. Hizkuntza bateko lanabesak erabiltzen dituen.

Hizkuntzaren historiaren gertakariak aztarnak uzten dituzte geroko hizkuntzan. Honegatik ahaide gabeko hizkuntzetan ezinbestekoa da barneberreraiketa, zerekin erkatu ez dagoenean.

- **Euskararen ahaidetasun hipotesien artean zein da zuretzat egokiena? Zergatik?**

- Bat ere ez da egokia, analogietan oinarritzen baitira, ez homologiez. Luchoire-k proposatutako Akitanierarena salbuespena litzateke.

- Isolatua dela. Metodo konparatuaren bidez ez delako nahikoa beste bat defendatzeko.
- **Proposa daiteke aitzinhizkuntza batentzat bokal bakarreko sistemarik? Zergatik?**

Ez. Aitzinhizkuntzak, munduko edozein egungo hizkuntza sistemak bezala bi bokal eduki behar dituelako gutxienez. Ez dago horrelako hizkuntzen lekukotasun bakar bat ere munduan.

- **Zenbat urte ditu euskarak? Zergatik?**

Ezin daiteke esan ez baitago data zehatzik. Hizkuntzetan datak erlatiboak dira. Duela 4.000-5.000 urte bazegoen.

- **Zer da aitzinhizkuntza bat?**

Berreraiketaren bidez lortzen den balizko hizkuntza edo hizkuntza-zatia (zaila da hizkuntza bat osotasunean berreraikitzea), lekukotasunik gorde ez badu ere.

- **Definitu aitzineuskara.**

- 4) Euskararen berreraiketan sortutako hizkuntz egoera.
- 5) Berreraiki daitekeen euskararik zaharrena.
- 6) Berreraiketaren metodoaren bidez lortu den euskara zahar baten eredua. Latinarekin erkatutako aitzineko ustezko euskara zena.

- **Definitu AEZ.**

Ditugun datuen (lekukotasunen) bitartez berreraiki dezakegun euskararen gugandik antzinakoen (urrutien) den garaia. Duela 4.000-5.000 urte ingurukoa.

CVC erako silaba bakarreko erroak zituen, aurrizkiak, aditza hasieran...

- **AE-ren edo euskararen ezaugarriren bat kanpo-konparaketaren bitartez antzemana.**

Bat ere ez. Latineko maileguekin konparatuz, euskal hitzek erakusten dituzten aldaketa fonetikoaren ondorioz, euskararen fonetika historikoan asko aurreratu da.

- **Nork ikertu zituen AE-ko herskariak 1950ean?**

Martinetek.

- **50'etako Mitxelenaren lanik garrantzitsuena AE-z.**

Las antiguas consonantes vascas (1957)

- **Maileguetan egitekoa euskararen historiaurrearen berreraiketan.**

Maileguetan gordetako aztarnek laguntza eman dezakete hizkuntzaren garai zaharragoez ezer jakiteko, dela hizkuntza hartzailearen, edo emailearen. Euskararen kasuan, latinetik hartutako maileguek eta horien bilakabideak, berriz, AE-ren sistema fonologikoa berreraikitze oinarritzko lekukotasunak izan ziren Mitxelenarentzat.

Maileguek lagun dezakete ere aldaketen kronologia erlatiboa ulertzen.

Maileguei buruz dakigunak maileguak ez direnen berri ematen digu. Euskararen berebiziko garrantzia dute.

- Lege fonetikoak azalratzea, euskarak maileguak nola hartu dituen agerian uzten duelako. Euskarak izan dituen aldaketen berri (euskarak maileguak bereganatzeko moduaren arabera datazio bat edo beste izango dute). Aldaketa fonetikoaren arabera, garai batean edo bestean koka ditzakegu eta jakin zein hitz den zein baino zaharragoa.

- **Nola gauzatzen dira bortitzak hitz hasieran? Eta bokal artean?**

Beti ahoskabe. Hitz hasieran hasperendun, eta bokal artean luzeagoak, hasperenik gabeak (‘goxo’).

- **-Hiru argudio [bortitz/ahul] oposaketaren alde AE-ko herskariaren sisteman.**

**-Mitxelenaren hiru argudio Martineten herskari zaharren teoriaren alde.**

- Geminatuen bilakabideak adierazten du orduko euskaldunek hotsen indarrari begiratzen ziotela eta ez haien ahostuntasunari:  
lat. “BB” > eusk. “p” → “abbas” > “apaiz”
- “f”-aren lekukotasunek erakusten dute nola “b” eta “p”-ren arteko bereizketa ez zen ahostuntasunaren arabera, baizik eta ahoskera ahula edo indartsua izatearen arabera.
- Lekukotasun zaharretako datuak ere alde. Akitanierazko <TT> eta <CC> grafiak indartsuen adierazpide ditugu (vs <TH> hasperenduna).
- – **Zer zuten komunean AE-z herskari, ozen eta txistukariak Mitxelenak [bortitz/ahul] oposaketaren bitartez antolatze guztiak?**
- **Zer dute komunean T, R, S hots-sailek Mitxelenak oposaketa bakar batean**

## **biltzeko?**

[bortitz/ahul] oposaketa, hots, neutralizazio patroia bera: hitz hasieran ahularen aldeko neutralizazioa, amaieran bortitzaren aldekoa eta bokal artean soilik mantentzea oposaketa.

Euskarak bortitz/ahul oposaketa kokagunearen arabera neutralizatzeko joera du baina bi eratakoa: modu eta puntuaren arabera neutralizazioa, hots, erroboaren sistemaren arabera gauzatzea. Sistema alofoniko berbera.

Denek zituzten neutralizazio puntu berberak: hitz hasieran, hitz amaieran, kontsonante aurretik eta bokal aurretik.

### ▪ **Nola igarotzen da sistema karratutik erroborra herskarietan?**

Neutralizazioaren bitartez, bortitzak are hasperenduago bihurtuz, hitz hasierako indartsuena ahulduz.

Hasiera batean, hitz-hasieran (gune-bortitzean) herskari bortitzak edota ahulak egon zitezkeen (sistema karratuan). Beranduago, bortitz hauek desagertu eta ahulak ahostundu ziren, soilik hitz hasieran “b”, “d” edo “g” aukerak geratu zirelarik (erroboa).

Aitzin euskara bada erroboa euskara batu zaharra neutralizazioa ahostunaren edo ahularen aldekoa da hain justu bitarte horretan ematen dena.

### ▪ **Nola igarotzen gara sistema errobotik karratura herskarietan?**

Hasperena galduz.

### ▪ **Zergatik euskalkiak ez datoz leinuen hizkera zaharretik?**

Aspaldiko hipotesia da lehenik erromatarren aurreko tribuek eta gero eliz barrutiek euskalkien mugak xeheki mantentzen dituztelako, ez jakin tribuak eta elizbarrutiak euskalkien kausa diren, edo hauen ondorio. Funtsean euskalkiak apaingarri historikoz janzteko ahaleginak besterik ez dira.

Garai bateko leinuen egiazkotasuna dudan egoteaz gainera, euren banaketak eta euskalkienak ez dute bat egiten, hain zaharrak balira, euskalkiak elkarrengandik urrunago leudekeelako.

Ez datozelako bat gaur egungo euskalkien maparekin, ez dakigu garai hartan ze euskalki mapa zuten.

Bardularrak, karistiarrak... III-IV. mendetik aurrera baliorik ez, ez dakigu euskararik bazen leinu hauetan.

### ▪ **Zergatik ez ditu Mitxelenak /m/ , /p/ eta sabaikariak sartu AE-ren inbentarioan?**

Ezpainkari bortitzik ez, /p/ hotsak ez du ematen izaera fonologikoa zuenik, zeren eta, gutxi agertzeaz gainera, agertzekotan /b/-ren alofono gisa baino ez baita.

Hots palatalak (sabaikariak). Euskara historikoan hots adierazgarriak dira edo sekundarioak; sistema nagusitik kanpo eta horren menpeko gisa leudeke, arlo fonosinbolikoan ziurrenera.

/m/ ere maileguetatik eta fonosinbolismoetarik at, testuinguru sudurkarietan sortzen zen /b/-ren alofono gisa bakarrik.

- **Ba ote soinu sabaikaririk AE-n?**

Bai. Beste fonemen alofono edo fonosinbolismo gisa.

- **Zenbat bokal, diptongo eta irristari ziren AE-n?**

Bost bokal (a, e, i, o, u) eta bost diptongo (au, eu, ai, ei, oi). Hala ere, sekundarioa dirudien seigarren bat dago: oi. Ez zegoen irristaririk, diptongo zenbaiten hondar zati gisa besterik gabe maileguetan.

- **/ü/ arrazoiak AE-n ez sartzearen alde.**

Zuberoa eta Baxe Nafarroako hizkera batzuek /y/ <ü> dute, baina argi dago /u/-ren emaitza dela baldintza jakinetan. EBZ-ren ondoko aldaketa erregularra izan da, eta beraz “\*u” > “ü” prozesuaren ondorio, salbuespenak salbuespen.

- **Zenbat ozen (eta zergatik) AEZ-ean? Eta txistukariak (eta zergatik)?**

Bi txistukari: apikaria eta bizkarkaria. Zenbat eta atzerago joan, orduan eta kontsonante gutxiago agertzen dira inbentarioan.

- **Ondoko formak ezinezkoak dira AE-n. Zergatik?**

- **Tarrat.** Hasierako eta bukaerako “t”. Hitz bukaeran herskaririk ez zegoelako (\*\*-T), eta hitz hasieran herskari ahoskabea.

- **Greba.** Muta cum liquida. Euskaraz hitz hasieran kontsonante talderik ez. AEn ez zegoen kontsonante bilkurarik (soilik hitz fonosinbolikoetan), ez du CVC egitura errespetatzen.

- **Basalore.** “lore” beranduago sortutakoa da, eta “baso-“ > “basa-“\$. Akitaniera ondoko fenomeno.

- **Zein da zaharrago, “zelü” / “zeru” ala “gela”? Zergatik?**

ü antzinako u batetik dator, r antzinako l batetik.

Gela da zaharrena, latin garaian sartu zelako euskarara eta ez zuelako pairatu

erromantzeetan pairatutako aldaketa (euskarazkoa bai, “k” > “g”).

“zeru” Erromantzetik hartutako maileguk belarearen ordeztatik txistukaria dute. Gero “l” > “r” aldaketa Erdi Aroan pairatu zuen.

“zelü”. Ez du “l” > “r” aldaketa egin Erdi Aroan; beraz beranduagokoa da.

- **Emazu AEZ-ren ezaugarri fonologiko eta morfologiko bana.**

Leherkaririk ez hitz amaieran “\*\*.-T” eta CVC egitura zuten.

Aurrizkien erabilera eta erro monosilabikoak.

- **Zer da eta noizkoa Euskara Batu Zaharra?**

Ditugun datuekin berreraiki dezakegun garaietan gugandik hurbilena, euskalki historikoen ama hizkuntza. K.o 5-6 (Mitzelena), 6-7 (Azkarate) mendeetan kokatzen da. Nafarroan /h/-ren galera X.mendean, eta X-XI mendeetatik aurrera “barri” / “berri” aurretik izan behar du. Hizkuntza batuak gizarte egitura batua behar du. Mitxelenak proposatu euskaldunak 5-6 mendeetan bisigodoen aurka bildu zirela, eta Azkaratek antzera, inperioaren gainbeheraren ondoko egoera berrian kokatzen du.

- Euskalkiak banatu aurretik zegoen euskararen batasun egoera. Mitxelena eta Zuazok V-VI. mende inguruan kokatzen dute.
- Gugandik hurbilen egon daitekeen aitzin hizkuntza komuna bilatzea da EBZ berreraikitzea. Egun ezagutzen ditugun euskalkiak sortu baino lehenagoko euskara da.
- **Nork proposatu zuen EBZ? Zergatik / Zertarako?**

Mitxelenak proposatu zuen hizkera modernoak AEtik urrun gelditzen zirela ikusi zuelako. AEk ez digu balio dialektoen adabegi izateko, gugandik hurbilago dagoen bat behar dugu, EBZtik aterako lirateke dialektoak.

Hizkuntza bateratu bat sortu nahian elkar ulertzeko.

- **Zer zioen Lacombe euskalkiez?**

Euskalkiak bitan banatu zituen (sailkapena bitarra zen) argudio morfologikoak eskainiz: bizkaiera (bere ustez lexiko zabalagoa eta “egin” aditz erroa desberdina) eta gainerakoak.

- **Eta Uhlenbeckek?**

Bere ustez euskalki bizkaitarrak eta gainerakoak jatorri ezberdinekoak dira, bi hizkuntza ezberdin kontsideratzen zituen, gerora harremanaren ondorioz batu zirenak.



- **Mitxelenak emandako EBZ ondoko berrikuntza fonologiko bat.**
- Sabaikaritzea
- Diptongoen ugaltzea, ahoskabeak hitz horietan berrezartzea, n → h hasperentzea.
- **Mitxelenak emandako EBZ ondoko berrikuntza morfologiko bat.**
- Deklinabide-aditza, artikulua
- ‘egin’ aditz erroa Bizkaian
- **AEZ-tik AEB-ra bi aldaketa fonologiko eta morfologiko.**

### **Fonologikoak**

- Bi txistukari > lau txistukari.
- CVC > CV(C)CV(C)

### **Morfologikoak**

- Erro kanonikoa monosilaboa > bisilaboa. Erreduplikazioak
- Aurizki > atzizki
- **BZ-ren arkaismoek balio ote dute hura gainerako euskalkietatik bereizteko?**

Ez. Arkaismoek ez dute balio hizkerak desberdintzeko. Arkaismoak dira, beraz, garai batean euskalki guztiek izan zituztela pentsatu behar dugu, hortaz, zerbait egitekotan batasun zaharra islatzen dute, hizkuntza bera direla besterik ez dute erakusten.

- **Zergatik IE, austronesioan eta beste hainbatetan dira adarkatze bitarrak dialekto banaketa diakronikoan?**

Edozein banaketa linguistikotan binamismoak hori markatzen duelako.

- **Zer eratako berrikuntzak dira garrantzitsuenak adarkatze bitarrerako? Zergatik?**

Berrikuntza zaharrenak, betiere paraleloak ez direnean, banaketa zaharrenetatik datorrelako euskalkia.

Berrikuntza zahar bereizleak. Bestela ezin direlako hizkerak edota hizkuntzak banatu.

- **Ezagutzen duzu ezaugarriren bat EBZ-ren banaketan garrantzitsu litzatekeena**

### **lehen adarkatze bitarrerako?**

Herskarien portaera, l eta n ondoko ozenen portaera ahoskabe eta ahostunaren alde.

- **Mendebaldeko euskara zaharraren berrikuntza fonologiko bat.**

- a + a = ea deklinabideko a enborretan
- “r” eta “l”-ren aurreko bokalaren irekitzea: txarri, barri...

- **Eta berrikuntza morfologiko bat?**

- -gaz soziatibo marka
- “egin” laguntzailea, \*eutsi erroa
- ablatibo arkaikoa (-rean)

- **Gipuzkera goian ala behean litzakete horrelako banaketa batean? Zergatik?**

Behean. Berrikuntza zahar propio gutxi dituelako gipuzkerak, eta dituenak ez direlako oso zaharrak.

- **\*ezan laguntzailea Z-n: arkaismo ala berrikuntza? Zergatik?**

Arkaismoa. Noizbait euskalki guztietan izan delako.

- **\*eutsi laguntzailea batua eta aitzinakoan: arkaismoa ala berrikuntza? Zergatik?**

Berrikuntza komun garrantzitsuenetakoa. \*eradun-etik datorrelako eta soilik aitzinakoan eta batuan eman delako.

- **EBZ: egin laguntzailea ote? Eta eroan / eraman?**

- “egin” nagusia litzateke.
- “eroan” / “eraman” ohitura adierazten duen perifrasi.
- - **Sailka u-/i- txandakatzea: AE, EBZ, dialektala? Zergatik?**

### **i-/u- oposaketa (ile / ule, utzi / itxi) noizkoa? Zergatik?**

Dialektala. Ez delako euskalki guztietan gertatu EBZ baino berriagoa, beranduagokoa da. Ez delako hedatzen hiru dialektotara baino gehiago guk dakigunez.

Bizkaierak gainerako euskalkiekin fonologian duen bereizgarri zaharra da. “\*eu-” diptongo

zenbaiten emaitzak dira, ez beti koherenteak. Inor ez da ausartu AE-rako seigarren bokal bat proposatzen, izan ere, “\*eu-” diptongo zenbaiten emaitzak dira.

- **-h > 0 ala \*h3 > h1: zein zaharrago eta zergatik?**

Lehendabizikoa zaharragoa da. Kronologia erlatiboa. Lehenik bi “h”-tatik bat erortzen da hitz berean ezin direlako bi /h/ egon, eta gero geratzen denak ezkererako mugida egin du.

\*h3 > h1 (arena > areha > harea > area)

- **h2 > h1: bi adibide**

- leone → lehoi : leohe → lehoe → lehoi

- enazur → hezur: ehazur → he(a)zur

- **Erronkarieraren zenbait berrikuntza berantiar.**

- Erakusleetako herskariak.

- Kontsonante arteko bokal zenbait galdu: gra, zra. 1616.urtea baino beranduago gertatuak.

- **Zer dakigu euskararen gramatika kategorien bereizkuntza zaharrez?**

Adjektiboa kategoria itxia.

- **Adjektiboaren irregulartasunak, egitura eta jatorria.**

- **“Eure” eta “zeuen”-en jatorria.**

“\*hi” + “(h)au(r) + e (genitiboa) > “\*ihaure” > “eure”

zeu + en > zeuen

- **Artikulu(ar)en bilakabidea.**

**Noizkoa da artikulua? Zergatik?**

- Gaurko artikulua 3.graduko erakusletik dator, erakuslea klitiko bihurtuta:

“\*-har” > “-ha” > “-a”: “gizona” < “gizon \*har”

- Nahiko berankorra bide da: akitanieraz arrastorik ez. Litekeena da erromantzeetan eta hizkuntza germanikoetan agertzearekin bateratsu agertzea euskaraz, agian, VII-X. mende bitartean. Espainiako erromantzean 8. mendean agertzen da eta euskaraz,

agian, beranduago. Dirudienez iparralderantz hedatu da (Suomieraz 19. mendean agertu baita).

- **Bi argudio CVC erro ereduaren antzinasunaz.**
- Erro eredu monosilabikokoak izan zitezkeen erroetarik % aipagarria lekukoturik du, lekukotasun horietarik mailegu gutxi eta etimologia ezezagun asko, eta azken hauen artean ia guztiek gainditzen dituzte irizpide fonotaktiko eta geografikoak. Bisilaboek, berriz, mailegaketa portzentai altuak dituzte eta etimologia ezezaguneko gutxi.
- Lehen bisilabotzat eta polisilabotzat genituenak orain monosilabo konbinaketaren bitartez edo mailegu gisa azaldu ditzakegu.
- CVC baino ere txikiagoak (CV-) “aurrizki-erro” konbinaketak direla ikusi ditugu. Aurkako aukera (-CV) lehenagoko CVC higitu bat dela suposatzea litzateke, baina – C > 0 aldaketa ez da konposaketa-eratorpenean ez bestetan Erdi Aroa baino lehenago lekukotzen.
- **Zein lekukotasun mota eman ahal dute fonosinbolismoek erro ereduaz?**

Euskara modernoko edozein erro-sailtako hitzak bost taldetan koka daitezke: maileguak, aldaera, konposatu-erortriak, fonosinbolismoak, eta etimologia ezezagunekoak. Erro lexikoak sailkatzeko balio izan dute.

- **Nola aldatzen da erro egitura?**
- **Iragazki geografikoa eta erro eredu.**
- **Adjektiboa: klase autonomoa AEZ-n? Zergatik?**

Adjektiborik ez edo gutxi zeudela AE-n esaten dute hizkuntzalariek. Bestalde, mailegatuta, eratorrita, partizipiotik eta erlatibotik sartua dela iradoki da; beraz, ez da klase autonomoa.

- **“Hiru” zenbakiaren etimologia.**

(3) “\*her” (cf. “hertsi < “\*hertz-(te)i”) + “ur” > “hirur”

(4) “laur” < “labur”

(5) “bost” < “bortz” < “bor-tz”

(6) “sei” < “\*sehi”

(7) “zazpi” < “\*(bor)zaz + bi”

- (8) “zortzi” < “\*zorrotz-i” (cf. Ukabileko mendixkak)
- (9) “bederatzi” < “\*beda” (cf. “bederen”, “bedera”) + “eratzi” (cf. “jantzi”)
- (10) “hamar” < “\*han-bor”
- (11) “hamaika” < “\*hama(r)-be(da)-ka”
- (12) “hamabi” < “\*hamar-bi” → “amai” (B, XIX.mendea)
- (15) “\*han-bor-bor-tz”
- (20) “\*(b)o(r)-gen-i” > “\*ogehi” > “hogei”
- (100) “ehun” < “\*hen” (cf. `enbor, zuhaiska´) + “hun” (cf. `hiedra´)

- **–garren-en etimologia.**

*X-barren < X-0arren > X-g-arren (hiatoaren aurkako –g-)*

- **Zein da deklinabide mugatuaren jatorria? Zerk pentsarazten digu hori?**

Erakusle zaharretik sortu zen: *haur* > *-au, -or*; *hori* > *ori*; *\*har* > *-a*.

- **Zeren menpe dago euskal deklinabideko numero morfologikoa, hots, sing./pl. bereizketa?**

- **Zein da deklinabideko –eta-ren jatorriari buruzko hipotesi klasikoa? Norena da?**

Atzizki multzokaria zen, *-aga* eta *-(t)zu* bezala. Pixkanaka atzizki bakoitza gramatika-sisteman bere lekua hartuz joan zen.

- **Euskarak ba ote du deklinabiderik? Zergatik?**

**Euskal deklinabide historikoaren oinarritzko egitura: noizkoa eta zergatik.**

Euskaraz eta gainerako eranskarietan ez dago benetako deklinabiderik; hizkuntza flexiboen kontua baino ez da. Gainera, gurean sistema bakar bat gehituaz doana vs. latineko bost deklinabideak, bakoitza hitz kopuru ezberdin eta ezberdintasun formalekin. Ae-ren bilakaeran zehar, aurrizkiak izatetik atzizkiak izaterako pasabidean sortuz joan zen deklinabidea.

- **Zein da zaharragoa, deklinabide mugatua ala mugagabea?**
- **Deklinabideko kasu edo postposizio marka guztiak garai berekoak dira? Nola ikus dezakegu hori?**

Ez. Antzinakoek kamustea berrien gardentasunarekin elkartuz, genitiboaren forma nola luzatu den ((r)e>(r)en) eta deklinabidea postposizio bidez nola ugaltu den antzeman delako.

- **Ergatiboaren jatorria.**

**Ergatiboko markaren jatorriaz zer dakizu?**

- “-k” < “\*ga”? Lakarrak bizidunetako “-ga”-rekin lotu du.
- Leku atzizkian bizidunengan du jatorria. “aitaren-gan”. Hortik sortua, -ga horretatik. / Pasibo batetik omen dator.
- **Datiboaren jatorria.**

Pl. E-Z “-ér” < “\*-ag-e-ri” (Azkue 1923) / “-ai” , “-ei” < “\*-agi” (Jacobsen-ek proposatu eta Mitxelenak onartua).

Gaur egun “-i” < “\*nin” (Lakarra 2008).

- **Iruzkindu –reanik.**

Pleonasmoa dugu. Ablatiboaren bi forma ditugu, bata bestearen gainean eraikia: “-rean” + “-rik”. –rean mendebaleko ablatibo zaharra genuke eta bere erabilera oso hedatua izan bazen ere, azkenean, -rean ablatibo zahar honek indarra galtzen hasi zen eta horregatik –ik forma berria erantsi zitzaion, -reanik forma pleonasmoa sortuz.

- **“gibel” ala “oste” da zaharrago? Zergatik?**

“gibel zaharragoa da”; “gibel” < “\*gi-” + “\*bel”, Lakarrak “\*gi-” aurrizki zahartzat proposatzen du, “\*bel” AEZ-eko erro monosilabo (CVC) gisa interpretatzen dugun bitartean. “Oste” berriz ezingo genuke zatitu, -C erorketarik ezin onar genezake gainera. Izatekotan mailegua izanen da, baina beti ere CVC garaiaren ondorengo garairen batean hartua.

- **Zein da zaharrago: “-e”, “-en”, “-re”, ala “-ren”. Zergatik?**

**Zein da zaharrago: -(r)e ala -(r)en? Zergatik? Ba ote daturik kronologia absoluturik ematen duenik?**

-(r)e zaharrena, -(r)en aurreko formaren luzapena delako; beraz, ezinbestean azken hau berankorragoa da.

- **Zein da -(re)kin sozietiboaren jatorriari buruzko hipotesi klasikoa? Norena da?**

\*-e(n) + -kide -n > -ekien>-eki, -ekin (Schuchart, Urte)

- **Ablatibo zaharra mendebalean.**

XVI. mendean mendebalean -(r)ean + -(r)ik

- **Ablatibo / prosekutiboaren bereizkuntza.**

Ablatiboa “nondik” –rean/-rik eta prosekutiboa “nondik zehar” –ti.

- **Ba ote preposizioen aztarnarik?**

Lakarrak, AEZ-erako CVC erro kanonikoa monosilaboa zela proposatu zuen. “samur”, “labur”, “sakon”, “samin”, “labain”, “gibel”, “gizen”... hartzen baditugu, “sa-”, “la-” eta “gi-” aurrizkiak ateratzen zaizkigu, “\*bel”, “\*bur”, “\*zen”, “\*bin”... erroen aldamenean.

- **Zer atera daiteke GUDUA DEISDEA iberiar idazkUNETIK euskal artikuluaREN diakroniaz?**

- Harremanik ez, eta gaizki interpretatua ‘gudur deiser’.

- **Aditz-erroen forma kanonikoak: nola eraman litezke CVC-ra?**

“e-da-ra-CVC”

\*e (aurrizkia) – CVC- (partizipio marka zaharrak) *i/-n*.

- **Hiru konbinaketa “e-da-ra-CVC”.**

\*e-da-ra-dan-o > \*ardano > \*ardao > ardo

\*e-da-ra-dun > jardun

\*e-da-ra-din > jarrain

\*e-da-ra-don-i > \*urbani < \*urbahi > \*hibai > ibai

\*e-da-ra-gotz-i > “\*eargotzi” > “\*eorgatzi” > “urgatzi”

- **Euskarazko berranalisi sintaktiko bat.**

- **Euskarazko hedadura sintaktiko bat.**

- **Euskarazko mailegu sintaktiko bat.**

- **ahal-en gramatikalizazioa.**

- X-ekin Y egituraren lekukotasun bi: zergatik da garrantzizkoa euskal sintaxi diakronikoarentzat?

- Zer dakizu konparazio genitiboaz?

Are < \*har-e

- Arrazoiak deklinabide mugagabeko enbor kontsonantikoei erantsi -e- EZ zela epentesia erakusteko.

-r- atzizkiaren partetzat berranalizatu zen (seme-a-ren) eta analogiaz hedatu zen mugagabera (seme-ren).

- **Arrazoiak euskararik zaharrenak Adjektibo kategoria askerik ez zuela esateko.**

Adjektiboak eratortzeko erabiltzen diren atzizki batzuk (esaterako, -din) oso zaharrak dira.

- **Zein dira adjektibo kategoriaren hierarkian maila goreneko bi alor semantiko?**

Adina > giza joerak > ezaugarri fisikoak > abiadura

- **zu izenordainaren jatorria.**

Pluralgile hutsa zen, *Amezua, Artazu, Otazu...* toponimoetan agertzen den bera.

- **Multzo aditzak zer dira?**

Aditz erro ezberdinen pilaketaz edo elkartzeaz sortutako aditzak dira. Euskararen kasuan `aplikatiboa´ + `kausatiboa´ + CVC. Noizbait “e-CVC-CVC-CVC” izan dugula pentsatu behar. Aditz hauen ezaugarri nagusia aspektu-denbora-modu-pertsona marken falta dugu, eta beren artean simetrikoak nahiz asimetrikoak izan daitezke.

- **AEZ: aditz jokatu asko ala gutxi? Irizpideak.**

Gutxi, gehienez ere 75 edo. Gaur egun bi dozena inguru. Euskarak aditz jokatuena saila mugatua izan du, Australia eta Ginea Berriko hizkuntza askoren antzera.

- Aditz sintetikorik ez da maileguen artean, aditz jokatuak jokatu gabeen gainean eratu dira, soilik “\*e-” aurrizkia izan zuten erro soilek hartu dute forma sintetikoa, bokal harmonia eta erreduplikazioa ez dira aditz jokatueta eman.

- **AE-n aditz guztiak ote sintetiko? Zenbatsu?**

Ez. Bi dozena inguru.



- **Oina, partizipioa eta aditz-izena: zein da zaharrena? Zergatik?**

Aditzoina da zaharrena hiru arrazoiengatik.

- Partizipioak eta aditz-izenak forman eta funtzioan gardenak diren markak daramatzate, (-tu, -tze adibidez), aditzoinak daraman marka bakarra \*e- aurrizkia, funtzio ezezagunekoa den bitartean.
- Partizipio eta aditz-izenak sortu dira aditzoinari atzizkiak erantsirik.
- Deribaren teorian euskara aurrizkiak izatetik atzizkiak izatera igaro zen, beraz, aditzoinak aurrizkia bakarrik duen forma izanik, ezinbestean beste biak baino lehenagokoa izan behar.
- **Zer dio Traskek -n partizipioez?**

Aditz hau ere -i sailekoak ziren eta erroan -n-z amaitzen zen.

- **-i eta -n-z landako partizipioak. Zein dira horien jatorriak?**

-tu atzizkia latinezko maileguekin sartu da eta erromantzezkoekin osatuz joan da, nahiz eta une batetik aurrera bertoko oinarriekin ere erabiltzen hasi ziren: aditu,...

-o bukaera dutenak -n bukaera dutenen sail berekoak direla pentsatzen da, baina aldaketa fonologiko berreraikigaitzak pairatuta: jo, ito,...

Adjektiboetatik eratorriak: ase, busti,

Maileguak: gorde

Adlatibodunak: atera

-ki/-gi amaiera dutenak: ebaki.

- **-tu-ren hedadura partizipio bakartzat.**

Euskaraz -tu (mendebaldean > -adu (>-au)) // lat. -ATU > gazt. eta nafar. -ado, gask. -at.

- **Zergatik da interesgarria aditz askotan ja- hasiera izatea? Fonetika hutsari egotz dakioke, ala beste zerbaiti?**

Hortik atzeman zen aditz horiek ez zirela bakunak, eratorriak baizik. Ja- hori hizki bat izanen da, j- kasu gehienak ja-renak direlako.

Jaun < \*e-Ca- Xun (Semantikaren laguntzarekin X=dun dela pentsa dezakegu; aurrizkia, berriz, da-, C erorkorra d delako) → jaun < \*e-da-dun.

- **Zenbat trinko zeuden euskaraz XVI. mendean? Eta orain?**

60 bat trinko zeuden XVI. mendean, baina gaur egun 12 bat baino ez dira geratzen.

- **Zer uste zuen Lafonek aditz trinkoez eta perifrastikoez? Zein da gaur egungo ikuspegia?**

Lafonek forma perifrastikoak sintetiko telikoen hutsune burutua osatzeko sortu zirela uste zuen. Gaur egun uste da aditz trinkoak aditz jokatugabeetatik sortuak direla.

- **Zein da perifrasiarik zaharrena euskaraz? Zergatik?**

Aditz oina + \*edin / \*ezan. Zaharrentzat jotzen dira. Gramatikalizatuena delako eta inguruko hizkuntzetan parekorik ez duelako. Perifrasi hauek badituzte gaur egun desagertuak diren balioak euskaraz. Adibidez, “etor nendin”, 16. mendean aoristo zahar bat izango balitz bezala itzuliko genuen baina gaur egun, `etorri nintzen´izango litzateke bere itzulpena.

- **Zein perifrasiari buruz esan dezakegu erdal ereduen arabera sortuak direla?**

- **partizipio + joan-eroan/eraman perifrasiak zer adierazten du? Lekukotasunak.**

Ohitura adierazten du forma honek eta dialektala da, bizkaieraz bakarrik ez, Etxeparek ere erabiltzen duelako.

- **Zergatik bilatzen ditu Traskek euskara SVO hitz-ordenakoa zeneko garaiko zantzuak?**

- **Zein da, oro har, komunztadura marken jatorria?**

- **Zer gertatzen da hirugarren pertsonako ustezko komunztadura markekin? Zein dira?**

- **Zein zen *ikus nezan* bezalako perifrasi baten balioa? Eta *nekusen* bezalako trinko batena?**

*Ikus nezan* aoristo perifrastikoa (=“ikusi nuen”)

- **Aoristoa.**

Aditz oina + \*edin / \*ezan erabiltzea aspektu burutua adierazteko. Adibidez, “ikus

nezanean” `ikusi nuenean´.

Hainbat hizkuntzetako aditz formei emandako deitura, ez dute esanahi eta iturri berekoak zertan izan.

- **ebili: erabili, gaitu: \*\*garaitu. Zergatik?**

“ebili” eta “erabili” erro bereko aditzak dira. “gaitu” eta “garaitu”, berriz, ez.

- **-te / -tze (etor). Zein da zaharrago eta zergatik?**
- “-te” zaharragoa dela uste da. Nabaria da “-te” atzeraka dabilela “-tze”-ren mesedetan. Euskara zaharrean “-te” hartzen dute ozen bukaerako erroa eta “-i” partizipio marka dutenek ere. “-tu” emankor bihurtu ahala “-tze” ere ugariago da. Ondare zaharreko aditz guztiek “-te” hartu zuten aditz-izena egiteko.
- Beraz, hipotesi nagusia “-te” orokorra da era `fase sparita´-n dago aspalditik, eta badirudi Euskal Herri osoan konbinatzen zela antzina ondare zaharreko aditzekin. “-tze”, berriz, aditz modu berriekin lotutako marka da.
- **XVI. mendeko aditz trinkoek zer balio izan zezaketen? Balio hauek beti berberak ziren?**

- **Zein da Trask-en ustez, aditzetako da- aurizkiaren (dator...) jatorrizko balioa?**

Aspektu markatzat azaldu zuen. Aurizki nahi laguntzaile ere izan zitekeela zioen, baina bigarren aukera ez zuela garatuko.

- **Zein da, Mounoleren arabera, partizipio + izan / \*edun perifrasiaren jatorrizko balioa?**
- **Aditzoina + \*edin/\*ezan egitura inoiz orokorra izan bada, non eta noiz hasi zen perifrasi horretan partizipioa aditzoinaren tokia hartzen?**

XVII. mendetik aurrera mendebaldean.

- **Aditz izenen kronologia erlatiboa.**

- **Berregituraketa “zuek”-ekin.**

“-zu” `kolektiboa´, `pluraltasuna´adierazteko sartu zen zenbait gramatika-esparrutan, deklinabide mugatu plurala sortu aurretik. “zuek” berria. Ingl. “you” = `zu´+ `zuek´. eusk. “zu” → sing. → “zuek”

- **“da-” eta “-en”-en gramatikalizazioa.**

“da” aspektu burutugabea, “da-go”: \*dar > da.

“en” aspektu burutua, “n-en-goena”: \*den > en.

- **Kurylowicz-en analogiaren legeetarik bat.**

- **“Neure ama Roman ilta”: nongoa eta noizkoa da?**

- **Laguntzailearen gramatikalizazio gradua.**

\*edin / \*ezan gramatikalizatuago izan / \*edun baino.

- **Bergararrok hasi dira “trajioe baten” asmatzean: zer duzu esatekorik egitura honetaz?**

“Plural hurbila” deritzaguna lehengo gradu aniztasun horren beste arrasto bat da: *berrgararok*, eta *trajioe*, -oe > -o lehenago bakundua proposatu beharko?

- **“Han datz hilik” / “beraz Presebalen kaltean”: zer duzu esatekorik egitura honetaz?**

“Ce an daz Presebagez bere caltean”: eta hemengoaz?

- **Fonologiazko aldaketa eta tipologia diakronikoa.**

Kontsonante kopurua ugaltu, eransletasuneranzko tipologiarantz hurbilketa.

- **Aresti-Linschmann legearen definizioa (eta kronologia).**

- **“Lotsaga nindin, ogiz as nindin”: zergatik da interesgarri morfologia eta sintaxiaren aldetik?**

- **Euskal hitzak: zenbat sailetan sailka litezke bere etimologiaren arabera?**

Bost sailetan: maileguak, aldaera, eratorri-konposatuak, fonosinbolismoak, eta etimologia ezezagunekoak.

- **“Adar” eta “zulo”: mailegu zeltikoak ote? Zergatik?**

- **Latineko bi atzizki: testuen kronologiak laguntzen ote du jatorri hori?**

“-ebam”, “-ebas”

- **“hogei”:zelt. “ugeint”, zer esan zenezake erkaketa honetaz?**

Euskarak zenbaki kardinaletan 20nako sistema du, frantses zahar eta modernoak, eta hizkuntza zeltikoek bezala. Azken hauekin lotu izan da “hogei”-ren jatorria (cf. “ugeint”). Gezurra da: “wiknti” zen euskararekin ukipenean zenean. Orain, gainera, are urutiago: “hogei” < “\*ogehi” < “hogeit”.

- **Euskaraz zein aldaera zaharrago eta zergatik? “zelu” / “zeru”, “bike” / “phike”.**

- zeru zaharragoa da “l” > “r” aldaketa euskararen barruan pairatu baitu. Beraz, latinarekin ukipenean zegoenean mailegatutako hitza da. Ondorioz, geroago erromantzeetatik mailegatutakoa da.

- Kontsonante hasperendun guztiak maileguak dira, edo aldaerak dituzte. Kasu honetan, leherkari ahostunak dira euskaraz zaharrenak: “bike” > “phike”. Asimilaziorik ezean hasperenketarik ez, “b” > “p”.

- **“bariku” < ?, “biao” < ?**

- “bariku” < “abari bako egun”.

- “biao” < “meridiano”.

## **historikorako eta euskararen historiarako?**

- a) Leipzig: Neogramatikoen mugimendua bertako unibertsitateko ikertzaile batzuek sortu zuten.
  - b) Ginebra: Ginebrako Eskolan (unibertsitatean) zebiltzan hizkuntzalari talde batek estrukturalismoa sortu eta garatu zuen bertan.
  - c) 1950: Martinet-en proposamena [bortitz / ahul] AE-ko herskariaren saila berreraikitzean.
  - d) 1961 / 1977: Mitxelenaren “Fonética Histórica Vasca”-ren 1. eta 2. argitalpenak dira. Barne-berreraiketa sortu eta AE-ren sistema fonologikoa berreraiki zuen.
- Nire ustez, guztiak dira garrantzitsuak! Batzuek hizkuntzalaritza historikoa garatzen lagundu zuten eta besteek euskararen gramatika historikoan mugarriak dira.

## **2. Analogiaren definizioa.**

‘Forma’ batzuetan aldatetak egitea beste forma batzuen eraginez. Aldaketa horiek, baina, EZ dira ERREGULARRAK. Egitura fonetikoan faktore ez-fonetikoen eraginez gertatzen den aldaketa irregularra irregularra da.

Beste definizio aukera bat: Forma batzuek jasandako aldatetari deritza “analogia”, hiltunek forma horiek beste batzuekin sumatu duten antzekotasunagatik aldatu direnean.

Adibidez: (a) “\*da-tor-z” > “datoz”, eta ez “\*\*datos”; “rz” > “s” aldaketa erregularra den arren, “doaz”...-en analogiaz. (b) Ekialdean “dira”-rekiko analogiaz “gira” eta “zira” formak sortu dira.

## **3. Protohistoria / historiaurrea.**

- Protohistoria: 1545 baino lehenago badugu zenbait informazio euskarari buruz, ez zuzena, zeharkakoa baizik: akitanierak (K. o. I-III. mendeak) eta Erdi Aroko dokumentazioak eskaintzen digutena. Protohistoria zehazki historia ez den, baina nolabaiteko lekukotasunak dituen garaia deritzogu. Historiaurrea: Akitanieraren eta Erdi Aroko euskararen lekukotasunak protohistoriatzat hartuaz, euskararen historiaurrea atzerago eramango dugu, Kristo aurreko denboretara. Lekukotasunik ez dugun garai hori litzateke. Protohistoria: corpus handirik ez, baina lekukotasun urri edo osogabeak dituen hizkuntzaren historiaren zatia. Historiaurrea: hizkuntzaren inongo lekukotasunik gabeko garaia.

## **(?) 4. lat. duo: arm. erku/ eusk. elkar: holand. elkaar. Zer dioskute analogiez eta homologiez?**

elkar / alkaar homologia da; antzekotasun grafikoa, itxurazkoa duten jatorri ez bereko bi hitz dira.

Berreraiketarako ez du baliorik. duo / erku analogia da; berreraiketarako balio du.

Gaizki dago erantzuna: duo eta erku homologia dira, eta berreraiketaren laguntzen dute. elkar eta elkaar analogiak dira, azaleko itxura baino ez dute, eta ez dute ezer berreraikitzeke balio.

## **5. Zergatik Mitxelenak ez zituen / m /, / p / eta sabaikariak sartu AE-ren inbentarioan?**

Errazago: ez zituelako behar. Egon zitezkeen, baina beste soinu batzuen alofonoak edo fonosinbolismoetakoak ziren, hortaz ez zute fonema izaera.

- Ezpainkari bortitzik ez. /p/ hotsak ez du ematen izaera fonologikoa zuenik, zeren eta, gutxi agertzeaz gainera, agertzekotan /b/-ren alofono gisa baino ez baita. - Hots palatalak (sabaikariak). Euskara historikoan hots adierazgarriak dira edo sekundarioak; sistema nagusitik kanpo eta horren menpeko gisa leudeke, arlo fonosinbolikoan ziurrenera. - /m/ ere, maileguetarik eta fonosinbolismoetarik at, testuinguru sudurkarietan sortzen zen /b/-ren alofono gisa bakarrik.

## **6. Zer ikasi dugu euskal morfologia zaharraz iberikoarekiko eta kaukasikoarekiko erkaketaren bidez?** Euskara, iberikoa eta kaukasikoa ez direla ahaide.

Ezer ez, ez direlako ahaideak.

## **7. Zer dute komunean T, R eta S hots-sailek Mitxelenak oposaketa bakar batean biltzeko?**

[bortitz / ahul] oposaketa, hots, eta neutralizazio patroia bera: hitz hasieran ahularen aldeko neutralizazioa, amaieran bortitzaren aldekoa eta bokal artean soilik mantentzea oposaketa.

Ondo, esango nuke

## **8. Mitxelenaren hiru argudio Martineten herskari zaharren teoriaren alde.**

Ondo, baina nik uste laburrako azal daitekeela.

- 1) Geminatuen bilakabideak adierazten du orduko euskaldunek hotsen indarrari begiratzen ziotela eta ez haien ahostuntasunari: lat. “BB” > eusk. “p”. “abbas” > “apaiz”. 2) “f”-aren

lekukotasunek erakusten dute nola “b” eta “p”-ren arteko bereizketa ez zen ahostuntasunaren arabera, baizik eta ahoskera ahula edo indartsua izatearen arabera. 3) Lekukotasun zaharretako datuak ere alde. Akitanierazko <TT> eta <CC> grafiak indartsuen adierazpide ditugu (vs. <TH> hasperenduna).

**9. / ü /: arrazoiak AE-n ez sartzearen alde.** Z-k eta BN-ko hizkera batzuek /y/ <ü> dute, baina argi dago (Mitzelenaren arabera) /u/-ren emaitza dela baldintza jakinetan. EBZ-ren ondoko aldaketa erregularra izan da, eta beraz, “\*u” > “ü” prozesuaren ondorio, salbuespenak salbuespen. → Ez dago sartzeko beharrik

**(?) 10. Zenbat ozen (eta zergatik) AEZ-ean? Eta txistukariak (eta zergatik)? 3**

- Ozen: 3 - Txistukari:2 (apikaria eta bizkarkaria). Bortitz/ahul oposaketa fonetikoa zelako, ez fonologikoa.

Bikain!

**11. EBZ: Zer da? Noizkoa? Zergatik?** Ditugun datuekin berreraiki dezakegun garaietan gugandik hurbilena, euskalki historikoen ama-hizkuntza. K. o. 5-6 (Mitzelena), 6-7 (Azkarate) mendeetan kokatzen da. Nafarroan /h/-ren galera X. mendean, eta X-XI mendeetatik aurrera “barri” / “berri” bezalako txandakatzeak; beraz, 10. mendearen aurretik izan behar du. Hizkuntza batuak gizarte egitura batua behar du. Mitxelenak proposatu euskaldunak 5-6 mendeetan bisigodoen aurka bildu zirela, eta Azkaratek antzera, Inperioaren gainbeheraren ondoko egoera berrian kokatzen du.

Ederto. ‘Lengua común y dialectos vascos’ artikulua honetaz da.

**(?) 12. AEZ-tik AEB-ra bi aldaketa fonologiko eta morfologiko.**

- Fonologiko:Bi txistukari > lau txistukari, eta eta \*d- > l- Ondo.

- Morfologiko:Erro kanonikoa monosilaboa > bisilaboa, eta aurrizki > atzizki. Lehenengoarekin ez nago seguru. Hobeto: erreduplikazioa / erreduplikaziorik ez

**(?) 13. EBZ: egin laguntzailea ote? Eta eroan / eraman?**

- “egin” ez, nagusia litzateke.- “eroan” / “eraman” ohitura adierazten duen perifrasiak litzateke. Lehenengo zatia ondo. Bigarren galdera ideiarik ez, baina esango nuke ondo dagoela.

**(?) 14. i- / u-oposaketa (ile / ule, utzi / itxi): noizkoa? Zergatik?** Oposaketa dialektala.

Bizkaierak gainerako euskalkiekin fonologian duen bereizgarri zaharra da. “\*eu-” diptongo zenbaiten emaitzak dira, ez beti koherenteak. Inor ez da ausartu AE-rako seigarren bokal bat proposatzen, izan ere, “\*eu-” diptongo zenbaiten emaitzak dira.

**Nahiko modernoa, dialektala delako → EBZaren ondorengoa. \*eu’ diptongotk oro har.**

**15. Bokal irekiera eta itxiera: hiruna adibide.**

- Bokal irekiera: “e” > “a” (\_\_\_R): “berri” > “barri”, “txerri” > “txarri”, “gerri” > “garri”.

- Bokal itxiera: “o” > “u” (\_\_\_n), Zubereraz: “gizon” > “gizun”, “ezkondu” > “ezkundu”, “ontsa” > “untsa”.

Ondo

**16. j-: maileguez landa ze testuinguru (morfo)fonologikotan gertatzen da?**

Aditz morfologian, \*e- > j- / \_a gertatu delako zenbait aditzetan: jakin, jasan, jan... Aditzetatik eratorriak diruditen zenbait hitzetan ere ageri da: jaun, jainko, jabe

Ondo

Ondare zaharreko hainbat hitzetan (“jaun”, “jainko”...) eta badirudi toki horretan aditz morfologian paperen bat ere baduela (“jasan”, “jario”, “joan”...). Badirudi osoki edo ia 4“\*e-” batetik datorrela. AE-n /j/-rik ez izan arren, hots hori euskalki guztietan aurkitzen dugu.

**17. V- asko ote euskaraz? Zergatik?** Euskarak jasan duen deribak hori iradkoitzen badu ere, ezetz dirudi, lekukotasun zaharrenekin ere ezin baita beste bokalik berreraiki.Hiru proposamen daude: zero hipotesia (euskal hitzen joera fonotatikoaren ondorio), bokal eransketa, eta hitz hasierako kontsonante galtzea. Lakarrak dio galdera gaizki planteatuta dagoela. Kontua ez bide da hitz hasieran bokal asko egotea edo ez, baizik eta zeinen urriak diren toki horretan zilegi diren kontsonanteak.

Esango nuke: ez, jatorrizko erroa CVC zelako.

**(?) 18. Non (ze hizkeratan) dira euskaraz soinu / fonema sabaikari gehiago? Nola azaltzen**

**gertakari hori?** Gehiago mendebaldean, eta gutxiago N, BN eta L-n (despalatalizazioak egon dira). Mendebaldean sabaikaritze automatikoa emankorragoa da.

Bai edo, mendebaldean gehiago, sabaikaritzeak emankorrak izan direlako (ez dut uste despalatalizazioak egon direnik ekialdean, baizik eta palatalizazioak bestean).

**(?) 19. Herskari bat izan ote liteke fonosinbolismo? Zergatik?** Bai, batez ere hitz bukaeran., hala nola /m/. Zenbat hizkuntzan bakanago den hots bat, hainbat eta balio fonosinboliko gehiago izango du hots horrek. Hitz arruntetan ez direlako normalean hitz bukaeran agertzen. Ez dakit galdera ondo planteatuta dagoen. Hots bat bakarrik = fonosinbolismo? Bat baino gehiago behar duela esango nuke. Hala ere, baietz esango nuke, fonosinbolismo batean ager daitekeela. Hala ere, litekeena da oso ugariak ez izatea.

**20. Diptongoak fonosinbolismoetan asko agertzeak zer dakar beren estatus zaharraz?**

Diptongoak ez oso zahartzat jotzeko argudioa da. Izan ere, zenbat hizkuntza bakanago den hots bat, hainbat eta balio fonosinboliko gehiago izango du hots horrek. Onomatopeia, oihu, umeen hizkuntza eta antzekoetan diptongoek duten ohiz kanpoko maiztasuna bera da diptongoak duela gutxi arte erabat ohikoak ez direlako aski adierazle.

Ez dakit eskolan horrelakorik aipatu duen, baina erantzuna nahiko zentzuzkoa ematen du.

**21. Zer pentsa liteke Nafarroa ekialdeko kau / gau, kori / gori, kura / gura eta gainerako deiktikoetako herskari antzinatasunaz?**

- Herskaria indartsua zela, eta honegatik gerora > Ø / #\_\_\_ gertatu zela. Beraz, oposaketa 'lenis' / 'fortis' izaki, AEB-n kokatuko genituzke.

- Baliteke antzinako herskari indartsua hasperen bihurtu ondoren ("haur"... ) zenbait testuingurutan alde hartako hiztunek herskari bat berrezartzea hasperenaren orde; honek gogorarazten digu atzizki eta kidekoetan herskari belarrak duen maiztasuna, agian nolabaiteko hedapen analogikoaren ondorioz: "-(k)ume", "-(k)eria", "-(k)ara", "-(k)ide"...

Ez direla oso zaharrak, leku bereko lekukotasun zaharragoek erakusten dutelako lehendik ez zeudela.

**22. Zergatik pidaia-ren ahoskabea?** Hitz hasierako herskari ahostuntze eta ahoskabetze prozesuetan, gahoskabeak erregulari ahostundu egin ziren, baina zenbait kasutan ahoskabeak aurkitzen ditugu. Hala nola, bikote ugarien eraginez, forma ez etimologikoak sortu ziren: BN "pidaia"...Gerora sortutakoa da, agian veste forma batzuen analogiaz.

Bai edo. Ez zait erantzun hobeagorik okurritzen.

**23. Baldin eta gela < cella, bake < pace, zergatik zeru < coelueta gurutze < cruce?** Bigarrenak erromantzetik hartu ditugun maileguak direlako, eta lehendabizikoak, berriz, latin garaian sartutakoak, eta beraz ez dituzte erromantzeetan pairatu dituzten aldaketak jasan.

Oso ondo.

**24. gau haur / gauR, biharamon / bihaR. Zergatik?** R-ren hitz bukaerako neutraltzea berantiarra da (eta guztiz burutu gabea). Horregatik, neutraldu zenerako biharamon bezalako formak sortuak ziren. R bukaeran neutraltzeko joera indartsua da, baina burutu gabekoa: kontrako indarrek (alboko hizkuntzen eragina, adibidez) batzuetan irabazi egin dute. Adibidez:(a) Maileguetan: "plazerik" ala "plazerrick"? (b) Ondare zaharreko hitzetan: "nor-en"... baina "ezer-en" ala "ezeR-en"?

Oso logikoa ematen du.

**25. Zub. deusere, aizina: zer dakizu txistukari hauezaz?** /z/ eta /z̄/ fonemak direla Z eta BN-n, /s/ eta /s̄/-rekin oposaketan daudena, baina ezin zirela zahartzat jo, oro har mailegu berrietan ("aizina") eta hitz loturan ("deusere") baino ez baitira agertzen.

Ondo.

**26. Iarru / narru: nola azaltzen bikoiztasuna?** Bikoiztasuna dialektala da. Hitz hasierako ozenen txandakatzea da, "l-" ≈ "n"-rena. Bizkaieraz "narru" / orok. "Iarru".

Sakanan *lazka* 'nazka'. Dialektala da eta biek artikulazio puntu bera dira eta, are, ozenak. Hortik aurrera...

**27. solas, sasoiz, sarats: zeren lekukotasun?** Txistukari ahoskunearen aldaketen lekuko dira.



Hitz batean bi txistukari agertuz gero, biak ahoskune berekoak izan ohi dira: apikariakapikarirantz neutraldu ohi dira (“solas”, “sarats”). Bestalde, salbuespenak daude: hauek analogiak eta analisiak azaldu ohi dituzte. Gure kasuan, analisiak, bi txistukariak ez baitaude morfema berean (“sasoiz”).

Erro berean, bi txistukari desberdin ezin dira eman. Gainera, neutralizazioa apikariaren aldekoa da (beti).

**28. \*h2 > h1: bi adibide; \*h3 > h1: beste bi adibide.** - \*h2 > h-: (1) “enuskara” > “ehuskara” > “heuskara” > “euskara”. (2) “\*enazur” > “\*ehazur” > “\*heazur” > “hezur”. - \*h3 > h-: (1) lat. “arena” > eusk. “\*arena” > “\*areha” > “harea”. (2) “\*bor-gehi” > “\*bor gehi” > “\*or gehi” > “\*horgei” > “hoge”.  
Ondo

**29. hilebethe: iruzkindu hasperenak** → Hitz hasierako /h/-a etimologikoa da. Bigarrena, berriz, ez. Leherkari hasperenduna leherkari ahoskabearen alofona besterik ez da. Beraz, ez daude bi hasperen hitz berean.

Ez dakit ba. Herskari hasperenduna ez da hasperena, konforme, eta hasperen bakarra dago, baina horren historiaz ideiarik ez. Lehenengo hari dagokionez: zergatik ez h1 > h2? (cf. \*hala > alha; \*honetsi > onhetsi).

**(?) 30. ári: arí, alhabá : alhába. Zer dakizu azentuera hauezaz?**

Zubereraz forma mugatua eta mugagabea azentuaren arabera bereizten dira. Azentua bukaeran dueña (arí, alhabá) mugatua da, bestea mugagabea

Bai edo. Erabilera gramatikala du gutxienez mugatu / mugagabe bereizteko eta mendebaldean sg / pl erakusleetan (ári / arí horren adibide dela uste dut)

**31. Mitxelenaren 4 azentuera-eremu nagusiak.** (1) Erdi-mendebaldekoa (B, GN). (2) Zuberera eta Erronkaria (Z + E). (3) Goi-nafarrera (GN). (4) Bidasoa aldekoa.

Baliteke eskolan aipatu izana. Ideiarik ez.

**32. Zer dakar azentuaz B-G-L-ko gramatikariak (baina ez Oihenartek) XVIXVIII. mendeetan euskal hitz guztiak –a batez amaitzen zirela defendatu izanak?**

Zubereraz azentuak mugatua eta mugagabea bereizteko balio zuela eta B-G-L-n ez.

Ni idea

**(?) 33. Mitxelenaren euskal silaba egitura eta ozentasun hierarkia.-**

(C) V (W) (R) (S). (T).- CV-VC: Ozentasun hierarkia.

Ondo, baina ozentasun hierarkia... Ez dakit, ez bada ordena horretan agertu behar direla ez dakit

**34. Bi hizkuntza familia zeinetan erroaren ikerketak berreraiketarako balio handia izan duen.** IE eta hizkuntza uralikoak. (eta euskara)

**35. Bi argudio CVC erro ereduaren antzinasunaz.**

- **Eta /p/?**

Ezpainkari bortitzik ez, /p/ hotsak ez du ematen izaera fonologikoa zuenik, zeren eta, gutxi agertzeaz gainera, agertzekotan /b/-ren alofono gisa baino ez baita.

- **Ba ote soinu sabaikaririk AE-n?**

Bai, AE-n soinu bezala jada agertzen ziren maila alofonikoan bazen ere. Mendez mende fonema bihurtu da, lehen adierazgarri eta bazterreko ziren hotsak normaltzen joan diren heinean.

- **Zenbat bokal, diptongo eta irristari ziren AEn?**

Bost bokal (a, e, i, o, u) eta bost diptongo (au, eu, ai, ei, oi). Hala ere, sekundarioa dirudien seigarren bat dago: oi. Ez zegoen irristaririk, diptongo zenbaiten hondar zati gisa besterik gabe maileguetan.

- **Ondoko formak ezinezkoak dira AE-n. Zergatik?**

*Tarrat*: hasierako eta bukaerako “t”-gaitik. Hitz hasieran ezin liteke herskari ahoskaberik agertu.

*Greba*: Kontsonante bilkurak ez dira posible. AEn ez zegoen kontsonante bilkurarik (soilik hitz fonosinbolikoetan) ez du CVC egitura errespetatzen.

*Basalore*: “a” horregatik. “lore” latineko “flore”tik dator, eta mailegu hau latinarekiko ukipenegoetatik datorrenez, AE baino berriagoa da.

- **Zein da zaharrago, zelü/zeru ala gela? Zergatik?**

Zaharrena “gela” da, latinetik dator. Hasieran txistukaria duten maileguak erromantze garaikoak dira. (ü antzinako u batetik dator. Eta r antzinako l batetik).

- **Eman ezazu AEZ-ren ezaugarri fonologiko eta morfologiko bana.**
  - Fonologiko: CVC egitura eta leherkaririk ez hitz amaieran “\*\*T”
  - Morfologiko: aurrizkiak erabilera eta erro monosilabikoak - diptongorik ez (gutxi)
- **Zer da eta noizkoa Euskara Batu Zaharra?**

Euskalkiak banatu aurretiko euskararen batasun egoera da. Mitxelenak eta Zuazok V-

VI mendeetan kokatzen dute, egun ezagutzen ditugun euskalkiak sortu baino lehenagoko euskara da.
- **Nork proposatu zuen EBZ? Zergatik/ zertarako?**

Mitxelenak. Urruti gelditzen zirelako hizkera modernoak AEtik.
- **Zer zioen Lacombe euskalkiez?**

Euskalkiak bitan banatu zituen argudio morfologikoak eskainiz: bizkaiera (bere ustez lexiko zabalgoa eta “egin” aditz erroa desberdina) eta gainerakoak.
- **Zer zioen Uhlenbeck euskalkiez?**

Bere ustez euskalki bizkaitarrak eta gainerakoak jatorri ezberdinekoak dira, bi hizkuntza ezberdin kontsideratzen zituen.
- **Uhlenbecken euskal erroen sailkapena:**

Erro bisilabikoa zela uste zuen. Hitz sailak eta erro ereduak aztertu behar direla dio.
- **Mitxelenak emandako EBZ ondoko berrikuntza fonologiko bat.**

Sabaikaritzea

Diptongoen ugaltzea, ahoskabeak hitz horietan berrezartzea, n → h hasperentzea.
- **Mitxelenak emandako EBZ ondoko berrikuntza morfologiko bat.** Deklinabide aditza, artikulua. \*egin erroa
- **Zergatik euskalkiak ez datoz leinuen hizkera zaharretatik?**

Aspaldiko hitpotesia da. Lehenik erromatarren aurreko tribuak eta elizbarrutiak eusklakien mugak xeheki markatzen zituztelako. Garai bateko leinuen egiazkotasuna dudan egoteaz gainera, euren banaketa eta euskalkienak ez dute bat egiten, hain zaharrak balira, euskalkiak elkarrengandik urrunago leudekeelako.
- **BZ-ren arkaismoek balio ote dute hura gainerako euskalkietarik bereizteko?**

Ez. Arkaismoek ez dute balio hizkerak desberdintzeko. Arkaismoak dira, beraz, garai batean euskalki guztiek izan zituztela pentsatu behar dugu, hortaz, zerbait egitekotan batasun zaharra islatzen dute.
- **Zergatik IE, austronesioan eta beste hainbatetan dira adarkatze bitarrak dialekto banaketa diakronikoan?**

Edozein banaketa linguistikotan binaidsmoak hori markatzen duelako.
- **Zer eratako berrikuntzak dira garrantzitsuenak adarkatze bitarrerako?Zergatik?**

Berrikuntza zaharrenak, betiere paraleloak ez direnean, banaketa zaharretatik datorrelako euskalkia.

Berrikuntza zahar bereizleak. Bestela ezin direlako hizkerak edota hizkuntzak banatu.

- **Ezagutzen duzun ezaugarriren bat EBZ-ren banaketan garrantzitsu litzatekeena lehen adarkatzen bitarrerako?**  
Herskarien portaera, l eta n ondoko ozenen portaera ahoskabe eta ahostunaren alde.

- **Mendebaleko euskara zaharraren berrikuntza fonologiko bat.** Deklinabideko a en- borretan -a+a=ea; ‘r’ eta ‘l’ren aurreko bokalaren irekitzea: txarri, barri...

- **Mendebaleko euskara zaharraren berrikuntza morfologiko bat?**  
Egin laguntzailea, -gaz deklinabide marka, ablatibo arkaikoa (-rean)

- **Gipuzkera goian ala behean litzateke horrelako banaketa batean? Zergatik?**  
Behean. Gipuzkerak berrikuntza zahar propio gutxi dituelako eta dituenak ez direlako oso zaharrak.

- **\*ezan laguntzailea Z-n: arkaismo ala berrikuntza? Zergatik?** Arkaismoa. Noizbait euskara osoan eman delako.

- **\*eutsi laguntzailea B eta A-n: arkaismo ala berrikuntza? Zergatik?**  
Berrikuntza komun garrantzitsuenetakoa. \*eradun-etik datorrelako eta soilik aitzinakoan eta batuan eman delako.

- **u-/i- txandakatzea: AE, EBZ, dialektala? Zergatik?** Dialektala, ez delako euskalki guztietan gertatu.

- **Erronkariaren zenbait berrikuntza berantiar.** Erakusletako herskariak. Kontsonante arteko bokal zenbait galdu: gra, zra,...

- **Maileguen egitekoa euskararen historiaurrearen berreraiketan.**  
Lege fonetikoak azaleratzea, euskarak maileguak nola hartu dituen agerian uzten duelako.  
-Maileguez lagun dezakete aldaketen kronologia erlatiboa ulertzen ere.  
-Maileguei buruz dakigunak maileguak ez direnen berri ematen digu. Euskararen berebiziko garrantzia dute.

- **EBZ-ren berrikuntza fonologiko bi.**

Sabaikaritzea.

Diptongoen ugaltzea, ahoskabeak hitz horietan berrezartzea, n → h hasperentzea.

- **Bokal inbentario hori aski ote ule/ile, uzen/izen, utzi/itxi eta gainerako u-/i txan- dakatzeak azaltzeko? Zergatik?**

Ez. 6. bokal baten existentziaren ondorioz sortuak liratekeela uste da. Txandakatze hauek borobiltasunarekin lotuta daude.

- **Ü: non lekukotzen da? Nondik dator?**

Zuberoan eta BNko eremu batean. Frantseseko sistematik sartu zen (\*u > ü) “u” zahar batetik dator.

- **Bokal ixteen zenbait adibide. Zein testuingurutan ematen dira?**

Asimilazioaren bidezkoak: ule > ile; ukusi > ikusi albokari aurretik (beldur < bildur)

- **Bokal irekitzeen zenbait adibide. Zein testuingurutan ematen dira?**

Asimilazio edo disimilazioaren ondorioz (u > i ; gutxi > gutxi), r eta l aurretik doazenean (berri > barri; txerri > txarri; beltz > baltz) eta o/e (omen > emen; othe>ete).

- **Bokal borobiltzeen eta desborobiltzeen zenbait adibide. Zein testuingurutan ematen dira?**

Aurreranzko asimilazioz: gutxi > gitxi

(borobiltzea). Atzeranzko asimilazioz: zubi > zibu

(desborobiltzea).

- **a+a hiatoa: bilakabide nagusiak:**

Disimilazioa: a + a > ea Kontrakzioa: a + a > a á

azentuduna bada lehen bi bokal zeuden.

Zaraitzun: a+a > ara

- **Gainerako hiatoak: berreraiketarako balioa:**

Geminatuak: berreraiketarako garrantzia.

Funtsean hiatoek ez dute balio handirik berreraiketarako.

- **Amaierako bokalak: sailkapen nagusia:**

Amaiera absolutua eta amaiera erlatiboa.

- **Hitz hasierako bokalak: zer diote euskararen bilakabideaz?**

Uste izan da oso ugariak izan direla euskaraz, baina frogatu da ugaritasuna ez zela hainbesterako (#\_-ko kontsonante gutxi, konts-erorketak...). Benetan ugaria balitz, euskararen eranskaritasunaren seinale.

Venneman (1994) eta Martinek (1955) hipotesia:1) bokalaren eransketa > protesi fonologiko edo antzinako aurrizkia. 2) Kontsonante erorketa.

- **Euskal hotsen bilakabide orokorraz dakigunaren arabera, k.a-ko XVean ala k.o-go XV.ean ote diptongo gehiago? Zergatik eta nola? Gero eta diptongo gehiago daude.**

K.O.go XV.mendean. Diptongoak modernoak dira. Aitzinan diptongoak ekiditeko bideak zeuden eta hori zen joera.

- **Irristariak. Jatorria eta bilakabidea:**

Ez dira AE-koak, W maileguetan baino ez ditugu topatzen. \*e > j- bihurtu bokal aurrean.

“W” maileguetatik dator eta askotan ekiditen da: swerte > sorte. “j” ugariagoa da, hitz zaharren hasieran eta aditz batzuetan ageri da, \*e batetik dator: \*e-da-dan > e-a-dan > ean > jan.

- **Noizdanikoak dira soinu sabaikariak? Nola?**

Aspaldikoak / betidanikoak dira soinu sabaikariak, baina lehen hizkera adierazgarrian soilik erabiltzen ziren maila alofonikoan, ez ziren sistemako fonemak. Ondoren sabaikaritzea orokortu eta adierazgarritasuna galdu zuten eta fonema bihurtu. Mitxelenak AEn bazeudela uste zuen lekukotasunik egon ez arren.

- **Non (zein hizkeratan) dira soinu sabaikari gehiago/ gutxiago? Zergatik?**

Gehiago dira bizkaialdean (mendebaldean), beste eremuetan ez dagoen sabaikaritze bat gehiago dutelako. Gutxiago Lapurdi eta Behe Nafarroan (baita Sakanan ere) desabaikaritzeen ondorioz.

Hizkuntza eransleetan ohikoa da soinu sabaikariak topatzea.

- **Desabaikaritzeak zein ondorio du fonosinbolismoan?**

Ondorio fonetikoa (maileguetan) eta ondorio semantikoa (besteetan).

Lexiko banaketa bat egin du, eta fonosinbolismoa desegin (beraien ezaugarria baitzen sabaikaritzea).

- **Fonosinbolismoen ezaugarri formal zenbait.**

Hitz arruntetan arruntak ez diren kontsonante talde posibleak

(braust) Diptongo gehiago, bokalismoari dagokionez.

Euskaraz ez dira beti sabaikarien bitartez bakarrik eman. (gutun/kutun)

- **Hitz hasierako ahostuntzeak: frogak, kronologia.**

Kontuan hartuz latinaren ukipen-egoeran jada ahostuntzea ematen zela (pacem > bake), IV. mendea baino zaharragoak dira.

Frogak: latineko mailegutatik hartuak dira.

Kronologia: lehen haustura dialektala baino lehenago gertatua. (pacem > bake)

- **AEZ-eko \*d- hasierakoaren zenbait froga.**

Disimilazioaz erreduplikazioa galdu zela. (dodol >

odol) Hitz hasieran d > l bihurtu. (\*dor > lor)

- **AE-ran zergatik ez dugu behar /m/-rik?**

AEn fonologia sisteman ez zegoelako m-rik, hots komuna izan arren. Izan ere, m-dun hitz

gehienak maileguak edo hitz fonosinbolismoak dira.

- **Zer dakizu /f/aren jatorriaz? Eta /p/renaz?**

/f/: AEn ez zen fonema bat, b-ren alofona baizik, baina euskalki guztietan egon da soinua. Hitz hasieran arruntagoa da topatzea beste tokietan baino. Euskaran nahiko berria da fonema modura.

/p/: fonosinbolismo, m mailegu edo bestelako fenomeno bidez lortzen da. Oso gutxitan ageri da hitz hasieran ez bada maileguetan. Bokal artean arraroa. Oso euskal hitz zahar gutxitan.

- **Goranzko diptongoak. Zenbat dira? Ze bilakabide nagusi dute?**

-Gutxi eta berantiarrak dira. Batzuetan indartu eta beste batzuetan galdu egiten dira.

-Euskaraz beheranzko diptongoak izan daitezke. (au-eu-ai-ei-oi). Erromantzeetatik sortzen diren maileguetan dauden goranzko diptongoak ekiditeko moduak zeuden:

-Bokal erorketa

-Kontsonantizazioa

- -g- tartekatzea

- -r- zubi lana

- **Ba ote ezer esatekorik j- ondoko bokalismoaz?**

Aurizki bat izan behar zuela noizbait.

“j” ondoko bokalismoan “d” bat falta da, bokal artean galdutakoa. “j”ren ondoren “a” bat omen zegoen, eta aurretik \*e bat, e + a: j).

- **Hitz hasierako herskari ahoskabe modernoak: jatorriak.**

Fonosinbolismoak, hitz adierazgarriak: “khiño”,

“plast”... Maileguak: “pinu”, “parte”, “polit”,

“taula”...

Barneko

asimilazioa

Analogia

- **Hitz bukaerako herskarien jatorriak.**

Hitz bukaerako bokala galtzearen ondorioz sortu ziren. Honez gain, fonosinbolismo eta mailegu modernoetan:

-Mailegua: block

-Fonosinbolismoak: eup

-Erorketa eta antzeko prozesuen ondorioak.

- **\*h<sub>2</sub> > h<sub>1</sub>: bi adibide:**

-Leone → lehoi: leohe → lehoe → lehoi.

-Enazur → hezur: ehazur → he(a)zur.

- **Zergatik ez dugu \*\*lulur (<lur), \*\*lalats (<lats), ez \*\*leleku (<leku) eta ez \*\*lelehoi (<lehoi)?**

Ez dugulako horrelako erreduplikaziorik. D>l bilakaera bat izan zen, beraz forma guzti hauek sakonean “d” bat zeukaten, ondoren “l” bihurtu zena. Erreduplikazioetan soilik “d” da posible, ez “l”.

- **Bokal sudurkariak: nondik datoz? Lekukotasunak.**

Bokal arteko /n/ galtzearen ondorioz; Garibai eta Madariaga.


V\_Vko sudurkari bat galtzean, bokal horiek sudurkariaren arrastoa mantendu zuten. Hauen lehen lekukotasunak Garibairenak (ardao)/ akitanieran oraindik “n” mantetzen zen (seni)

- **Atziki hasierako herskari/ Θ alternantziak. Zer esan liteke horien jatorriaz?**

Formarik zaharrena herskaririk gabekoa da, herskariak aurreko hitzaren bukaeraren ondorioz sortu ziren, eta ondoren orokortu.

eria → keria: herskari gabeko formak normalean zaharragoak izan ohi dira. Adibidez, “eria” zaharragoa da “keria” baino.

- **n/N AE-n? Zer froga dugu?** n



Sistema erronbikoan: n

N

N

;latineko “n” bortitza mantendu eta “n” ahula galdu edo “h” bihurtu: annona > anoa.

- **\*-n- > -n: hiru adibide:**

\*arrani > arrain

\*artzani > artzain

\*lukanika > lukainka

\*atano > ataun



- -r- > \*-l- mailegetan: (bi erantzun)

Begiratu (latineko vigilare); aizkora (latineko asciola); gura (latineko gura).

V\_Vko latineko “l” ahulak euskarari “r” eman du: orio/ olio, solo/ soro... hala ere, ez da bilakabidea orokorra izan denbora berdinean, latinezko “l” askotan mantendu da.

- **\*r...R... > ? Zenbait adibide:**

Disimilazioa “r” ahularena:

Erur > edur/

el(h)ur Irar >

idar/ il(h)ar

Berar > bedar/ bel(h)ar

- **-r > -R. Zer dakigu honetaz?**

Gutziz edo sakoneko egiturari burutu ez den neutralizazioa da, ez da erregularra.

Amaierako kontsonanteak ozenak eta txistukariak bortitzak direla. Hitz bukaeran [r] anizkuna egon arren, atzikia bokalez hasten bada [r] bakuna: Zer → zeri. Hala ere, egun [r] anizkunaren alde neutralizazioa.

- **Zenbat txistukari fonologiko ziren AEMen? Eta AEZean?**

AEM: 4 eta AEZ: 2

**Zenbat ozen eta txistukari fonologiko ziren AEM-en? Eta AEZ-ean?**

Ozenak:

Txistukariak:

- AEM: 6

- AEM: 6

-AEZ: 3

-AEZ: 3

**EZ DUTE KOINZIDITZEN**

- **sazon > sasoi; solaz > solas; zinhetsi > sinetsi: Zer ateratzen da honetatik?**

Hitz berean bi txistukari egon direnean apikariaren aldeko asimilazioa gertatu da. Sazon, solaz eta zinhetsi zaharragoak dira.

Kontsonante homorganikoak → asimilazio absolutua saihesteko joera apikariaren alde.

- **Non eta noiz gertatzen da artikulazio puntuaren neutralizazioa txistukarietan?**

Mendebaldean XVI. mendean. Ekialderuntz hedatuz joan da. uzte → uste.

-Hitz hasieran frikariak (hitz adierazgarri batzuk salbu: “tzintzarri”, “tzar”...)

-Erroaren bukaeran afrikatua: “hatz”, “hitz”, “huts”...

○ Mailegu zaharretan: lat. “fortis” > “bortitz”...

O Hitz bukaeran –TS, bokal artean –S.

- Batzuetan hitz bukaeran zalantzak: “amets” / “ames”...
- Salbuespenak: instrumentala “-z”, aditzoinak “haz”, “eros”...

-Herskari aurrean frikaria: “hitz<sup>h</sup>” “hizkuntza”...

-“l” eta “n” ondoren zenbait euskalkitan afrikatua (inoiz “r” ondoren).

- **Eta artikulazio moduarena?**

EH guztian. Hitz + tegi > hiztegi.

- **Gatz/ gazi, arratz/ arrazi... Zein da alomorfo zaharragoa? Nola azaltzen da bikotea?**

Afrikatuak ezin du zaharrena izan. Frikaridunak dira zaharragoak eta afrikatuak berriagoak. Hitz bukaerako bokala galtzean frikaria > afrikatu bihurtzen zen.

- **Intsaur < \*?, Z jauntsi < \*?**

Intsaur < intxaurtze (Mitxelena); intsausti < intsaurtze; jauntsi <

\*eduntsi. Intsaurtzedi < intsausti : berranalisia: intsausti.

Jaunzte > jaunste > jauntsi.

rtzti → intzaursti rtst > rst → intzaursti intsausti < \*intxaurtze intsausti < \*intsaurtze jantsi < \*eduntsi.

Intsaurtzedi > intsausti: berranalisiaren ondorioz

Jaunzte > jaunste > jauntsi

- **AEZean AEMan baino txistukari eta ozen gehiago ala gutxiago? Zergatik eta zenbat?**

AEZean AEMan baino txistukari eta ozen gutxiago.

- **/h/aren testuinguruak hitz barrenean:**

V\_V: aho (bokalardean).

#\_ + V: herri (hitz hasieran eta ondotik

bokala). #\_ + diptongoa: haur.

Ozen\_V. (ozen eta bokal artean).

- **Mitxelenak emandako /h/aren sail etimologikoa:**

-T<sup>h</sup> > h

-Erromantze eta latineko f > h

-n- > h

-\*h (AEkoa)

- **Zergatik *hire* baina *eure*? Eta *han* baina *anartean*?**

*Eure* analogikoa da (Grassman); *han* zaharragoa (Mitzelena).

*hi-heur-e*: Grassmanen legeari jarraiki lehenengo h-a galdu, erro batean ezin baita hasperenik joan.

*Han* (3. graduko inesiboa) eta *anartean* forma luze berria, h-rik gabe. h-ren historia galerarena delako funtsean.

- **\*h<sub>2</sub>/ \*h<sub>3</sub> > h-: zenbait adibide:**

\*enazur > \*ehazur > hezur

\*arena > areha > harea

\*enaitz > haitz

\*auhen > hauen

\*edoni > edohi > hedoi > hodei

- **Ba ote /h/ etimologiko gehiago?**

- -r- > h konposaketan.
- Gaskoiko maileguetan.
- hVR > VRh.

- **Grassmanen legeak:**

Erro/ silaba barnekoa zaharrena eta erro/ silaba ezberdinekoa 1500etik aurrerakoa, heterosilaboa: hil + herri > hilerri > ilherri.

h\_h > \_h h > Ø/\_C

- **Hasperena Antzinatean eta Erdi Aroan: non?**

Antzinatean euskalki guztietan eta Akitanian.

Erdi Aroan: Araban, Burgosen, Errioxan (Nafarroan jada ez).

- **saihets/ sahets/ saiets: /h/ etimologikoa ote? Eta *hor*, *hon*-en?**

Saihets: etimologikoa, beranduago sortu zela uste da

(Mitzelena). Hor, hon: CVC errespetatzen du, jatorrizkoa da.

Antietimologikoa da.

- **Onherran, ilhuri: zergatik -h- ez da halabeharrezkoa edo erantsia?**  
Hil + un < ilhun metatesia.
- **Eta harma eta harroka-n?**  
Nahasketaren ondorio dira; armar hartu > harma, harrokarekin berdin. Ez dira etimologikoak.
- **Gaskoiaren lekukotasuna /h/aren balio etimologikoaz:**  
Gaskoieran hVR > VRh euskaraz: hala > alha, orhartu...
- **Mitxelenaren 4 azentuera eredu nagusiak:**
  - Erdi-mendebaldekoa
  - Erronkari-zuberoakoa
  - Goi Nafarrerakoa
  - Bidasoa aldekoa
- **Leizarragaren azentuerak zeinen antza du?**  
Erronkari eta Zubererakoarena.
- **Argudioak Martineten azentueraren alde:**
  - Azentu demarkatikoa: markatzaile onena azentu demarkatikoa delako.
  - Hitz hasiera vs. Bamsa garrantzisua izan behar du fonologiak.
  - Lotura azentua eta hasperenaren artean (azentua hasperenaren ondoren).
  - Hasperena eta azentua lotzen ditu (hizkuntza askotan ematen da hau). Azentua 2. silaban egotea zilegi da, 2. silabatik aurrera hasperenik ez dagoelako eta hasperena azentuan egon behar delako.
- **Ba ote modurik bien helburu edo abantailak bil ditzakeen proposamenik egiteko?**  
Bai (Lakarra): bi silabako azentuera bisilabikoetan.
- **Bisilabo batean aurrizkia azentuduna ote? Eta atzizkia?**  
Ez, bisilaboetan azentua 2. silaban doalako.
- **Bizkai iparraldeko tonuak izan litezke AEkoak? Zergatik?**  
Nekez. Dialektoak askoz ere beranduagoak direlako, modernoagoak direlako.

- **Zein da bateragarriago hizkuntza eransle batekin: lehen silabako azentua ala azke- nekoa? Zergatik?**

Lehen silabakoa. Latinez adibidez azentua ez da azkeneko silaban jartzen.
- **Euskal silabaren egitura Mitxelenaren arabera, eta Artiagoitiaren arabera?**

Mitxelenaren arabera: (C) V (W) (R) (S)  
(T) **Artiagoitiaren arabera:**
- **Kontsonante topaketa nagusiak euskaraz:**

Ozen-txistukari R-S

Ozen-herskari

R-T Txistukari-

herskari S-T

Txistukari-ozen S-R
- **\*\*TVTV: zergatik?**

AEZ-erako Lakarrak proposatutako erro kanonikoa monosilaboa delako eta C hasi eta bukatzen zirelako. Gainera, \*\*TVTV soilik maileguetan edo eratorrietan aurkitzen delako.
- **\*\*TVTV; \*\*CV; \*\*VC eta \*\*-T nola azal litezke?**

Ordain, mailegu, fonosinbolismo edo konposaketan ageri dira soilik. AEn CVC erro monosilaboa. -T ezinezkoa, beraz TV ere ez.
- **Erro monosilabikoa AEZe: hiru ondorio nagusi:**

-Atzizki eta postposizio gutxi; aurrizkiak.

-VO ordena.

-Bokal gehiago eta kontsonante gutxiago.
- **Nola sailka litezke erro ereduak bertako hitzen jatorriaren arabera? Zein da sail ga-**



**rrantzitsuena euskara zaharrena aztertzeo?**

5 sail: maileguak, aldaera modernoak, konposatu deribatuak, fonosinbolismoak eta etimologia ezezagunekoak (iragazki fonoligkoak alde batetik eta geografikoak bestetik).

- **Ze iragazki ezarri ahal zaie erro erduei beren zahartasuna ikertzeo?**

Fonologikoa eta geografikoa.

- **Eman iragazkiak gainditzen dituzten 4 adibide etimologiarik**  
**gabeak:** CVC, OCV, aCV eta vCV. Edozein monosilabo: gor, sal, bel, dar,... Huts, gar, sal, ber.
- **Hizkuntza eransleek nolako erro ereduak izan ohi dituzte?**  
-Bisilabikoak.  
  
-Bisilaba irekiak dituztenak: CVCV/ CVC CV.
- **AEZean bi aurrizki; ba ote zuen gero galdu den beste hitz-eraketarako biderik?**  
Gi-, sa-.  
  
Bai, erreduplikazioa.
- **Zer dakigu fonosinbolismoen erro-egiturez? Eta partikula gramatikalenez?**  
CVCtik ahalik eta urrutien dagoena dela. Erro lexikoen antitetikoak dira, ahalik eta urrutien daudenak; partikula gramatikalak antzeko zerbait dira, baina horrenbestera iritsi gabe.
- **Erro zaharren murriztapenak:**  
C hasi eta bukatu behar da, monosilabikoa eta CCC ezin da AE izan. Beraz, CVC.
- **Bi hizkuntza familia zeinetan erroaren ikerketak berreraiketarako balio handia izan duen:**  
/E/ Semitikoa/ Uralikoa/ Euskara.
- **Erro monosilabikoaren teoriaren hasierako (1995eko) emaitzak:**  
CVC dela erroa, hiru murriztapen desberdin: \*\*T/ \*\*VC \*\*CV/ \*\*TVTV.
- **Eman hiru erro monosilabiko berreraiketan berreraikiak.**  
\*ger, \*bur, \*bel.
- **Nola sartzen ziren hitz berriak aitzin euskara zaharrean?**  
Erreduplikazioak.
- **Zer dakar CVC erro egiturak AEren tipologiaz?**  
Monosilabikoa dela.
- **Erro ereduak eta etimologia formala:**

Maileguak, aldaerak, fonosinbolismoak, konposatu/deribatuak.

Etimologia ezezagunekoei iragazki fonologiko eta geografikoa ezarri behar zaie.

- **Argudioak AEren erro lexikoen eredia CVC zela esateko.**

Erro monosilabikoa zelako, kontsonantez hasi eta bukatu behar zelako eta 3 kontsonanteko multzoak ez direlako AE.

- **Greenbergen tipologia eredu nagusiak? Guztiak harmonikoak ote?**

Aditzaren hurrenkeraren arabera nagusiki hierarkikoki 3 taldetan sailkatu zituen: VSO, SVO, SOV.

Ez, 3. taldekoak ez dira horren harmonikoak 1go taldekoekin alderatuta.

- **Zein da euskara historikoaren tipologi eredia (lau ezau- garri garrantzitsuenak)?**

Preposizio

- IzAdj +

IzGenit

- IzD +

SOV taldean sartzen du.

- **Hiru arrazoi pentsatzeko lehen ez zela horrela:**

Genitibo lokatiboa ez zegoen SOV Hei dagokien lekuan.

Lehen ez zen hizkuntza ergatiboa, beraz SVOTik SOVra pasatu ergatiboa izateko. Ergatibotasuna berria da eta SVOTik SOVra pasatzean gehitzen zaio.

SOV Hek ez dituzte aurrizki edo laguntzaileak ezkerretara.

- **Zer da tipologia holistikoa?**

Azentua/ ritmoa garrantzitsuena dela defendatzen dute, morfologia, sintaxia, etab-en gainera.

- **Munda eta mon-kbmerraren erkaketa: zertan balia genezake euskararen diakroniakarako?**

Jatorri bera, baina oposaketa erabatekoa.

- **Taniaren aldaketa interesgarri zenbait.**

Adjektibo kategoria aske bat garatuz doaz atzizkiak, partizipioak, erabiliz. Multzo

aditz bezala erabiltzen ziren aditz bat ere erabiltzen dute, gure edin-en parekoa.

- **Erlatiboaren kokagune zaharra (lekukotasunak) eta berria**

Çure pena dioçunoc (Etxepare).

- **u- / i- txandakatzea: AE, EBZ, dialektala? Zergatik?**

Dialektala. Bizkaierak gainerako euskalkiekin fonologian duen bereizgarri zaharra da. “\*eu-” diptongo zenbaiten emaitzak dira, ez beti koherenteak.

- **Bokal irekitzeen eta itxieren hiruna adibide. Zein testuingurutan ematen?**

- Bokal irekiera: “e” > “a” ( R): “berri” > “barri”, “txerri” > “txarri”, “gerri” > “garri”.

- Bokal itxiera: “o” < “u” ( n), Zubereraz: “gizon” > “gizun”, “ezkondu” > “ezkundu”, “ontsa” > “untsa”.

- **AE-ko \*d- hasierakoaren zenbait froga.**

-“d-” > “l-” maileguetan (Mitxelena).

-Erreduplikazioaren ondoko horzkarien disimilazioa: “\*do-dol” > “odol”...

-“\*d-” > “j-” (V\_V) adizki jokatuabeetan (Lakarra).

- **\*h2 / \*h3 > h-: zenbait adibide.**

- \*h2 > h-:                    -“enuskara” > “ehuskara” > “heuskara” > “euskara”.

                                  -“\*enazur” > “\*ehazur” > “\*heazur” > “hezur”.

- \*h3 > h-:                    -lat. “arena” > eusk. “\*arena” > “\*areha” > “harea”.

                                  -“\*bor-geni” > “\*bor gehi” > “\*or gehi” > “\*horgei” > “hoge”.

- **Zenbat ozen fonologiko ziren AEM-n? Eta AEZ-n?**

AEM-n 6 eta AEZ-n 3.

- **Grassmann-en legeak: erro / silaba barnean eta erro / silaba ezberdinetan.**

hor + so > hohso > ohso > otso (erroan). hi + haur + re > hihaure >

ihaure > eure. Erro/ silaba barnekoa zaharrena eta erro/ silaba

ezberdinekoa 1500etik aurrerakoa, heterosilaboa: hil + herri > hilerri

> ilherri.

$h\_h > \_h h > \emptyset/\_C$

- **Argudioak Martinet-en azentueraren alde eta kontra.**

Alde:

-Azentu demarkatikoa: markatzaile onena azentu demarkatikoa delako.

-Hitz hasiera vs. Bamsa garrantzisua izan behar du fonologiak.

-Lotura azentua eta hasperenaren artean (azentua hasperenaren ondoren).

-Hasperena eta azentua lotzen ditu (hizkuntza askotan ematen da hau). Azentua 2. silaban egotea zilegi da, 2. silabatik aurrera hasperenik ez dagoelako eta hasperena azentuan egon behar delako.

Kontra: Azentu lehen vs 1. silabaren ezegonkortasuna.

- **Zer dakigu euskararen gramatika kategorien bereizkuntza zaharrez?**

Adjektiboa ka- tegoria itxia.

- **“Eure” eta “zeuen”-en jatorria.**

“\*hi” + “(h)au(r) + e > “\*ihaure” > “eure” zeu + en

> zeuen 155. **Artikuluaren bilakabidea.**

Gaurko artikulua 3. graduko erakusletik dator, erakuslea klitiko bihurtuta: “\*-har” > “- ha” > “a”: “gizona” < “gizon \*har”.

- **Hiru zenbakiaren etimologia.**

○ “\*her” (cf. “hertsi” < “\*hertz-(te)i”) + “ur” > “hirur”.

○ “laur” < “labur”

○ “bost” < “bortz” < “\*bor-tz”

○ “sei” < “\*sehi”.

○ “zazpi” < “\*(bor)zaz + bi”.

○ “zortzi” < “\*zorrotz-i” (cf. Ukabileko mendixkak).

○ “bederatzi” < “\*beda” (cf. “bederen”, “bedera”) + “eratzi” (cf. “jantzi”).

○ “hamar” < “\*han-bor”.

○ “hamaika” < “\*hama(r)-be(da)-ka”.

O “hamabi” < “\*hamar-bi” “~~abi~~ai” (B, XIX. mendea).

(15) “\*han-bor-bor-tz”.

(20) “\*(b)o(r)-gen-i” > “\*ogehi” > “hoge”.

(100) “ehun” < “\*hen” (cf. `enbor, zuhaiska´) + “hun” (cf. `hiedra´).

▪ **Euskarak ba ote du deklinabiderik? Zergatik?**

Euskaraz eta gainerako eranskarietan ez dago benetako deklinabiderik; hizkuntza flexiboen kontua baino ez da. Gainera, gurean sistema bakar bat gehituz doana vs. latineko bost deklinabideak, bakoitza hitz kopuru ezberdin eta ezberdintasun formalekin.

▪ **Ergatiboaren jatorria**

O “-k” < “\*ga”? Lakarrak bizidunetako “-ga”-rekin lotu du.

O Leku atzizkian bizidunengan du jatorria. “aitaren-gan”. Hortik sortua, -ga horretatik.

▪ **Datiboaren jatorria.**

Pl. E-Z “-ér” < “\*-ag-e-ri” (Azkue 1923) / “-ai”, “-ei” < “\*-agi” (Jakobsen-ek proposatu eta Mitxelenak onartua).

Gaur egun “-i” < “\*nin” (Lakarra 2008).

▪ **“gibel” ala “oste” da zaharrago? Zergatik?**

“gibel zaharragoa da”; “gibel” < “\*gi-” + “\*bel”, Lakarrak “\*gi-” aurrizki zahartzat proposatzen du, “\*bel” AEZ-eko erro monosilabo (CVC) gisa interpretatzen dugun bitartean. “Oste” berriz ezingo genuke zatitu, -C erorketarik ezin onar genezake gainera. Izatekotan mailegua izanen da, baina beti ere CVC garaiaren ondorengo garairen batean hartua.

▪ **Ba ote preposizioen aztarnarik?**

Lakarrak AEZ-erako CVC erro kanonikoa monosilaboa zela proposatu zuen. “samur”, “labur”,

“sakon”, “samin”, “labain”, “gibel”, “gizen”... hartzen baditugu, “sa-”, “la-” eta “gi-” aurrizkiak ateratzen zaizkigu, “\*bel”, “\*bur”, “\*zen”, “\*bin”... erroen aldamenean.

▪ **Aditz-erroen forma kanonikoak: nola eraman litezke CVC-ra?**

“\*e-da-ra-CVC”.

▪ **Hiru konbinaketa “\*e-da-ra-CVC”.**

\*e-da-ra-dan-o > \*ardano > \*ardao > ardo



\*e-da-ra-don-i > \*urbani > \*urbahi > \*hibai > ibai \*e-da-ra-gotz-i > “\*eargotzi” > “\*eorgatzi” > “urgatzi”

- **Multzo aditzak zer dira?**

Aditz erro ezberdinen pilaketaz edo elkartzeaz sortutako aditzak dira. Euskararen kasuan, `aplikatiboa´ + `kausatiboa´ + CVC. Noizbait “e-CVC-CVC-CVC” izan dugula pentsatu behar. Aditz hauen ezaugarri nagusia aspektu-denbora-modu-pertsona marken falta dugu, eta beren artean simetrikoak nahiz asimetrikoak izan daitezke.

- **AE-n aditz guztiak ote sintetiko? Zenbatsu?**

Ez. Bi dozena inguru.

- **Zein da perifrasisik zaharrena?**

Aditz oina + \*edin / \*ezan. Gramatikalizatuena delako eta inguruko hizkuntzetan parekorik ez duelako.

- **Aoristoa.**

Aditz oina + \*edin / \*ezan erabiltzea aspektu burutua adierazteko. Adibidez, “ikus nezanean” `ikusi nuenean´.

- **Berregituraketa “zuek”-ekin.**

“-zu” `kolektiboa´, `pluraltasuna´ adierazteko sartu zen zenbait gramatika-esparrutan, deklinabide mugatu plurala sortu aurretik. “zuek” berria. Ingl. “you” = `zu´ [z] `zuek´ [zuek] eusk. “zu” sing. “zuek”.

- **“da-” eta “-en”-en gramatikalizazioa.**

“da” aspektu burutugabea, “da-go”: \*dar > da. “en” aspektu burutua, “n-en-goena”: \*den > en.

- **Laguntzailearen gramatikalizazio gradua.**

\*edin / \*ezan gramatikalizatuago izan / \*edun baino.

- **Fonologiazko aldaketak eta tipologia diakronikoa.**

Kontsonante kopurua ugaltu, eransletasuneranzko tipologiarantz hurbilketa.

- **Noiztu agortu zen erreduplikazioa? Pare bat froga.**

Disimilazioaren ondorioz galdu zen, hitz hasierako \*d- galdu zenean zenean.  
Adibidez:

\*dodol > odol, \*dadar > adar

- **Arrazoiak euskararik zaharrenak Adjektibo kategoria askerik ez zuela esateko.**

Alde batetik, euskarak lehen mailako adjektibo asko eratorriak zituen.

Bestetik, koloreetan ez zegoen lehen mailako alorrik eta azkenik, Dixonek markatutako lau sorbideetatik (eratorpena, mailegutza, erlatiboak, partizipioak) kanpo ez zegoen ezerrez.

- **Zein dira adjektibo kategoriaren hierarkian maila goreneko bi alor semantiko?**

Balioa: on, txar

Kolorea: urdin, beltz

- **zu (eta antzeko vos...) izenordainen jatorria.**

Aditz inflexioan agertzen diren komuntadura-markak, jatorriz izenordainak.  
Pertsona- markak, izenordain osoen forma fonologiko laburtuak. Pertsona-marka hauek

benetako erreferentziadun izenordainak, aditzak berez predikazio osoa bete.

- **Zein da deklinabide mugatuaren jatorria? Zerk pentsarazten digu hori?**

Postposizioak eta horren aurretik aditzak. Aurrizkietatik atzizietara emandako deribagarik. Ni mendi da-joan > ni mendila (> mendira) joan 177.

**Noizkoa da**

**artikulua? Zergatik?**

Akitanieraz ez dago arrastorik. Litekeena da erromantze eta hizkera germanikoen agertzearekin batera sortzea: VIII-X mende bitartean

- **-garren-en etimologia:**

x- barren > x-∅ arren > x-garren

- **eta hamar-ena?**

Hamar < han\*+ bor(tz)

- **Zer atera daiteke GUDUA DEISDEA iberiar idazkizunetik euskal artikuluaen diakroniaz?**

Gauza gutxi atera daiteke; izan ere, “gudua deisdea” artikulua gehiegi da euskara izateko. Euskaraz IS-ak hartzen duelako artikulua, ez IS-ko elementu bakoitzak. Artikulua euskaraz EBZ ondokoa da VIII-X mende artekoa.

- **Zein da zaharragoa -(r)e ala -(r)en? Zergatik?**

-(r)e da zaharragoa; izenordainetak nire, hire, zure ditugulako. Horregatik eta horrekin bezalako formetan ere agertzen da. Ablatibo zaharra -(r)e genitiboaren gainean

eraikita dago.

- **Ba ote /h/-aren jatorri etimologiko gehiago Mitxelenak aipatuez landa? Zein?**

Bai;

O -r- >h konposaketan

O Gaskoiko mailegetan

O \*hVR- > VRh- metatesia

- **Ikerketa aitzinatu ahala zer gertatzen da erro monosilabikoekin? Eta bisilabikoekin? Zergatik?**

Munda: erro bisilabikoa/ atzizkiak/ azentua ezkerrean/ aditza bukaeran/ eranslea. Monkhemer: erro monosilabikoa aurrizkiak/ azentua eskuinean/ aditza erdian edo hadsieran / isolatzailea.

- **Zergatik dira hain interesgarri erregularitateak?**

Beste garai zaharrago baten inguruko informazioa ematen digutelako; hau da, gramatika zaharraren isla dira erregularitateak eta antzinateko erregularitasunen berri ematen digute.

- **Datu eta data hauen inguruan zein gertakari garrantzitsu hizkuntzalaritza histori- korako eta euskararen historiarako?**

- **Leipzig.** Neogramatikaren mugimendua bertako unibertsitateko ikertzaile batzuek sortu zuten.
- **Ginebra.** Ginebrako eskolan (unibertsitatean) zebiltzan hizkuntzalari talde batek es- trukturalismoa sortu eta garatu zuen bertan.
- **1950.** Martinet-en proposamena [bortitz/ahul] AE-ko herskarien saila berreraikitzean.
- **1961 / 1977.** Mitxelenaren “Fonética Histórica Vasca”-ren 1. eta 2. argitalpenak dira. Barne berreraiketa sortu eta AE-ren sistema fonologikoa berreraiki zuen.

- **Lat. duo : arm. erku / eusk. elkar : holand. elkaar. Zer dioskute analogiez eta homo- logiez?** elkar / alkaar homologia da; antzekotasun grafikoa, itxurazkoa duten jatorri ez bereko bi hitz dira. Berreraiketarako ez du baliorik. duo / erku analogia da; berre- raiketarako balio du.

- **Mailegetan egitekoa euskararen historiaurrearen berreraiketan.**

Mailegetan gordetako aztarnek laguntza eman dezakete hizkuntzaren garai zaharragoez ezer jakiteko, dela hizkuntza hartzailearen, edo emailearen. Euskararen kasuan, latinetik hartutako maileguk eta horien bilakabideak, berriz, AE-ren sistema fonologikoa berreraikitzeke oinarritzko lekukotasunak izan ziren Mitxelenarentzat.

Maileguek lagun dezakete ere aldaketen kronologia erlatiboa ulertzen.

Maileguei buruz dakigunak maileguak ez direnen berri ematen digu.

Euskaran berebiziko garrantzia dute.

- Lege fonetikoak azaleratzea, euskarak maileguak nola hartu dituen agerian uzten duelako. Euskarak izan dituen aldaketen berri (euskarak maileguak bereganatzeko moduaren arabera datazio bat edo beste izango dute). Aldaketa fonetikoaren arabera, garai batean edo bestean koka ditzakegu eta jakin zein hitz den zein baino zaharragoa.
- **Mitxelenaren hiru argudio Martineten herskari zaharren teoriaren alde.**
  - Geminatuen bilakabideak adierazten du orduko euskaldunek hotsen indarrari begiratzen ziotela eta ez haien ahostuntasunari:  
lat. “BB” > eusk. “p” → “abbas” > “apaiz”
  - “f”-aren lekukotasunek erakusten dute nola “b” eta “p”-ren arteko bereizketa ez zen ahostuntasunaren arabera, baizik eta ahoskera ahula edo indartsua izatearen arabera.
  - Lekukotasun zaharrenetako datuak ere alde. Akitanierazko <TT> eta <CC> gra- fiak indartsuen adierazpide ditugu (vs <TH> hasperenduna).
- **Zer dute komunean T, R, S hots-sailek Mitxelenak oposaketa bakar batean biltzeko?**  
[bortitz/ahul] oposaketa, hots, neutralizazio patroia bera: hitz hasieran ahularen aldeko neutralizazioa, amaieran bortitzaren aldekoa eta bokal artean soilik mantentzea oposaketa. Euskarak bortitz/ahul oposaketa kokagunearen arabera neutralizatzeko joera du baina bi eratakoa: modu eta puntuaren araberako neutralizazioa, hots, erronboaren sistemaren araberako gauzatzea. Sistema alofoniko berbera. Denek zituzten neutralizazio puntu berberak: hitz hasieran, hitz amaieran, kontsonante aurretik eta bokal aurretik.
- **/ü/ arrazoiak AE-n ez sartzearen alde.**  
Zuberoa eta Baxe Nafarroako hizkera batzuek /y/ <ü> dute, baina argi dago /u/-ren emaitza dela baldintza jakinetan. EBZ-ren ondoko aldaketa erregularra izan da, eta beraz “\*u” > “ü” prozesuaren ondorio, salbuespenak salbuespen.
- **Zenbat ozen (eta zergatik) AEZ-ean? Eta txistukariak (eta zergatik)?**  
Bi txistukari: apikaria eta bizkarkaria. Zenbat eta atzerago joan, orduan eta kontsonante gutxiago agertzen dira inbentarioan.
- **AEZ-tik AEB-ra bi aldaketa fonologiko eta morfologiko. Fonologikoak**

- Bi txistukari > lau txistukari.
- CVC

### Morfologikoak

- Erro kanonikoa monosilaboa > bisilaboa. Erreduplikazioak ☒ Aurrizki > atzizki
- **EBZ: egin laguntzailea ote? Eta eroan / eraman?**
  - “egin” nagusia litzateke.
  - “eroan” / “eraman” ohitura adierazten duen perifrasi.

### 1. Erro zaharraren murriztapenak.

C hasi eta bukatu behar da, monosilabikoa eta CCC ezin da AE izan. Beraz, CVC.

### 14. Zein da euskara historikoaren tipologi eredua (lau ezaugarri garrantzitsuenak)?

-Eranskaritasuna ergatiboa	-Morfologia
-SOV ordena aberatsa.	-Aditz joko

### 15. Hiru arrazoi pentsatzeko lehen ez zela horrela.

1. “izena + adjektiboa” ordena
2. Trask (1997): SVO → SOV aldaketa, aurrizkien ordena aldatzeko.
3. Gomez (1994) – Gomez & Sainz (1995). Euskara antzina VSO iza- tea.

**16. Zer da tipologia holistikoa?** Tipologia holistiko diakronikoak denboran zehar hizkuntzak pairatzen dituen aldaketak osotasun gisa azaldu nahi litzuzke, elkarrekin erlazionatuz hizkuntzaren arlo bakoitzekoak.

### 17. Munda eta mon-khmerraren eraketa: zertan balia genezake euskararen diakroniarako?

Azentua da talde bateko edo besteko egiten duen ezaugarria. Aitzin euskara: mon-khemer  
Euskara modernoa: munda

### 18. Taniaren aldaketa interesgarri zenbait.

hizkuntzaisolatzailea zen baina, gauregun, hizkuntzaeransleizatera pasa da.

### 19. Izena-Adjektibo ordena: arrazoirik bai ala halabehar hutsa ote?

Normala baino ez da adjektiboa izenaren eskuinetara agertzea, hortxe agertzen baitira adjektibo berri horren sorburuetatik hiru (eratorriak, partizipioak eta maileguak). VSO hizkuntzetan `I + Adj´ hurrenkera aukera bakarra da. Adjektiboa `tokatzen zitzaion´ lekuan sortu / sartu da.

### 20. Erlatiboaren kokagune zaharra (lekukotasunak) eta berria.

Gizon etorri dena – Etorri den gizona.

### 21. Atzizki eta postposizioen berankortasuna.

o **Postposizioa eta atzizkiak** izatea ezin hobeto datorkio SOV izateari. Postposizioak **gardenegiak** dira eta **gutxiegi gramatikalduta dira oso aspaldikoak izateko**. Hiru fasetan be- zala ditugu:

1. –en gain- (horren gainean...) erakoak, gardenak = berrienak.

2.                                –rekin, -re(n) gatik erakoak, kamusten hasiak,baina oraindik ere garden xamar,
3.       –k,-i... erakoak, ilunenak eta beraz, zaharrenak ziur aski.

**22. Berreraikitako aurrizkiek eta aur.>atz. Aldaketak: zer erakusten digute?**

Gi gi: gibel, gihar, gizen cf. haragi, haraiki, ahariki...

Etimologikoki gibelen gi eta aharikiren ki morfema berbera dira. Horrek esan nahi du noizbait ezkerretan zegoena eskubitara pasa dela. Aurrizkiak normalean ez dira pasatzen batetik bestera. Gibel hasi zenean zenbait mendetan, horren aurrean ez zegoen gi aurrizkia bakarrik, baizik eta pre- posizioa ere bai (gi-), eta hori izan da eskubitara pasa dena atzizki bezala.

**23. Eta azentuaren kokagune zaharrak?**

Garai batean azentua zein hasperena edozein kokagunetan egon zitekeen. Momentu jakin batetik aurrera azentuaren kokagunea mugatu egi ten da. Euskaraz galesez bezala, hasperena azentuaren aurrean bakarrik ager daiteke; beraz, lehen silaban balego, ondoko hasperen guztiak gal- duak lirateke.

**24. Fonologiazko aldaketa nagusiak AEZ-etikAEM-ra.**

Bortitz vs. ahul oposaketa izatetik ahostun vs. ahoskabe oposaketa iza- tera.

**25. Zer dakigu euskararen gramatika kategorien bereizkuntza zaharrez?**

**26. Arrazoiak euskararik zaharrenak Adjektibo kategoria askerik ez zuela esateko.**

with (-gaz) hizkuntzek ez dute adjektiboen klase irekirik. Hizkuntza isolat- zaile

gehienek dituzten adjektiboak aditzaren zatiak dira, adb: gazi, jantzi.

Hizkuntza isolatzaileak ez dira izaten adjektibo klase irekiak,

**27. Zein dira adjektibo kategoriaren hierarkian maila goreneko bi alor semantiko?**

Koloreak.

**28. Zein da deklinabide mugatuaren jatorria? Zerk pentsarazten digu hori? Eman datu bat.**

Mugatu-mugagabe lehenengo eredua Oihenartek eman zuen, nahiz eta Astarloak ere bereizi zituen.

Mugatuaren jatorriaren adibidea:

Plurala:

-k

ume-a/ume-a-

ren

-e-

umeak/umeen < \*ume-ag-

en

**29.                                Noizkoa da artikulua? Zergatik?** Mitxelenarenarabera, artikulua gutxienez EBZ-koa da (V-VI. mendea). Bi hipotesin agusi:

- 1)                                Artikulu zaharra. (Irigoien/Iglesias): Galizian, Iberieraz, Extremaduran eta Akita- nieraz.



- 2) Artikuluaberankorra. Euskara SOV da bainaartikuluakditu, nola da posible? Ar- tikuluaz dela zaharraproposatu.

**30. Zein da deklinabideko –eta-ren jatorriari buruzko hipotesi klasikoa? No- rena da? Schuchardt)**

-eta- lekukasuetan: mendietan... Lehenbizi, "Pagoeta"... eta ondotik deklinabideasortu. Bere ustez –eta- latinezko atzizkitik dator

Izenetik dator deklinabidea: -etum > -eta

**31. –garren-en etimologia.**

x- barren > x-∅ arren > x-garren

**32. Eta hamar-ena?**

Hamar < han\*+ bor(tz)

**33. Euskarak ba ote du deklinabiderik? Zergatik?**

Erroa berdin mantendu: <i>ume-, ume-a-ren</i>
Adjektiboan bakarrik ezarri kasu marka: <i>ume jakintsua-ren</i>
Deklinabide mota bakarra

**34. Deklinabideko kasu edo postposizio marka guztiak garai berekoak dira? Nola ikus dezakegu hori?**

Trask: zaharrak dira, ez dira azken 500 urteetakoak. Kontua da zahartasun hori noizkoa den eta betidanik izan diren postposizio frogatzea.

Lakarra: kasu-markak ez dira betidanikoak eta dira beti egon.

**35. Zein da –k ergatibo markaren jatorria? Zerekin lotu daiteke? Ergatibo**

plurala: \*lagun-ag-ek> lagunak / lagunak.

\*-agek > \*-aek> -ak / -ek

Eransketasuna: morfema 1 = funtzio

1

**36. Datiboko markaren jatorria.**

*Eman* aditza gramatikalizatu da.

Azalpena: -(r)i : Nondik dator? Lakarra: Lichtenberk (1985) kaledonia berriko hizkuntzak aipatu: [*eman*] Aditza gramatikalizatu da eta DAT, ABL, PART. eman du: eman > dat/abl/partit. Adib.:

Bereterecherren kantoria: *in-dazu* → *in* = *eman* → CV? CVC beharko zen, \**nin*

*iguzu* (i sudurkaria): i- gertuago dago datibotik.

Ondorioz, Aditza, gramatikalizatu egin da, eta i- ematen du. Aditz hori, berez, eman da.

**37. Zein da zaharrago: -(r)e ala -(r)en? Zergatik? Ba ote daturik kronologia absoluturik ematen duenik?**

-(r)e da zaharrena.  
Zergatik? EH osoan daudelako *ai ene!* bezelakoak.  
-re]an.  
Kronologia absolutua: XVII. Mendea.

1110. urtean: orcire çorita Leireko  
monastegian 1284. urtean: orçiren çorita  
soroa Orreagan.

**38. Zein da -(re)kin sozietiboaren jatorriari buruzko hipotesi klasikoa?  
Norena da?**

Zaharrena da genitiboarekin agertzen delako.

**40. Zein da, Trasken ustez, adlatiboaren jatorrizko forma, -a ala -ra?  
Zergatik? Zer arazo du bere proposamenak?**

)Trask: hon-a ; horr-a ; Gasteiz-a. Erakusle + leku izenetan, ondorioz /a/ izan behar da forma zaharrena. Arazoa: a) ekialdean -lat / b) /a/ zer da?.

**41. Ba ote preposizioen aztarnarik? Non?**

Bai. VSO hizkuntza guztiak aurrizki eta preposiziodunak dira.

**42. Munduko hizkuntzen joera orokorrari begira, SOV den hizkuntza batak artikulu izatea araua da ala salbuespena?**

Salbuespena.

**43. Zer atara daiteke GUDUA DEISDEA iberiar  
idazkuntetik eus- kal artikuluaren diakroniaz?**

Artikulu zaharra aurkitzen dugu bertan.

**49. Aditzoin + \*edin/\*ezan egitura inoiz orokorra izan bada, non hasi zen perifrasi horretan partizipioa aditzoinaren tokia hartzen? Zein eremu- tatic zein eremutara gertatu zen partizipioaren gailentzea?**

Aditz oin + \*edin/\* ezan :

Perifrasi hauek zaharrenentzat jotzen dira. Gainera, perifrasi hauek badituzte gaur egun desagertuak diren balioak. Adibidez: *etor nendin*, XVI. men- dean aoristo zahar bat izango balitz bezala itzuliko genuen baina egun, *etorri nintzen* izango litzateke bere itzulpena.

**51. Aditz izenen kronologia erlatiboa.**

-te -tzen baino zaharragoa partizipio biak hartzen dituelako.

**53. Zergatik da interesgarria aditz askotan ja- hasiera izatea? Fonetika hutsari egotz dakioke, ala beste zerbaiti?**

Euskarazko diptongoetan eskuineko atala (j,w) beheranzkoa izan ohi da. Bestelako irristariak: ugarienak "ja-"

Josi: \*e-os-i ; jakin: \*e-akin ; jausi: \*e-ausi : forma ezberdin samarrak direnez ez da segurua. Gainera, diptongoak berriak dira. Badirudi "e" horren ondoren kontsonante erorketa bat izan dela bi bokal kontaktuan jartzea ekarri duena. Nor- malean ahostunak edo "n".

Mitxelenak e=ja proposatu zuen: ezarri=jazarri ; elki=jalki: diferentzia semantikoak daude; euskalki ezberdinetan ematen dira; lege fonetiko hutsa balitz euskalki berean eman beharko lirateke. Beraz, fenomeno morfologikoa.

\*j>dd>dž>ž>š>x : pauso guztiak daude dokumentatuta

**54. Zenbat trinko zeuden euskaraz XVI.mendean? Eta orain?**

XVI. mendean: 60

Gaur egun: 20

55. **Zer uste zuen Lafonek aditz trinkoez eta perifrastikoez? Zein da gaur egungo ikuspegia?**

Lafonek: zaharrenak trinkoak eta perifrastikoak latinaren eraginez.

Gaur egun bi hipotesi daude: euskara aditz trinkoz osatua eta euskara aditz perifrastikoz osatua (partizipioak mailegatu, beraz ez ditu maileguak trinkotzen)

56. **Zein da perifrasirik zaharrena? Zergatik?**

∅: etor zaitez

57. **Zein perifrasiri buruz esan dezakegu erdal ereduaren arabera sortuak direla? Aprobaturiko dut bezalako, adizki perifrastikoak maileguak dira eta latinezko perifrasi jakin batetik hartutako egitura dute.**

58. **Partizipio + joan-eroan / eraman perifrasiak zer adierazten du? Zer adieraziko zuen jatorrian?**

Joan /eraman aspektua adierazteko erabiltzen dira. Munduko hizkuntzetan horrelakoak gertatzea ohikoa da.

59. **Zergatik bilatzen ditu Trasken euskara SVO hitzordenekoa zeneko garaiko zantzuak?**

Trask (1977): SVO → SOV aldaketa proposatu zuen (SVO ez ergati- boak), aditz-aurrizkien ordena azaltzeko. Da-aurrizkiaren jatorria, preposi- zioak... jorratu zituen.

61. **Zer gertatzen da hirugarren pertsonako ustezko komunztadura markekin? Zein dira?**

Polimorfismoa ematen da, forma ezberdinak bereizten dira denboraren arabera. *d(a)-, z-, b-, l-*.

62. **Zein zen ikus nezan bezalako perifrasi baten balioa? Eta nekusen bezalako trinko batena?**

ikusnezan, ikusinuen (Adizkiperifrastikoa) /nekusenikustennuen (Adizkitrinkoa, haueke- rabileraosagarriandaude).

63. **XVI. mendeko aditz trinkoek zer balio izan zezaketen? Balio hauek beti berberak ziren?**

Jatorrizko balioa *erresultatiboa* da, emaitza bat adierazten duen perifrasi bada. Adibidez: ikusi nuen *´vi`* baina XVI. mendean *´tenia visto´*, adierazten zuen. Hala ere, lehenengo balioa hartzen hasi zen, beraz, aurrekoaren erabilera murriztuz joan zen.

64. **Zein da, Trasken ustez, adiztetako da- aurrizkiaren (df. Dator...) jatorrizko balioa?**

Aspektu markatzat hartzen du. E-tor / da-tor

65. **Zein da, Mounoleren arabera, partizipio + izan/\*edun perifrasiaren jatorrizko balioa?**

Honen sorrerak besteari tokia kendu dio. Adibidez: ikus nezan/ nekusen.

Garai batean, XVI. mendean adizki trinkoak ugariagoak ziren. Celine

Mounolen arabera, ikus nezan, *vi* (Adizki perifrastikoa) /nekusen *veía* (Adizki trinkoa, hauek erabilera osagarrian daude).

**245. Lege fonetikoak eta analogia zein korronterren oinarritzko analisi-bideak dira?**

Neogramatikarenak.

**246. Emaidazu kronologia erlatiboaren adibide bat.**

Arena > areha > harea.

**247. Zer dira aldaketa mota erregularrak?**

Testuinguru zehatz batean salbuespenik gabe gertatzen diren aldaketak dira, gehienbat aldaketa fonetikoak dira. Aldaketa fonetiko erregularren eta besteen arteko bereizketa egingo dugu berreraiketarako.

**248. Zergatik dira hain interesgarri irregulartateak?**

Beste garai zaharrago baten inguruko informazioa ematen digutelako; hau da, gramatika zaharren isla dira irregulartateak eta antzinateko erregulartasunen berri ematen digute.

**249. Berreraikitzailearen etsai nagusia morfologian.**

Analogia.

**250. Zer da gramatikalizazioa?**

Unitate lexiko beregain batek gramatikan funtzio bat hartzen duenean.

Elementu lexiko edo gramatikal bati balio gramatikala areagotzea balio lexikoa kenduz.

**251. Zer da deriba?**

Sapir-ek asmatuako terminoa: hizkuntzak norabide jakin batean aldatzen dira eta ez noraezean.

**252. Zertan bereizten dira pidginak eta kreolerak?**

Pidgina bi hizkuntzetako hiztunek elkar ulertzeko asmatuako hizkuntzen nahasketa da. Asmatuako hizkuntza hau bigarren belaunaldiari pasatzen zaionean ama-hizkuntza bezala kreolera da. (kreolerak pidgin hizkuntzatik eratorritako ama hizkuntzak dira).

**253. Zer da protohistoria?**

Historia eta historiaurrearen arteko faseko lekukotasunak. Ez dago euskal testurik baina bai zeharkako lekukotasunak.

**254. Zer dira homologiak?**

Azaleko antzekotasuna izan ala ez jatorri bera duten hitzak dira.

**255. Euskararen ahaidetasun hipotesien artean zein da zuretzat egokiena? Zergatik?**

Isolatua dela. Metodo konparatuaren bidez ez delako nahikoa. (1. aukera). Bat ere ez, ez dagoelako froga nahikorik. (2. aukera).

**256. Zenbat urte (mende) ditu euskarak?**

Ez dakigu.

**257. Definitu aitzin euskara:**

Berreraiki daitekeen euskararik zaharrena.

